

# ZU HEMEN ZAUDE goiena



Patxi Larranaga, txondorren puntan, pako-egurrez elikatzen, astelehenean, hura piztu zuten egunean.

## IRAGANA, ORAIN

Piztu dute Elosuko txondorra eta 1.500 kilo ikatz ateratzea espero dute / 24

IMANOL BELOKI

# Gaur lehertuko dira Pazko jaiak

Herriko futbolariak botako dute jaien hasierako suzeria eta ekainaren 6ra arte bada zertaz gozatu Bergaran / 25

**Eskoriatzako 21. Ferixie berrikuntzekin dator, udalerriko bi gune nagusitan banatuta / 19**

### SINADURAK

	PALOMA MARTINEZ / 17
	XABIER ARREGI MURGIENDO / 8
	MAIDER ALDAI / 22
	ENERITZ URRUTIA / 12
	ANDER ETXEBERRIA / 48

+

IKER MARTINEZ  
**'ITZALEN MUNDUA'**  
DISKOA OPARI

### 2 mō betaurreko:

Gama altuko progresiboak  
+  
eguzkitako progresiboak

**197€**

M.P.S. 175/15146

[www.multiopicasgipuzkoa.com](http://www.multiopicasgipuzkoa.com)

BEASAIN • EIBAR • DONOSTIA • ERRETERIA  
IRUN • LASARTE • TOLOSA • ORDIZIA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.  
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.



Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95  
**ARRASATE**

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75  
**BERGARA**

**MULTIOPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan



# UNED, "punta-puntako" unibertsitaterako bidean

"XXI. mendeko punta-puntako unibertsitate bati dagozkion azpiegiturak eta ekipamenduak eskaintzeko" helburuarekin, Bergarako Errege Mintegiaren birmoldaketa lanak esleitu dizkiete, 1.382.356 eurotan, Goitu Eraikuntzak eta Aizkorpe Elektrikariak UTE enpresei

**Ubane Madera** BERGARA

UNED-Bergara Errege Mintegiaren zaharberritzerako lanak uda hasi baino lehenago abiarazi eta 12 hilabeteen, 2018-2019 ikasturte hasierarako, bukatzea aurreikusi dute; lan astunenak, gainera, uda partean egingo dituzte, egoitza itxita dagoenean.

Hiru fasetan egingo dituzte: lehen fasean, besteak beste, eskailera nagusia aldatu egingo dute eta forjaketa egingo dute. Bigarren fasean, eraikinaren barruko aldeko espazioen behin betiko konfigurazioa egokituko dute; eta hirugarren fasean, ekipamenduz hornituko dute eraikina. Obrak zatika egiteko arra-



Errege Mintegia, UNED-Bergararen gaur egungo eraikina. GOIENA

zoia da unibertsitatearen "jar-duera akademikoa bermatzea".

## 5 milioi euroren bueltan

1.382.346 eurotan esleitu dituzte UNED-Bergararen birmoldaketa lanak. Kopuru horri beste 290.292 euro gehitu behar zaizkio, BEZarengatik. Eta ekipamenduak eta informazio eta komunikazio teknologikoen osaketa, berriz, Jaurlaritzarekin adostutako laguntza ekonomiko bati esker egingo dela jakinarazi dute.

Zifra potolo horiei beste batzuk gehitu behar zaizkie; orain arte egindako inbertsioak, alegia: 2008an eta 2015ean 2,575 milioi euro bideratu zituzten eraikina erosteko eta hainbat hobekuntza egiteko. 2016an, beste 1,1 milioi euro bideratu zituzten arrazoi berengatik. Eta orain, 1,3 milioi euroko inbertsioa egingo dute (BEZ barik) birmoldaketan.

## 3.000 laguneko komunitatea

Gutxi gorabehera, bada, 4,98 milioi euro inbertitu dituzte hainbat erakunderen artean, "bai UNEDeko komunitatearen pres-takuntza beharrak eta baita ere

bergararren eskari kulturalari erantzuteko", UNEDetik bidalitako oharraren arabera.

Bestela esanda, azken obren esleipenarekin, Patronatua osatzen duten Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kutxabankek, Bergarako Udalak eta UNEDek zuzendutako beste hiru "operazio estrategiko borobiltzen dira: egoitzaren titulartasuna bereganatzea; bergararren erabilpenarako antzinako elizan dagoen espazioan erabilera anitzetarako aretoa eratzeko obren exekuzioa eta, azkenik, Errege Mintegi barneko espazioen eraberritze integralerako obren esleipena".

Eta horri guztiari esker, UNED Bergaran jarraitzea ahalbidetzen dela azpimarratu dute, "espazio balioanizdun bat izateko bergararren eskaerari erantzuten" zaiola eta "UNEDi metodologia aldetik aitzindaria izan den unibertsitateari bere jabetzapeko eraikin, a guztiz eraberritua bai kanpoaldetik eta bai barnealdetik bermatzen" zaiola, eta horrek 3.000 ikasle, irakasle, tutorez... osatutako komunitateari "kalitatezko zerbitzua izateko oinarriak jartzen" dituela.



# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

## GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Izen ematea:

Ekainaren 5etik 16ra

### Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

[www.mondragon.edu/gmhz](http://www.mondragon.edu/gmhz)  
[gmhz.mgpe@mondragon.edu](mailto:gmhz.mgpe@mondragon.edu)  
 943 71 21 91 • 664 277 592





# Eskaera nagusia: garraio publikoa hobetzea

Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak Debagoieneko herritarrekin eta eragileekin Diputazioaren jardunaren berri bertatik bertara partekatzen dabilta Aurrekontu Irekiak kanpainaren baitan; helburu nagusia da ekarpenak jasotzea aurrekontuei begira

**Ubane Madera** DEBAGOIENA

Aretxabaletan hasi du eta Bergaran bukatuko du Gipuzkoako Foru Aldundiak Aurrekontu Irekiak kanpaina –eguztenez Aretxabaletan; Antzuolan atzo; gaur, barikua, Arrasateko Biteri plazan ipiniko ditu karpa bi; martitzenez Eskoriatzako plazan eta ekainaren 16an, Bergarako San Martin plazan–.

Helburua da debagoiendarrei Diputazioaren jardunaren berri eman, erakundearen aurreikuspenak eta erronkak partekatu eta ekarpenak jaso, 2018ko aurrekonturako. "Dagokien departamentuetan proposamenen bideragarritasuna eta ea eskumenekoak diren aztertuko da, eta ondorioak helaraziko dizkiegu Gobernu Kontseiluari eta diputatuei, eurek aurrekontuen lanketan txertatu ditzaten. Batzuk txertatuko dira, beste batzuk ez, baina, edozein kasutan, aurrekontuak onartzean, konpromisoa hartzen dugu proposamena egin duten guztiei erantzuna emateko", esplikatu zuen Joseba Muxikak, Herritarren Partaidetzako Diputazioko zuzendariak, Aretxabaleta Lanbide Eskolako saioan.

Han, besteak beste, garraio publikoa hobetzea eta nagusien egoitzako langileen baldintzak eta atez atekoaren aldarrikapena partekatu zituzten Muxikarekin.



Joseba Muxika azalpenak ematen Aretxabaleta Lanbide Eskolan. UBANE MADERA



**JOSEBA MUXIKA**  
HERRITARREN PARTAIDETZA

"Garrantzitsua da herritarren eta eragileen partaidetza sustatzea, Foru Aldundiaren egitasmo garrantzitsua burutzeko: aurrekontuak".



**ANGEL OSINALDE**  
IKASLEA

"Positiboa da bideratzea feedbacka, eta temperatura hartzea. Beti daude batek ikusten ez dituen ikuspuntu desberdinak".

## "Denen arteko elkarlana behar da", Kultura sailburuak dioenez

Bingen Zupiria Goienaren egoitzan izan zen, tokiko hedabideen jarduna bertatik bertara ezagutzen

**U.M. DEBAGOIENA**

"Uste dut denen arteko elkarlana behar dela (...) gauza asko daudela egiteko eta denen beharra izango dela gauzak aurrera ateratzeko", adierazi zuen Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikarako sailburu Bingen Zupiriak Goiena Komunikazio Taldera egindako bisitan.

Harekin batera Goienan izan ziren, Jaurlaritzatik etorrita, Miren Dobaran Hizkuntza Politikarako sailburuordea eta Euskara Sustatzeko zuzendari Esti Alkorta ere. Eta Tokikometik, Toki Komunikabideen Bateragunetik, etorrita bertako presidente Jone Guenetxea eta zuzendari Alaitz Artolazabal.

### Elkarlanerako asmoak

"Goiena ezagun zaharra dut, eta Goienaren berri aspalditik daukat. Iruditu zitzaidan kargu har-

tuta hainbat toki bisitatzea on dela eta horien artean zegoen Arrasatera etortzea eta Goienaren egitura, lanak eta produktuak gertuagotik ezagutzea", esplikatu zuen Jaurlaritzako ordezkariak. Eta hala egin zuten, Goienako zuzendaritzako kideen eskutik. "Nolabait, gure arazoak zeintzuk diren, ze estrategia daukagun, zertan ari garen, eta aldaketa sendo batzuen aurrean nola jotzen ari garen erakutsi genien ordezkari politikoei. Batzuk gauza berriak ziren euren ere, eta balio lezake norabidea denok antzera egiteko, denok ere arraun egin dezagun norabide berean", esplikatu du Iban Arantza, Goienako zuzendari nagusiak.

Goienaren eta euskarazko toki hedabideen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko elkarlanerako asmoak berretsi egin zituzten, bada, bisitan.



Jaurlaritzako, Tokikomeko eta Goienako ordezkariak, bisitan. XABI URZELAI

# konfiantzaz

Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa

## Zure Lanerako Bidea

**AURREMATRIKULAZIO EPEA ekainaren 5etik 16ra**

→ TAFYD

→ Erizaintzako zaintza osagarriak

→ Mikroinformatika

→ Osasun larrialdiak

943 77 20 25 (ext.4322) • lanbideheziketa@arizmendi.eus

[www.arizmendipro.eus](http://www.arizmendipro.eus)



# Biba Mintzalagunak! Derion elkartuko gara

Bihar, ekainak 3, hamabigarren Mintza Eguna ospatuko dugu Derion. Lagunartean euskaraz hitz egin eta ondo pasatzeko helburuarekin, egun osoko egitaraua prestatu dute Topagunean. 6.000 lagunek parte hartzen dute Mintzalaguna egitasmoan

## Goiena komunitatea

Leire Lardizabal / Topagunea

Ezer gutxi eskatzen omen du eta asko eman. Probatu dutenek diote jendearen arteko harremanak areagotzeko ezin hobea dela eta lehen ezinezkoak iruditzen zitzaizkien hainbat gauza egiten dituztela orain; euskaraz poteatzea, kasu. Ezin hobea da, gainera, nork bere buruarengan konfiantza, soltura eta maila hobea eskuratzeko. Ez da harritzekoa probatu duten gehienek esatea orain gehiagotan egiten dutela.

Ekimenaren bueltan, 6.000 pertsona elkartzen dira astero ordubetez euskarari arnasa emateko. Hogeita lau urte daramatzate Mintzalagunek txingurri lan horretan, euskaraz praktikatzeko gogoz diren bidelariak eta horretan laguntzen dieten bidelagunak. Erleak eta loreak bezala, batak besteari emanez, inguruko guztioi on eginez. Mintzalagunek herriz herri egiten duten lanari esker, euskal hiztunak ugaritzen direlako, harreman sare berriak sortzen direlako eta euskaraz aritzeko gune berriak irabazten direlako.

Mekanikariak, sukaldariak, erizainak, lorazainak, administrariak, zerbitzariak, ikasleak, jubilatua, musikazaleak, txi-

rrindulariak, kazetariak, okinak, irakasleak eta bururatu ahal diren ofizio eta bizio guztietakoak dira. Motibo ezberdinegatik hasi ziren honetan: euskaraz aritzeko lotsa gainetik kentzeko, ahaztutako hizkuntza freskatzeko edo, beste batzuei lagunduz, euskarari ekarpena egitearren... ordubetezko konpromisoa astean. Urrea balio dute ordubete horiek! Talde bat elkartzen den bakoitzero ematen da euskaraz bizitzeko pauso bat.

Ordubete horiek askorako ematen dute. Kafe baten bueltan hasitako berbaldiek bestelako formak hartzen dituzte: pintxo-pote, mendi-bueltak, kontzertu, jaialdi, eta abar. Elkarrizketa gehiago esan ahala, konfiantza irabazi ahala, lotsak biluztu ahala, esperientzia sakontzeko gogoia indartzen baita. Kariñoa hartzen diote elkarriz. Halaxe sortzen dira gero lagun talde euskaldun berriak. Udaberriaren loreak bezala. Halaxe jarraitzen

**GEROZ ETA GEHIAGO DIRA EUSKARAREN ALDE EGOTETIK EUSKARAZ EGITERA PASATZEN DIRENAK**

dute askok elkartzen egitasmoaren helburua bete ostean ere.

Bidelariak eta bidelagunak. Kontzienteki ala ez, gure hizkuntzaren aktibistak dira. Euskararen erabilera indartzen ari diren aktibista zuzenak. Elkarrekin astero euskaraz arituz, arnas freskoa ematen diotelako gure hizkuntzari. Arian-arian, egunero euskaraz bizitzearen aldeko jarrera iruten dabilzako Euskal Herri osoan zehar.

Lasai esan dezakegu Mintzalagunek Lourdesko urak baino onura gehiago dakartela gurera, mirarietan baino, ekinaren ekinenez lortutako ezinetan sinesten dugulako. Guk Berbalagunen, Mintzalagunen, Solaslagunen, Solaskideengan sinesten dugu. Astero-astero eta herriz herri, geroz eta gehiago dira euskararen alde egotetik euskaraz egitera, praktikotasunera, jauzi egiten ari direnak.

Datorren asteburuan ospatuko dute Mintza Eguna Derion. Euskal Herri osoko Mintzalagunak elkartuko dira, festa giroan, euskaraz gozatzeko. Izan dadila Derio harremanak estutzeko hitzordu. Izan dadila urtean zehar egindako lana eta etorriko diren lorpenak ospatzeko jaia. Mintzalagunen jai handia! Bejondeizuela!



Iazko Mintza Eguna. TOPAGUNEA

## Aurtengo Mintza Eguna Derion

Bihar, ekainak 3, XII. Mintza Eguna egingo dute Derion, Topaguneak antolatuta. Egun osoko egitarauaren barruan, hainbat ekintza izango dira, guztiak ere euskararen bueltan. Topagunearen Mintzalaguna egitasmoan parte hartzen dutenak elkartzeko eguna da.

Euskal Herri osoan 1.200 Mintzalagun talde daude, 6.000 kide inguru.

11:00etan jarriko da martxan biharko egitaraua, ongietorri ekitaldi batekin. Aurtengo berrikuntza nagusia eguerdiko bazkariaren ostean egingo duten kantu saioa izango da. Horrez gain, baina, triki-poteoa, bisita gidatua, umeendako jolasak, taberna ibiltaria... denetarik izango da.

## Goienak sendotu egin du bere nagusitasuna

Hedabide tradizionalen krisiaren aurrean, GOIENA aldizkariak eta Goiena telebistak gora egin dute

## M.T. DEBAGOIENA

Paperaren eta telebistaren kontsumoa jaitsi egin da, baina GOIENA aldizkariak eta Goiena telebistak iaz baino jarraitzaile gehiago dituzte. CIESen urteko lehen neurketatik ateratako ondorioa da hedabide tradizionalen krisiaren aurrean Goienak sendotu egin duela nagusitasuna.

GOIENA aldizkariak 39.000 irakurle ditu Gipuzkoan, iaz baino 3.000 gehiago, eta alde handiarekin da Debagoiengan gehien kontsumitzen den hedabidea, 32.000 irakurleekin. Gai nontzeko papereko guztiek izan dute jaitsiera.

Goiena telebistari dagokionez, 6.000 ikus-entzule ditu egunero Gipuzkoa osoan eta iazko neurketatik hona gora egin duen telebista bakarrenetakoa da.

Aurtengo lehen bost hilabetetan ia %5eko igoera izan du *Goiena.eus*-ek, erabiltzaile bakarrei dagokionez, iazko datuekin alderatuz gero, Google Analytics-en arabera. Batez beste, 6.000 erabiltzaile ditu egunero, astean barrena, baina egon dira egunak 10.000tik gora izan dituenak; esaterako, apirilaren 12an, Arrasateko San Andres auzoan izandako tiroketa dela eta. Orduan 13.389 erabiltzaile izan zituen.



**Oinarrizko lanbide heziketa:**

- Sukaldaritza eta jatetxe arloa

**Erdi mailako zikloak:**

- Sukaldaritza eta gastronomia
- Jatetxe arloko zerbitzuak
- Okingintza, gozogintza eta konfiteria

**Goi mailako zikloak:**

- Sukalde-zuzendaritza

**Aurrematrikula: ekainaren 5etik 16ra**

Presagana kalea 1 behe, 01013 Gasteiz  
Tel.: 945 25 80 25  
gamarra@gamarraeskola.com | www.hosteleriagamarra.com





# Jositajosi

**EUSKAL ESKOLA  
PUBLIKOAREN  
26. JAIA** **EKAINAK 4**  
Vitoria-Gasteiz  
**2017**



[www.euskaleskolapublikoarenjaia.eus](http://www.euskaleskolapublikoarenjaia.eus)



**goieskola**

debagoieneko euskal  
eskola publikoa



Aramaio S. Martin HE  
Arrasate Herri Eskola  
Arrasate BHI  
Arrasate HHI-EPA  
Eskoriatza Luis Ezeiza HE  
Aretxabaleta Kurtzebarri HE  
Aretxabaleta Kurtzebarri BHI  
Antzuola Herri Eskola

Elgeta Herri Eskola  
Bergara San Martin Agirre HE  
Bergara Ipintza BHI  
Bergara HHI- EPA  
Oñati Errekalde HE  
Oñati Zuazola-Larraña BHI  
Angiozarko Herri Eskola



# Gazteak tabakoaren atzaparretatik ihesi

Asteazkenean Kerik Gabeko Eguna ospatu zen. DBHko ikasleak tabakismotik prebenitzeko, eskualdeko hainbat ikastetxek hartu dute parte 'Kerik Gabeko Gazteak' programan, eta Gaztelupe-Arizmendiko ikasleek logo onenaren saria jaso dute

**Xabi Gorostidi** DEBAGOIENA

Gaztetxoei tabakoa erretzeak dituen kalteak agerian uzte aldera, eskualdeko ikastetxeetan kontzientziario kanpainak egin dituzte, asteazkeneko Kerik Gabeko Egunaren baitan. Horren erakusle da *Kerik Gabeko Gazteak* programa.

DBHko lehen zikloko ikasleek hainbat lan eta tailer egin dituzte, eta, adibidez, tabakoaren kalteak islatzeko logotipo bat ere diseinatu behar izan dute. Gipuzkoa mailan 2.000 ikasletik gora hartu dute parte, eta, hain justu ere, Arrasateko Gaztelupe-Arimazubi ikastolako Gizane Oleak egindako logoa izan da irabazle.

Lan hori aitortzeko, oparitzo bat eman diete udaletxean gela horien ordezkari; gela irabazleak egindako logoaren lamina bat eta ikasle parte-hartzaileen zat motxila bana. Horrez gain, gelakide guztientzat, Larraitzen dagoen abentura parkera joa-



Arrasateko osoko bilkura gelan egin zuten sari banaketa. AMAIA TXINTXURRETA

teko sarrerak ere jaso zituen Oleak.

Arrasateko Udaleko Gizarte Ongizateko zinegotzi Amaia Azpiatzuk eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendari Miren Dorronsorok banatu dizkiete

sariak, eta gaztetxoek pozik jaso dituzte.

## Informazio-karpak

Osasun zentroetako langile sanitarioek informazio pertsonala ematen ari dira, gainera, egu-

notan, tabakoaren prebentzioko jardueri buruz.

Informazio eskuorriak banatzen ari dira eta karbono monoxidoaren determinazioak, erre-tzailearen pasaporteak, biriken adina neurtu, eta abar egiten ari dira. Arrasaten, esaterako, Seber Altuben jarri dute karpa.

Bestalde, eskualdeko farmaziak ere ari dira programa horretan parte hartzen. Horretarako, tabakoaren gaia aipatzen duten kartelak eta aurkezpenak jarriko dituzte erakuslehoetan.

## Liatzeko tabakoa, okerragoa

Erizainek emandako informazioen artean, nabarmendu dute liatzeko tabakoa tabako tradizionala baino kaltegarria dela. Besteak beste, horren eraginak baretu eta birrikak zabaltzeko substantziak dituelako.



**GIZANE OLEA**  
LOGO ONENAREN EGILEA

## "Oso pozik nago, ez nuelako irabaztea espero"

"Birika formako logo bat egitea pentsatu nuen, zuhaitz baten arramekin. Birikaren aldeetako bat osasuntsu dago, lore koloretsuekin, eta bestea, aldiz, kaltetuta dago, arrama grisekin eta lorerik gabe. Nolabait, erretzearen eta ez erretzearen artean dagoen aldea erakusteko".

## Bailaratik autobusa Euskal Eskola Publikoaren jaira joateko

Hezkuntza publikoaren jai garrantzitsuenaren 26. edizioa Gasteizen ospatuko da egitarau mamitsuarekin

**X.G.** DEBAGOIENA

Aurten Gasteizen izango da Euskal Eskola Publikoaren jaiaren 26. edizioa.

Bertara joan ahal izateko, Arrasateko Herri Eskolak eta Kurtzebarri eskolak autobus bate-ratua antolatu dute.

### 'Josi eta josi'

Hori izan da aurtengo jaialdiaren muina adierazteko aukeraturako leloa. "Lelo honen bidez hauxe transmititu nahi dugu: aniztasunak eskaintzen duen aberastasunetik abiatuta, Euskal

Eskola Publikoak elkarbizitzan oinarritutako gizarte kohesio-natua eraikitzen duela, eta errespetuaren eta tolerantziaren balioetan hezten dituela etorkizuneko belaunaldiak", adierazi dute jaialdiaren antolatzaileek.

### Hezkuntzaren ardatz

1994an antolatu zen jaialdia lehendabizikoz, eta ordutik hona helburua ez da aldatu. "Euskal Eskola Publikoa hezkuntza sistemaren ardatz egituratzailea izan behar da, eta hori jai giroan aldarrikatuko dugu".

## Euskal Eskola Publikoaren jai

### Egitaraua

- **12:00** Pirritx eta Porrotx. Burubeltz kalejira.
- **13:30** *Eskolatik Plazara* ikasleen ikuskizunak.
- **13:30** *Zer, Rap, Reggae, RagaMuffin*; Aneguria, Zesuria, Markel Iraizoz, la Basu, Gorka Suia, DJ Kanaky.
- **15:00** *Txapela buruan eta ibili munduan* antzerki musikatua
- **17:00** Zesatek
- **Egun osoan zehar** Saharako haima tailerrak, rokodromoa, margolarien irla, elikadura eskola...



HONDARTZAN  
MENDIAN  
KANPINEAN  
JAIETAN  
IGERILEKUAN  
OPORRETAN  
BIDALETAN  
KIROLEAN



**UDAL EUSKALTEGIAK**  
euskara klaseak

**16/17** UDAKO EUSKARA IKASTAROAK



**BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA**  
Bidebarrieta, 18-behea Oñati.  
Tel.: 943 78 24 96 • euskaltegia@onati.eus

**ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA**  
Arimazubi plaza, 2.  
Tel.: 943 79 70 77 • euskaltegi@arrasate.eus

**BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA**  
Barrenkalea, 33 (Irizar jauregia)  
Tel.: 943 76 44 53 • euskaltegia@bergara.eus



## Eta kooperatibak... zer dio?

**ANE GOROSABEL, AITZOL ITURBE, LUR PAGOAGA, NAROA ARIZNABARRETA  
ETA JOSETXO LUCAS**

'BASERRIA XXI' -EN IZENEAN  
DEBAGOIENA

Gipuzkoako hainbat eragile, elkarte, mugimendu eta norbanako aspalditik gabiltza erraustegiaren eraikitzeak ekarriko dituen kalteak kaleratu guran.

*Pertsona helburu* duen administrazioak herritarren ongizaterako pausoak emateaz ahaztu, eta, enpresa jakin batzuei, ezkutupean, kontratu basatiak oparitu dizkio -1.200 milioi euroko zorra egotzi digute gipuzkoarroi, eta horietatik 100 milioi, debagoiendarrok ordainduko ditugu-.

Zer esanik ez makroproiektu honek naturari eragingo dion kalte erreparaezinaz, gune ugari dioxinaz betiko kondentatuz.

Joan den zapatuan, Zubietan, hainbat sektorek argi adierazi genuen *Erraustegirik ez!* aldarria, alternatibak ditugulako, bizitza maite dugulako, natura gurea sentitzen dugulako...

Dena den, bada faltan bota genuen hotsa.

Publikoki adierazi ez den arren, gure bailarako enpresa ezagun batek esku-hartze garrantzitsua izan du erraustegia eraikitzearen onarpenean.

LKSk, Mondragon Taldeko kide den kooperatibak, erraustegiaren eraikitzeak ingurugiroan duen eragina aztertzen duen informe tekniko burutu du, Diputazioak horrela eskatuta.

Ondorioztatzen dena da naturarendako jasagarria ei dela sailkatu gabeko gure zaborra erretzeko helburua duen erraustegia eraikitzea.

LKSk jasagarritzat jotzen du kutsadura ekarriko duen proiektua, kalitatezko ur emari eta lur emankorren kondena, porlanezko makroinfrastruktura

saihesgarria, zaborra kudeatzeko alternatibaren baztertzeara, epe luzera kontaminazioa gutxitu ez, eta airearen usteltzea ahalbidetuko duen estrategia kapitalista...

Non dago Debagoieneko kooperatibismoaren posizionamendua?

Erabaki garrantzitsuak ez al dira langileen artean hartzen?

Zer gertatuko litzateke Mondragon Taldeko kooperatibistek gaia mahai gaineratu eta herriarendako proiektu jasanezina dela aldarrikatuko balute?

Akaso... hau al da bailaran nahiko genukeen errealitatea?

Baserritarrok ez genuke nahiko, inondik inora.

Eta horregatik, bailarako kooperatibistei zuen erabaki-guneetan gai honen inguruan eztabaidatzeko gonbita luzatzen dizuegu. Munstro hau gelditzeko aukera baldin badago, aldarria bazter guztietatik entzun dezatela.

Eutsi lurrari!

Erraustegirik ez!

## Union Cerrajeran, 1936an, 566 langile kaleratu

**JUAN RAMON GARAI**

INTXORTA 1937 KULTUR ELKARTEA  
ARRASATE

Faxisten errepresioaren beste aurpegia izan zen lan barik utzi zituztenena. Arrasaten Union Cerrajera saiatu zen gehien horretan.

1936ko uztaileko kolpe militarri erresistentzia egiteko, Cerrajerako 139 langile aurkeztu ziren.

Horietatik 86 izan ziren 1934ko greba iraultzailean kaleratu zituztenak, eta, 1936ko amnistiarekin, enpresa behartu zuten langileak berriz hartzera, 1936ko martxoan.

Faxistak Arrasatera sartu ziren 1936ko irailaren 26an.

Sartu baino lehen, herritar asko ihesean joan ziren Bizkai aldera, egun batzuk geroago.

Union Cerrajerako enpresaburuek deia kaleratu zuten 1936ko urriaren 1ean, eta esan zuten lantegira aurkeztu ez zirenak lan barik geldituko zirela.

Horrela izan zen; gutxienez, 566 langile kaleratu zituzten, langileen %50. Horietatik 94 emakumeak ziren.

Ihesi Bizkaira joatearren, *baja voluntaria* eman zieten.

Horietako asko Arrasatera itzultzean, kale gorrian utzi zituzten, guztira 493 langile; beste 73 langileak onartu zituzten 1937ko irailean hasi eta hurrengo hogeitortean.

Nahiz eta premia handia izan gaitasun profesionaleko langileak hartzeko, lantegiko zuzendaritzak ez zituen onartu ehunka langile.

Ezkerreko ia denak eta abertzale asko geratu ziren lan barik.

Bidalitakoen artean baziren senitarteko guztiak: hiru senide (hamaika familia), lau senide (zazpi familia), bost senide (bi familia) eta hamaika senide (familia bat). Kaleratuen artean bazeuden langileak 40 eta 60 urte arteko antzinatasunarekin.

Horietako askok alde egin behar izan zuten herritik; beste batzuek oso baldintza txarretan lan egin zuten, eta, gose urteak izanda, gaixotasun ugari pairatu zuten eta uste baino lehenago hil ziren.

Izen horiek guztiak ikusi ditzakezue gure webgunean, [www.intxorta.org](http://www.intxorta.org)-en, eta osatzen lagundu dezakezue.

## Nazio kulturala

**JON OTERO URIBARREN**

ARRASATE

Asko atzeratzen ari da, bai, baina denok desiratzen dugu, dagoeneko, eta behingoz, etorri dadin Espainiako konstituzioaren erreforma bat, askotan aipatua izan den erreforma alderdi espainiarrengandik.

Abertzaleok nahi dugu negoziazio horretan onartu diezagutela nazio politikoa izaera guri eta katalanei.

Edozelan ere, gauzak ez dira hain errazak izango; izan ere, Madrilak botere itzela du.

Baina negoziazio horretan guk geuk bai jokatu dezakegu gure karta gogorra nazio kulturala onartua izan dadin hemen, gure lurrian, alegia.

Hots, kulturalki independenteak izango gara Espainiarekiko, gure eskumen berriak izango ditugu.

Nahi izanez gero eten ditzakegu telebista espainiarrak, eta baita irrati espainiarrak ere, kultura baitira.

Bueno, ni neu telebista guztiak emisiorik gabe uztearen aldekoa naiz, baita hemengoak ere, baina...

Kultura ere bada hizkuntza bera.

Sor ditzakegu eskolak, non gaztelera irakasgaia ez den emango; horrela, indartu egingo dira euskara eta atzerriko beste hizkuntza bat, ingelesa kasu, ordu gehiagoz.

Horretarako, baina, esandako moduan, Espainiako konstituzioaren hirugarren artikulua aldatu egin behar da, non behartzen duen euskal herritar oro gaztelera jakitera.

Argi eta garbi, nazio kultural izaera hori lortzen badugu, behartuko da, bai, baina bietako bat soilik; hau da, edo euskara edo gaztelera jakitea euskal herritarra izateko, eta, noski, Euskadin errolatuta egotea.

Hazi ditzakegu seme-alabak euskal giroan, gaztelera ezarri gabe.

Bihar edo etzi ez badakite gaztelera eta bai, berriz, euskara, bada, euskal herritartasuna onartua izango dute.

Eta horrela, berdinketa bat lortuko luke; hau da, nazio politikoa lortu ez, baina nazio kulturala lortu bai.

Hain zuzen ere, Madrilan aldekoa bata, baina gure aldekoa bestea.



## TXANTXIKU IKASTOLA, Koop. Elkartearen OHIKO BATZAR NAGUSIA GAI ZERRENDA

**EGUNA:** EKAINAREN 21a, EGUAZTENA.

**ORDUA:** 18:00etan lehen deialdian eta 18:30ean bigarrenan.

**LEKUA:** Santa Ana antzokia

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea Batzar honetako akta onartzeko.
2. 2016/2017 ikasturteko kudeaketa txostenaren berri ematea eta, badagokio, onartzea.
3. 2016 ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea.
4. 2016 urteko emaitzen banaketa eta, badagokio, onartzea.
5. 2017 urteko aurrekontua aztertzea eta, badagokio, onartzea.
6. 2017/2018 ikasturteko zerbitzuen ordainsarien berri ematea eta, badagokio, onartzea.
7. Gurasoen Kontseiluaren urteko jardueraren berri ematea.
8. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
9. Galde-eskeak.

**OHARRA:**

Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri ditzutela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kudeaketa txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan ditzaten.

Oñatin, 2017ko ekainaren 2an





ZABALIK

XABIER ARREGI MURGIENDO

## Giza istoriotxoak (II)

Lanerako bidean noa, ohi bezala, kotxean, autobusaren aukera baztertu eta gero, beste behin.

Ohiko trafikoa dago Arrasate inguruan, kotxe-ilarak norabide bietan. Ezohikoa, berriz, bidean aurkitu dudana: gizon bat auto-stop egiten. Bidearen bazter batean dago, albotik pasatzen diren gidariei so eginez, adi-adi, horien keinu adierazgarri baten zain. Geratu naiz. Eskerrak emanez, kotxean sartu eta bere istorioa kontatzen hasi da Jose.

Bere bizitzaren erdia baino gehiago lanean aritu ondoren, langabezian dago, orain, 60 urte betetzear dituen bizkaitarrak.

Etxea ordaindu ezinik, bankuaren eskuetan geratu da. Ezaguna duen abokatu baten bitartez etxea berreskuratzeko ahaleginetan ei dabil.

Luze joango dela esan omen dio lagunak: bi edo hiru urte, gutxienez.

Lasai hitz egiten du Josek, erreminik gabe, baina goibel, nahi gabe bere hitzei soinu triste eman.

### HARA ETA HONA DABIL, OSTATU BILA, GURE LURRALDEKO ATERPE BATETIK BESTERA

Urte gutxi geratzen zaizkio jubilatzeke. Langabezia-laguntza amaituta, xoxik gabe dabil azken hilabete hauetan. Ez omen du familian inor lagundu ahal dionik.

Diru-sarrera bermatzeko errenta jasotzeko zain dago. Ekainaren lehen astean kobratzen hasiko dela bermatu diote.

Bitartean, hara eta hona dabil, ostatu bila, gure lurraldeko aterpe batetik bestera.

Bi hilabete ondoren, ondo baino hobeto ezagutzen ditu guztiak.

Haien egutegia, kokapena, ordutegiak, zerbitzuak eta bitxikeriak kontatzen dizkit, orain, Gasteizko taberna batean, gosari oparo baten bueltan.

Hara joan nahi du Josek, aterpe bila. Lekurik izango ote duen ez daki, baina ez du beste aukerarik. Donostiako aterpetik dator, bertan ostatu hartzeko zituen egunak agortu ondoren. Egun osoan auto-stop egin ondoren, Elgoibarrera besterik ez da iritsi. Bertan gaua igaro behar izan du, kale gorrian.

Berak zioen bezala, sistemak ez du behar bezala funtzionatzen, ezta guk ere!

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Mizkina

#### MIREN AMURIZA

[HTTPS://LABUR.EUS/RFO3W](https://labur.eus/rf03w)

Irakaskuntzatik erretiratu zenean hasi ei zen kontalaritzan Xan Errotabehere, halaxe azaldu zuen igandean *Berria*-n argitaratutako elkarrizketan.

Nahiz helduentzako moduko saioak ere eskaini, txikientzat aritzen da batez ere, dioenez, gurean, ipuinak umeentzat direla pentsatzen baitu jendeak.

Nago ez duela arrazoirik falta.

Literatura idatzian, esaterako, geroz eta ugariagoak dira haur zein

helduei zuzenduriko album ilustratuak, ordea, testu gutxi eta irudi asko dituztenez, helduek apenas hartzen dituzten berentzakotzat.

Liburutegi zein denda gehienetan umeen txokoan baino ez egoteak, halaber, urrundu egiten ditu gainontzeko irakurleengandik.

Esango nuke ahozko ipuingintzak ere, testuengatik eurengatik baino, formatuagatik, jasotzeko moduagatik erakartzen dituela hainbeste txikienak eta hain gutxi helduak, kontakizun batean barnatzeak jende askok denbora galtzetat

dituen gauza bi egitea eskatzen baitu: pausatzea eta parekoari arretaz entzutea.

Errotabeherek zioen, Ipar Euskal Herrian, kontalaritzak ez daukala Landetan edo Biarnon daukan estatusik, ezta gurean bertsolaritzak duenik ere; publikoak beren jarduna errespetatu ere ez ei du egiten sarritan, helduentzako saioak programatzen dituztenean batik bat.

Literaturzalea mizkina zer den; errazago probatuko luke sugandila buztan bat jatetxe tailandiarrean, liburutegian ipuin bat baino.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.

**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.  
**Erredaktore burua**  
Ubane Madera.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Ubane Madera,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.  
**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Marta Leturia.

**Sailletako arduradunak**  
Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber  
Aranburuzabala (Kultura).

**Maketazioa**

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

**Publizitatea**

Amala Mundiñano,  
Ziortza Martin,  
Imanol Elortza, Jokin  
Uribeetxeberria.

**Administrazioa**

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

**PUBLIZITATEA**

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 00  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)

**EGOITZA NAGUSIA**

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 19.000 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA**

## PROTAGONISTA

# "Futbolak eman didan onena lagunak dira; asko eta onak"

ANDER RUIZ DE AZUA MONDRAKO JOKALARIA ETA KAPITAINA

**Mireia Bikuña** ARRASATE

Ander Ruiz de Azua 12 urterekin hasi zen futbole. Egun, 35 ditu eta bere ibilbidea bukatutzat eman du, Ohorezko Erregional mailan, Beti Gazteren kontra. Ostein, Mojategiko harmailetan egongo da taldea animatzen eta infantil txiki mailako taldea entrenatzen.

**Azken partidua jokatu duzu zapatuan. Kosta egin zaizu erabakia hartzea?**

Badira lau bat urte futbola uzteko aukera buruan izan dudala. Liga oso nekatuta bukatzen nuen. Erreta. Baina, uztailean, gogotsu egoten nintzen berriro, eta jokatzeko gogoarekin. Oraingoan, ez. Gazteei utzi behar zaie lekua. Taldea osasuntsu dago. Ni barik, aurrera egiteko gertu. **Egungo taldean, jokalaria beteranoena zara.** Bai [Barre]. Nire belaunaldikoek apurka-apurka utzi zuten taldea, eta gazteekin trantsizioa egitea egokitu zitzaidan.



Ander Ruiz de Azua, Mondraren kamisetarekin. JUAN LUIS ELIZARAN

**23 urtek askorako ematen dute. Une gaziak eta gozoak. Zer eman dizu Mondrak?**

Lagunak. Bereziki, lagunak. Asko eta oso onak. Nire kuadrillaz gain, futbolekoa ere badaukat. Lagunak dira,

maila honetan, futbolak eman diezazukeen onena. Futbola utzi behar nuela zabaldu zenean, kirol honek emandako lagun guztien mezuak jaso nituen. Omenaldia ere ederra izan zen, eta ezustekoa.

**Gozotik asko, baina une gaziak ere egongo ziren.**

Maila galdu genueneko unea izan da gogorrena. Bi urtetan kili-kolo ibili ginen. Sufritzen, maila galdu arte. Une zaila izan zen, baina, oraingo egoera ikusita, klubari mesede egin ziola esango nuke. Zuzendaritza aldatu, jokalarien artean aldaketak, filosofia berria... Eta, begira orain. Ohorezko Erregionalera itzuli eta denboraldi borobila egin dugu.

**Hiru urtetan Bergaran jokatu zenuen. Nolakoak dira hango oroitzapenak?**

Oso onak. Han ere lagun asko egin nituen.

**Mondran eta Bergaran, beti, atezain postuan. Laudorio gutxi jasotzen dituzue atezainak.**

Atezainen akatsak oso nabarmenak dira askotan. Bereziki, gola jasotzen duenean. Kritikak oso erraz botatzen dira egun. Edonork eta edonola, eta horiek onartzea zaila izaten da batzuetan. 18 urte nituenean gogorrak ziren kritikak. **Futbol zelaitik, Mojategiko harmailetara?**

Zale moduan joango naiz taldea animatzera. Bestalde, Isei Barberorekin batera, infantil txiki mailako taldearekin dihardut lanean. Alor horretan ere gustura.

## HAU BE BADOGU!

**Guns n' Roses taldearen kontzertuak, ikusmina**



Debagoienetik ere jende ugari joan zen Bilbora, martitzenean, AEBetako taldearen kontzertua jarraitzera, eta #gunsnroses traola *trending topic* izan zen euskal txiolarien artean ere. Arrasatetik bi autobus bete zituzten, eta beste herri batzuetatik ere animatu ziren musikazaleak. Besteak beste, betiko klasikoak jo zituzten, entzuleen gozamenarako.

**Galdu arren, Alaveseko zaleak harro**



#Alaves, #BetiAlaves edota #GoazenGlorioso bezalako traolak *trending topic* izan ziren, nahiz eta Bartzelonak 3-1 irabazi Errege Kopako finala. Debagoienetik ere, babesa izan zuen talde babazorroak Madrilen, eta baita sare sozialetan:

@oihanvega: "Alaves ahaztezina! Ametsa egi bilakatuta. Glorioso izan zena: Afizioa!!! Gora zuek! #GoazenGlorioso".

**'#Altsasu' traola, berriz ere erabiliaren artean**

Azken hilabeteetan behin eta berriro azaldu da sare sozialetan Altsasuko gazteen auzia. Asteon ere, *trending topic* izan de berriro, euskal txiolarien artean. Izan ere, alde batetik, 80 alkate baino gehiagok, eta, bestetik, komunikabideetako hainbat kidek ere elkarretaratze baten elkartasuna adierazi diete auzipetuen gurasoei, auzia "ez litzatekeelako terrorismo gisa hartu beharko".

## ITURRI ONETIK

## Danborradako zuzendari nagusi berria

Gertuan dira San Juan jaiak. Herriko jai nagusiak dituzte Arrasaten. Eta jai horien baitan, besteak beste, nagusien danborrada da parte-hartzaile zein ikusle gehien erakartzen dituen ekitaldietako bat. Bada, 1999a ezker zuzendari nagusi izan den Nestor Maidaganek -danborradak izan zuen lehen zuzendariaren semeak- utzi egingo du zeregin hori. Haren lekuan Eva Romerok jardungo du, urte luzez danborradan ibilitakoak; besteak beste, Beti Alai konpainia gidatzen.

## GORA ETA BEHERA



## Ospitale-gunean aparkaleku ez horren egokiak

Bi irakurlek adierazi dute Arrasateko ospitale-guneko aparkalekuetako batzuk ez direla egokiak. Batak ospitale ondoko esparrua asfaltatzeko beharra azpimarratu du, zuloak daudelako. Besteak, berriz, anbulatorio aurrean baterian dauden aparkalekuen "arriskua" mahai gaineratu du. "Badira hamar urte arriskutsu direla. Ze behar da Hirigintza Sailak egoera konpontzeko?", galdetu du.







EAJ eta PSE-EE alderdietako zinegotziak, gobernu koalizioaren familia argazkian. XABI GOROSTIDI

## Agintaldiaren bi urteetan konpromisoak betetzen

Teknikoki ekainaren 13an beteko dira bi urte Maria Ubarretxenak Arrasateko alkatetza hartu zuenetik, eta agintaldiaren lehen bi urteek emandakoa positiboki baloratzeko agerraldia egin zuten eguaztenean Udal Gobernuko koalizioako kideek

### Xabi Gorostidi ARRASATE

EAJk eta PSE-EEK osatzen duten gobernu koalizioako kideek, agintaldiaren lehen bi urteetan egindakoak aztertzeke eta geratzen den agintaldirako erronkak iragartzeko, agerraldia egin zuten asteazkenean, Kulturaten.

### Hauteskude garaiko promesak

Maria Ubarretxena alkateak hartu zuen hitza, lehenik eta behin. Udal Gobernuaren lehen-tasun nagusia hauteskunde aurreko garaian arrasatearrekin hartutako konpromisoak betetzea izan dela azaldu zuen.

"Intentsitate eta lan handiko bi urte izan dira, baina esfortuz, ilusioz eta dedikazioz bateriko eguneroko lanari esker, hauteskunde programan jasoak genituen ekimen eta proiektu gehienak martxan jartzea lortu dugu".

Hori frogatzeko, duela bi urte egindako hauteskunde programaren eskuorria jarri zuen mahai gainean, arrasatearrekin hartutako hamar puntuko pro-

grama betetzen ari direla irudikatzeke. Programa horretan, sozioekonomia sustatzea, kultura eta kultur aukera berriak bultzatzea eta "arrasatearren egungo beharrei egokitutako herri bizi, irisgarri eta atsegina eraikitzea" zirela azaldu zuen Ubarretxenak, eta adibide gisa jarri zituen, esate baterako, Kulturola egitasmoa, enplegu edota komertzio plan estrategikoak, mugikortasun plana eta Makatzenako igogailu proiektua, Zaldibarko eta Munarko parkeen berritzeak eta Uarkape pilotalekuan gimnasio berri bat egiteko ekimena ere.

Amaitzeko, etorkizunera begira, "adostasunean, gardentasunean eta elkarlanean oinarri-

**BI ALDERDIETAKO  
ORDEZKARIEK  
ELKARLANERAKO  
IZAN DUTEN GIROA  
NABARMENDU DUTE**

tutako lan egiteko moduari helduz", hartutako konpromisoak betetzeko "gogor" lan egiten jarraituko dutela adierazi zuen.

### 'Ulermenaren koalizioa'

Oscar Garciak hartu zion lekukoa ondoren alkateari. Agintaldiaren tarte honetan bi alderdiek lanerako izan duten jarrera azpimarratu zuen, ulermenaren oinarritutako lan harremanean fokua jarrita: "Beste herri batzuetan, agian, ez da hala izango, baina Arrasateko EAJren eta PSE-EEren arteko koalizioa benetako lantaldea da".

Alderdi Sozialistaren hauteskunde programan hartutako konpromisoak aipatu zituen ondoren. Adibide gisa jarri zituen Makatzenan eta San Josepen egindako esku hartzeak, wifi gune publikoak eta garbiketa zerbitzuaren birmoldaketa, besteak beste. "Orain arte arrasatearrak sentitzen ez ziren auzotarrak arrasatear sentitzen hasi dira".

## Ontzi arinen ginkarga leuntzeko zazpi edukiontzi gehiago

Udalak herritarren inplikazioa eskatu du, guztien ahaleginarekin kaleak txukun mantendu daitezen

### X.G. ARRASATE

Hondakin ginkarga kaleetan agerikoa zela ikusirik, Arrasateko Udalak hondakin bilketaren maiztasuna berraztertzeke eskaera egin zion Mankomunitateari urtarrilean.

"Azkenaldian ohiko bilakatu da Arrasaten herriko hainbat edukiontzi gainezka eta zaborra lurrean pilatuta ikusi behar izatea, bereziki ontzi arinen zaborrontziei dagokienez".

Mankomunitateak, eskaria aintzat hartu ostean, zazpi edukiontzi gehigarri jartzea onartu du, eta jadanik bi jarri dituzte Otalora eta Zerkaosteta kaleetan. Gainontzeko bostak Larragainen, Erguinen, Doctor Bañezen eta Oñati eta Juan Bengoa kaleetan jarriko dituzte. Horrez gain, zapatueta ontzi arinen bilketa gehigarria kontratatzeke aukera aztertzen ari dira.

### Kartoen bilketa desegokia

Kartoen kasuan, merkatari batzuek herritarrentzako jarritako ontziak erabiltzen dituztela sumatu du Udalak, eta eskutitza bidaliko diete merkatariari, bilketa zerbitzuari buruzko informazioa gogorarazteke.

"Hainbat komertzio herriko edukiontziak erabiltzen dituzte kartoia botatzeko, eta horrek, noski, gaindosiak sortzen ditu, edukiontzi kopurua eta bilketa maiztasuna ez baitaude saltokien kartoia jasotzeko dimentsionatuta, herritarren papera eta kartoia soilik biltzeko baizik".

Bestalde, edukiontziatik kanpo zaborra uzteko joera errotuta dagoela uste du Udalak. "Edukiontzian lekua egon arren, herritar askok poltsak lurrean uzten dituzte, eta, ondorioz, atzetik datozenek ere gauza bera egiten dute".

## Udalak eta Ibai-Artek lankidetzak hitzarmena berri dute

Udalak eta Ibai-Artek lankidetzarako akordio berria sinatu dute, herriko merkataritza sustatzeko. 2009a ezkerre egin den moduan, Arrasateko bizilagunak kontzientziatu nahi dituzte herriaren erosteko beharri buruz, eta, horretarako, Ibai-Artek egingo dituen ekintzen %25 finantzatzeko du Udalak, 31.000 euroa heldu arte.

## San Juan jaiak udaletxeko balkoitik jarraitzeko aukera

Haurren eta nagusien danborrada eta errementari dantza leku pribilegiatu horretatik ikusteko zozketa atzo jarri zen martxan. 16 urtetik gorakoek eta Arrasaten erroldatuta daudenek har dezakete parte, udal webgunean edo BAZen izena emanda, ekainaren 10a baino lehen, eta hilaren 14an jakinaraziko dituzte irabazleen izenak.

Sagardo garaia amaituta, erretegi moduan orain.

UDAKO  
MENUAK

Karta.  
Plater konbinatuak gauean.

Iturrieta sagardotegia

Arraga auzoa /Aramaio  
945 445 385 685 721 593  
iturrietasagardotegia.blogspot.com





Giro onik ez da faltako beste urte batez garagardoaren erreinu izango den karpan. IMANOL SORIANO

# Errugbiaren xarmak Herriko Plaza hartuko du

Arrasate Rugby Taldekoen jai handia egingo dute asteburuan, Garagardo Azokaren 19. edizioa izango da. Atzo, pintxo-potean, ireki zituzten karpako ateak, eta, beste behin, alemaniar produktuak dastatuz herriko taldea laguntzeko aukera izango da

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Uda giroa agertzeaz bat, Herriko Plaza garagardoaren erreinu bilakatuko da, beste urte batez. Iaz adingabeko izateari utzi ostean, aurten 19 urte beteko ditu ARTkoen Garagardo Azokak. Azken urteetako erantzun aparta ikusirik, osteguneko pintxo-pote giroa baliatuz zabaldu

zuten karpa atzo, 18:00etan, eta bertaratu zirenek garagardo eta patatak dastatu zituzten euro baten truke.

18:30ean, aldiz, herri kirolen erakustaldia egin zuten, sokatirarekin, zaku lasterketarekin, txingekin eta artaburuaren bilketarekin. Parte hartzaileen artean hainbat sari banatu zituzten,

eta talde irabazleko partaideek debaldeko afaria izan zuten.

Halere, eta urtero legez, karparen irekiera ofiziala Arrasateko Udaleko ordezkari politikoen afariarekin egin zuten. Arrasate Rugby Taldeko kideekin eta ekimenaren babesleekin batera, zinegotziek Herriko Plazako karpan afaldu zuten.

## "60 pertsona arituko gara karpan lanean"

**JOSEBA MAIDAGAN**  
ART

Astean zehar lana izan du karpako prestakuntzak egiten. **Aurten karparen muntaia batukadakoekin egin dizuete?** Lan hori ez dugu guk egiten, karpa kudeatzen duen enpresak egiten du. Gogoan dut lehen garagardo azoka egitean guk egin genuela lan hori, eta argi ikusi genuen lan gehiegi zela guretzako. **Zenbat pertsona egongo zarete lanean?**



GOIENA

Ba, 60 lagun bueletan arituko gara, lan ezberdinak eginez. **Edari eta janari kopurua nahikoa izango al da?** Beti eskatzen dugu pixka bat gorantz, baina datorren jende kopurua eguraldiaren arabera izaten da, eta ez dago iragarpen oso onik. **Azoka klabea da taldea finantzatzeko, ezta?** Urteko aurrekontuaren zati handiena ateratzen dugu, eta jendeak beti erantzuten du.

### Kopuru ikusgarriak

Aurtengo azokan jatekorik eta edatekorik falta ez dadin, ARTkoek etxeko-lanak egin dituzte aurretik. Horretarako, iaz bezala, bost marka ezberdinetako 2.190 litro garagardo eskatu dituzte, eta pitxarrak 4,5 eurotan erosi ahalko dira.

Jatekoari dagokionez, 2.700 opil, 375 oilasko, 720 txerri-ukondo eta 140 lata saltxitxa eskatu dituzte, karpara gerturatzen direnak goseak ez geratzeko. Beraz, ez zaie lanik faltako tal-

de zuri-moreko jokalaria eta ordezkari, eskatutako janari eta edari guztia zerbitzatzeko orduan.

### Bihar eguerdian zabalik

Zapatua izango da egun potoloa, bihar ospatuko baita XIX. zazpiko txapelketa (ikus 38. orria).

Asteburuko kirol ekitaldi nagusiarekin bat eginez, karpa zabalik egongo da, bertan bazkaldu nahi dutenentzat.

Azokari bultzadaxoa emateko, ikus-entzunezkoa egin dute aurreko edizioetako argazkiekin.

## Harreman GKEren Elkartasun Eguna Indiarantz begira

Biharko, zapatua, ekintza ugari antolatu dituzte, Indiako Ankur hirian duten proiektua ezagutarazteko

**X.G.** ARRASATE

Hemeretzigarren aldiz antolatuta dute Harreman GKEkoek Elkartasun Eguna, behartsuenek sufritzen dituzten egoerak arrasatearrei helarazteko asmoz. Aurtengo ekitaldirako, GKE hauen laguntza izan dute: Sersi, AMS, Mundukide, Elkar Hezitzen, Pastoral de Inmigrantes eta Mugarik Gabeko Medikua.

### Egitarau zabala

Aurtengo Elkartasun Egunak denetarik izango du: antzerkia,

zuzeneko musika, bidezko merkataritzako produktuen salmenta, txokolate-jana, baita tonbola ere. Azken hori Ibai-Arte elkarteok emandako produktuei esker egiten da urtero, eta Harremanekoek eskertu egiten dute herriko dendariak eskaintzen dieten laguntza.

### Ankur jomugan

Egunean batzen den dirua Mumbai dagoen Ankur umezurtegian dauden 200 neskontzat bidaratuko da.

## Elkartasun Eguna 2017

Hemen, Harremanekoek prestatutako egitaraua.

- **11:00** Puzgarriak.
- **12:00** Trikitilariak.
- **13:00** Arrasate Musikaleko banda gazte eta haize-egur taldeen emanaldia.
- **16:30** Puzgarriak.
- **17:30** Mugi gaitetzen disko festa
- **19:00** Txokolate-jana bidezko merkataritzako produktuekin
- **19:30** Maria & Manex taldearen emanaldia
- **20:30** Eroski bidaiak sariaren zozketa

## Herri Eskolako jaiaren erdigune bilakatuko da gaur Biteri

Guraso elkarteak antolatuta, bertso saioa, argazki erraldoia eta tailerrak izango dira, besteak beste

**X.G.** ARRASATE

Arrasate Herri Eskolako ikasleek urte amaierako jaialdia egingo dute gaur. 14:30ean jolasak egingo dituzte Bedoñaben eta San Antolinen; eta Erguinen, aldiz, sokatira, zaku lasterketa, giza probak, lokotx-biltzea eta mota horretako herri kirolak.

Jaiak jarraipena izango du arratsaldean, eta Guraso Elkarteak hainbat ekintza prestatu ditu hurrek eta gurasoek primeran pasa dezaten. Hasteko, 16:30ean, 4 eta 5 urteko eta Lehen Hezkuntzako ikasleak Biterin

batuko dira. Jarraian, Lehen Hezkuntzako ikasleek bertso saioa egingo dute, eta, horren ostean, argazki erraldoia egingo dute. Aurten ere Artgazki taldekoek egingo dute Herri Eskola osatzen dutenen familia argazkia.

Gero, mandalak, maskarak eta aurregiak margotzeko tailerrak izango dira, eta, horrez gain, berbenatxoa, puzgarriak eta gurasoentzako barratxoa ez dira faltako; amaieran, aurretik eta egunean bertan saldutako txartelen zozketa egingo da.





Santa Teresa kaleko 15. atarian plakak oraindik jarrita jarraitzen du. XABI GOROSTIDI

# Ikur frankistarik gabeko herria izateko bidean

Eusko Jaurlaritzak 2011n onartu ostean, EAEko ikur frankisten inbentarioa egin zen; tartean, Etxebizitza Sailak atarrietan jarritako plakak daude. Arrasaten lau zenbatu dituzte; hiru jada kendu dituzte eta laugarrena ere kentzeko bidea da

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Euskal Autonomia Erkidegoan zeuden frankismo garaiko armarrari, insignia, plaka edo objektuen katalogoa egitea onartu zuen Eusko Jaurlaritzak 2011ko urtarrilaren 24an. Helburua garbia zen: 1936ko altxamendu militarren, gerra zibilaren eta diktaduraren errepresioaren gogorpen pertsonal edo kolektiboak desagertzea. Diktamen horretan aipatzen den katalogoan, etxebizitza plaka deritzonak sartzen dira, oraindik etxebizitza askotan jarrita jarraitzen dutenak.

Erregimen frankistako gobernuak Etxebizitza Saila sortu zuen, eta hainbat eraikin egin zituen. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, batez ere, Gipuzkoan eta Bilboko itsasadarrean egin zituzten.

Eraikin horietan etxebizitza institutuaren plaka jartzea derrigorrezkoa zen. Plaka horietan *Instituto Nacional de la Vivienda*-ren armarraria ikusten da, fa-

langearen sinboloaren oso antzerakoa dena, eta horrek daukan sinbologia dela-eta Eusko Jaurlaritzak horiek kentzea gomendatzen du.

## Herritar baten eskaera

Arrasate Udalak herritar baten eskaera jaso zuen, plaka horiek kentzeko eskatuz. "Hori jasota, zer egin genezakeen aztertzen hasi ginen, eta ikusi genuen Eusko Jaurlaritzak era horietako plakak kentzeko ekimena martxan jarrita zeukala. Beraz, hori baliautuz, etxebizitzaren arduradunekin jarri ginen kontaktuan", azaldu du Udala Gobernuak.

Arduradunei helarazitako oharrean, ez dituzte plakak kentze-

**KATALOGOKO LAU ATARIEZ GAIN, BESTE BAT ERE BADAGO SANTA MARINA KALEKO 19.AN**

ra behartzen; horiek kentzea gomendatzen diete, eta udal langileen laguntza eskaintzen diete zeregin horretarako.

## Arrasaten lau

Katalogoaren arabera, Arrasaten lau etxebizitzatan geratzen ziren plakak horiek: Santa Teresako 13.ean, Elkano kaleko 13.ean eta Errebuelta kaleko 4. eta 6. atarrietan. Errebuelta kaleko bi atarrietan joan den astean kendu zituzten, eta ostean, plakak BAZera eraman zituzten, Udalak pieza historiko gisa biltegitzeko. Elkano kaleko 13.ean, aldiz, martitzen arratsaldean kendu zuten.

Santa Teresa kaleko 13. atarian ez dago plakarik, baina alboan dagoen 15.ean bai. Bertako arduradunak jakinarazi duenez, plaka kentzearen alde dago, eta laster proposatuko die bizilagunei hori kentzeko aukera. Nahiz eta katalogoko zerrendan ez egon, Santa Teresako 19. zenbakian ere plaka jarrita dago.



NIRE USTEZ

ENERITZ URRUTIA

## Beldurrak amets

Beldurra, guztiok noizbait sentitu dugun sentimendu bat da. Zerbait egiteko beldurra, erabakitze beldurra, gaixotzeko beldurra, aldaketarako beldurra...

Bizitzako hainbat momentutan topo egiten dugu berarekin; Zer egin? Nola kudeatu? Zergatik niri? Galdera guzti hauek etortzen zaizkit burura momentu horietan. Galdezka, erantzun bila, buruari bueltaka, baina inoiz erantzunik aurkitu gabe. Agian sentitu beharreko zerbait da, bai, izan daiteke. Pasako da, aurre egin, eta hobeto edo okerrago baina aurrera egingo dugu.

Eta zergatik diodan "beldurrak amets"? Beldurrak bezala ametsak ere guztion bizitzetan presente egoten dira. Batzuetan borrokatu eta hauek lortzeko ahalegina egiten dugu eta bestetan gertatuko denaren beldurrez atzean gelditzen gara. Egoera zailak izaten dira hauek, baina egoera horiek beti eskainiko digute zerbait ikasteko, negatiboak edo positiboak izanda ere. Entzun, galdetu, pentsatu, sentitu ... nahi duzuna lortzeko lana, esfortzua, sufrimendua, ahalegina beharko duzu baina beldurra sentitu arren baztertu eta amestu!

## Auto klasikoaren bigarren topaketa datorren domekan

Goiena Classic Clubeko kideek lehendabizikoz antolatu zuten iaz auto klasikoaren topaketa, Zigorrolan, eta, izandako harre- ra ona ikusita, aurten bigarrenaz antolatu dute, tradizio bilakatzeko bidea egin dezan.

## Ez aspertzeko moduko egitaraua

25 urtetik gorako ibilgailuen xarma erakustez gain, motor ibilaldiak, haurrentzako kart-ak, postuak, zozketak eta DJak izango dira. 09:00etan hasiko dira ibilgailuak Eroski alboko berdegunera gerturatzen, eta eta goiz osoan zehar izango dira ikusgai. Ekitaldia iragartzeko ikus-entzunezkoa egin dute, Metalicaren doinuekin.

## Kantinerek laster izango dituzte entseguak

Danborradan arituko diren kantinerek zehaztuta dituzte jada entsegu egunak.

Bi egingo dituzte, biak zapa-tuetan: ekainaren 10ean lehena eta 17an bigarrena. 11:00etan, Zerrajerako erlojuaren eraikinean dagoen Txikitxu-Arrostaitz dantza taldearen lokalean batuko dira, danborrada egunean guztia ondo irten dadin.

## Trikitixa Eskolako matrikulazio epea zabalik dago

Datorren ikasturtean trikitixa jotzen ikasi nahi dutenek zabalik dute Arrasateko Trikitixa Eskolako matrikulazioa epea.

Horretarako, bi bide daude: lehena, Nafarroa etorbideko erlojuaren eraikineko egoitzara gerturatzea; eta bigarrena, [arrasatetrikitixaeskola@gmail.com](mailto:arrasatetrikitixaeskola@gmail.com) helbidera idaztea.

## Getarian lan txukuna

Domekan jokatu zen trikitilari gazteen XVIII. txapelketa. Arrasateko Ekiñe Casado eta Maite Lizundia bikoteak lehen aldiz parte hartu zuen, eta hirugarren postua poltsikoratzea lortu zuten; txapelketen sasoi modu dotorean hasi dute.

## Bilbora joateko txartelak lortzeko mahaia zehaztuta

Gure Esku Dagok ekainaren 10ean Bilbon antolatu duen *Era-bakitxera goaz* ekitaldira joateko hainbat mahai jarriko dira Arrasaten astean zehar.

Astelehenean domekara Portaloian jarriko dute, 19:00etan, egunean izan ezik, egun horretan mahaia Arbolapetan jarriko baitute. Eguraldi txarra eginez gero, Uarkapen jarriko dituzte.

# Taldetik pasa diren guztien omenezkoa

Mondrako neskek Gipuzkoako Kopa irabazi zuten joan den zapatuan Beasainen, penaltien txandan bost jaurtiketak asmatu eta gero: "Zortea behar da, baina iaz penaltietan kanporatu gintuzten, eta aurten bereziki prestatu ditugu"

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Urnieta kontrako finalean 2-2 egin eta gero penaltietan erabaki zuten nor izan behar zen Gipuzkoako Kopa txapel-duna. Epaileak norgehiagokaren amaiera adierazi eta penaltien txanda adierazi zue-nean, Mondrako ordezkari eta zaleek arnasa hartu zuten, ordurako Beasaingo Igartza berdegunean sufritzen ari zirelako. Mondrako Ezpeleta atezaina min hartuta erretiratu behar izan zen, fisikoki ere denak onenak emanda zeuden, eta Urnieta azken minutu horietan estutzen zebilen.

Lehenago txukun ibili ziren zuri-moreak. 1-0ekoa Urnieta atzelari batek egin zuen bere atean, erdiraketa bat txarto urrunduan ostean. Eta, 2-0ekoa Raquel Modinok egin zuen, eskuinaldetik ateratako falta bat buruz bikain saretara bidali eta gero (2-0); bazirudien zailena eginda zegoela.

Urnieta, baina, partidua berdintzeko gauza izan zen, eta halaxe iritsi ziren penaltietara: "Penaltietan zortea behar da, baina jaurtiketak zelan egin ere entrenatu egiten da. Iaz Kopako final-laurdenetan penaltien txanda kanporatu gintuzten, eta aurten Kopan aurrera egiten genbiltzan neurrian penaltiak entseatzeko hasi ginen", adierazi du Andoni Ezkurra entrenatzaileak.

Bada, penaltietan arrasatearrak ez zuten hutsik egin, bost jaurtiketak sarera bidali zituzten, eta Urnieta lau asmatu zituen; zuri-moreak Gipuzkoako txapel-dun ziren eta ospakizunekin hasteko momentua zen.

**"JOKALARIENDAKO DA SARIA, BAITA TALDE HONETATIK URTEETAN PASA DIRENENDAKO"**

**"Jokalari guztien omenez"**

Ezkuurrak garbi du kopa hau zeini eskaini: "Jokariendako oso garrantzitsua izan da lorpen hau urtean pasatako momentu gogorak ahaztu egiten direlako, urte luzea izan da. Baina ez hori bakarrik. Gogoan dut duela lau urte zelan egon ginen Bigarren Mailan jokatzeko, eta ze urte go-



Beasainera joan ziren Mondrako ordezkarien talde erretratua. A.EZKURRA

gorra bizi izan genuen. Bidaia luzeak, kontrario gogorak, kirol emaitzek ez zuten lagundu... Orduko jokalariek batzuk taldean daude, eta merezi zuten halako

lorpen bat. Eta ez eurek bakarrik, motibo batengatik ala bestearengatik futbola utzi behar izan dutenei ere eskaintzen diegu kopa hau".

## Zaldibarko kanporaketan ezustekoak izan dira

Zapatu goizean jokatu dituzte finalerdiak Legends, Elorra, Jibaros eta Betrayers taldeek, 11:30ean hasita

**X.U** ARRASATE

Joan den astean jokatuak final-laurdenetan ezustekoak izan ziren, eta ligan orain arte lider egon diren Aldatz eta Altza Porru kanpoan geratu dira Betrayers (2-4) eta Elorraren (5-2) kontra galdu eta gero. Urtean zehar bikain ibili eta gero, fase erabakigarrian kanpoan geratu dira. Bestalde, Legendsek eta Jibarosek ere aurrera egin dute, finalerdietan daude, bi taldeek kontrarioei -Lasagabaster eta Africa United- seina gol egin eta gero.

Hala, bihar, zapatua, 11:30ean jokatu duten lehen finalerdian Legends eta Elorra izango dira aurrez aurre, eta 12:30ean Jibarosek eta Betrayers neurtuko dituzte indarrak.

**Lehen faseko partidu berberak**

Hain zuzen ere, bi talde horiek ligako lehen fasean neurtu zituzten indarrak, eta, orduan, Betrayers (7-5) eta Legendsek (3-1) irabazi zituzten partiduak. Ikusteko dago bihar zer gertatuko den.

## IRTEERA ARRASATETIK SAN JUAN JAIK ERRESUMA BATUAN EKAINAREN 23TIK 30ERA

**3\*\*\* IZARREKO HOTELAK  
MANTENU OSOAREKIN**

**GIDARIA BIDAIA OSOAN ZEHAR**

**1. EGUNA: ARRASATE-LONDRES**

**2. EGUNA: LONDRES**

**3. EGUNA: LONDRES-BRISTOL**

**4. EGUNA: BRISTOL-LIVERPOOL**

**5. EGUNA: LIVERPOOL-GALES-LIVERPOOL**

**6. EGUNA: LIVERPOOL-YORKSHIRE**

**7. EGUNA: YORKSHIRE-LONDRES**

**8. EGUNA: LONDRES-ARRASATE**

Prezioa logela bikoitzean pertsonako:

**1.675€**

Logela indibidualerako gailuzko:

**336€**

**Halcon** bidarai

Informazio gehiago:

Olarte kalea 14, behe

943 79 29 88

Halconq99@halcon-viajes.es





Parisko Bromure taldekoen argazkia. BROMURE

# Oi! eta hardcore musika entzungai gaztetxean

Bi musika estilo horiek entzuteko aukera paregabea izango da bihar gaztetxean. Bertan, Parisko Bromure taldeak kontzertua eskainiko du eta, horrekin batera, Drop eta Legez Kanpo taldeak ere izango dira; azken horrek bihar egingo du debuta

**Ane Vitoria** ARRASATE  
Biharko kontzertuan hiru talde taularatuko dira: Bromure, Drop eta Legez Kanpo, hain zuzen ere. Paristik dator punk-oi! musika jotzen duen Bromure taldea. Frantziako 80ko hamarkadako oi! musikaren eragina dute, baina, horrez gainera, badute beste bereizgarri bat: saxofoiaren pre-

sentzia. Izan ere, ez da oso ohikoa instrumentu hori oi! estiloaren barruan entzutea. Biharko kontzertuan izango den beste talde bat Drop da. Arrasateko eta Aretxabaletako kidez osatuta dagoen talde horrek hardcore musika jotzen du eta ekainaren 10ean, Gasteizen, musika estilo berean famatua den beste

talde batekin batera eskainiko du kontzertua: Hatebreed talde amerikarrarekin, hain zuzen.

**Debuta ere izango da**  
Legez Kanpo talde arrasatearra ere izango da bihar gaztetxean. Hiru kidez osatutako talde hori lehen aldiz igoko da oholtzara, debuta bihar izango baita.

## "Gaztetxean izango gara lagun diren Bromure eta Drop taldeekin"

ARITZ MAURI LEGEZ KANPO TALDEKO ABESLARI ETA BAXU-JOLEA

2016an sortutako taldea da Legez Kanpo, oi! eta 80ko hamarkadako hardcorean oinarrituta dagoena. Arrasateko talde hori hiru kidez osatzen dute: Sid (baxu-jole eta ahotsa), Harri (gitarra-jole eta ahotsa) eta Nebadok (bateria). Biharko kontzertua prestatzen ibili dira taldekideak, eta, orain dela gutxi, euren Facebookeko kontuan *Ez nator bat* abestiaren bideoa argitaratu dute.

### Biharkoa zuen lehenengo kontzertua da, ezta?

Bai; bihar gaztetxean izango gara gure lagun diren Bromure eta Drop taldeko kideekin. Lehenagotik elkar ezagutzen genuen eta hiruror-

artean adostu genuen kontzertua joko genuela. Eta dagoeneko iritsi da eguna.

### Eta zenbat abesti joko dituzue kontzertu horretan?

Zortzi bat abesti inguru eskainiko ditugu. Gehienak guk sortutakoak dira, baina horietatik pare bat beste talde batzuek sortutako abestien bertsioak izango dira.

### Duela ez asko sortutako

### taldea da Legez Kanpo. Baduzue beste talderik?

Bai. Beste bi taldetako kideak gara eta, gainera, Harri Drop taldeko kidea ere bada; beraz, biharko kontzertuan bi taldetan izango da.

### Eta entseguak non egiten dituzue?

Arrasateko gaztetxeko lokal batean egin ditugu orain arteko entsegu guztiak; eta, oraingoz, bertan egiten jarraituko dugu.

### Aurrera begira, beste kontzerturen bat eskainiko duzue?

Bai, hala da. Oraingoz, lotuta daukagun bakarra Berrizen eskainiko duguna da, ekainaren 24an. Horrez gain, uztailan besteren bat jotzea pentsatu dugu, baina oraindik zehazteko dago. Eta, ondoren, irailera begira, gure asmoa kontzertu gehiago eskaintzea da. Hori da, behintzat, gustatuko litzaigukeena, baina ikusiko dugu nola antolatzen garen.



LEGEZ KANPO

## Sambamañaren eskerrak

Arrasateko Sambamaña batukada taldeak eskerrak eman nahi izan dizkie Euskal Herriko V. Batukaden Topaketa ospatzea posible egin duten guztiei: Arrasateko denda, taberna eta enpresa kolaboratzaileei, Trikitixa Eskolari, Erraldoi eta Kilikien Konpartsari, Ttakun Txalaparta Taldeari, Txikitxu-Arrostaitz dantza taldeari eta Arrasateko Udalarari. Horrez gain, joan den topaketan izandako zozketaren saridunen zerbakiak eman dituzte: lehenengoa 722, bigarrena 906 eta hirugarrena 812. Datorren urtekoa, seigarren edizioa, Barakaldon ospatuko da.



GOIENA

## Danborradako kantineren entseguak heltzeke daude

Geroago eta gertuago daude Arrasateko San Juan jaiak. Bada, egun horretan izango diren ekitaldi ezberdinak antolatzen hasi dira eta horietako bat danborrada da. Txikien zein helduen danborradan entseguak hasi dira dagoeneko, eta horiek Arizmendi Ikastolako Gaztelupe gunean egiten dituzte. Txikienak zapatu goizetan biltzen dira eta helduak, berriz, astean zehar. Edozelan ere, Arrasateko danborradako kantineren entseguak egiteke daude. Horiek bi zapatutan izango dira, ekainaren 10ean eta 17an. Goizeko hamaitan bilduko dira Txikitxu-Arrostaitz dantza taldearen lokaletan, Zerrajeran.

## Anger talde arrasatearrak abesti berria kaleratu du

Anger taldea 1997an sortu zen, Musakolan. Geroztik, taldeak sei disko plazaratu ditu, eta, oraingoan, abesti berri batekin dator. *Disko dantzariaren heriotza* da abesti berri hori, eta Tolosako Bonberenearen 20. urteurrena ospatzeko kaleratu den *Aspalditik gatoz, urrutira goaz* bildumarako grabatu dute. Gainera, abestiaren argitalpen horrekin, taldearen beraren 20. urteurrena ospatu gura izan dute. Dagoeneko kanta berri hori sarean dago entzungai, Youtube plataformako helbide honetan: <https://youtu.be/UmwW5f5pYOW>. Abestia entzun nahi duenak helbide horretara jo beharko du.



Eskualdeko ikastetxeek duten eskaintzaren adibide batzuk, ikastetxe bakoitzaren logotipoak lagunduta. GOIENA

# Lanbide Heziketa publikoa Debagoienean

Lanbide Heziketako hiru ikastetxe publiko daude eta formazio aukera zabala eskaintzen dute: Bergarako Miguel Altuna LHII, Oñatiko Zuazola-Larraña BHI eta Aretxabaleta Lanbide Eskola

Debagoieneko zentro bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta, elkarlanean, hirurak elkarren osagarri izanik, Debagoienean Lanbide Heziketa publikoak esparru desberdinetan formazio mapa oso aberatsa osatu du.

## Bergarako Miguel Altuna

Miguel Altuna LHII zentro integratuak lau familia profesional-tako ikasketak eskaintzen ditu, goi mailan zein erdi mailan. Kasu guztietan, ingurune industrialera zuzendutako ikasketak dira: Fabrikazio Mekanikoa; Instalazio Industrialak eta Mantentze Lanak; Elektrizitatea eta Elektronika; eta Administrarritza.

Eskaintza orokorrari, Forja Teknologietako espezializazio programa berezia gehitu behar

zaio, LHko goi mailako titulatu berariazko formazio espezializatua lortzeko aukera eskainita.

## Aretxabaletako Lanbide Eskola

Aretxabaleta Lanbide Eskola zentro integratuak ere lau arlo profesional-tako ikasketak eskaintzen ditu; sektore ezberdinak hartzen ditu kontuan eta eskaintza zabala dauka: Soldadura eta Metal Eraikuntzak; Mekanizazioa; Erizain Laguntzailea eta Menpekoei Zaintza; eta Automozioa.

## Oñatiko Zuazola-Larraña

Oñatiko Zuazola-Larraña BHI hainbat etapatako ikasketak eskaintzen ditu, bi egoitzatan banatuta: Larraña egoitzan, hiru familiatako erdi mailako heziketa zikloak; Mekanizazioa; Mantentze

Lan Elektromekanikoak; eta Natur Ingurunean Gorputz eta Kirol Ekintzen Gidaritza; eta Zuazola egoitzan, DBH, ZIG (Zereginen Ikasketa Gela) eta Batxilergoa.

## DUAL programa

Lanbide Heziketan, gainera, formazio eskaintzari lotuta, ikasle eta enpresek beste hainbat zerbitzu eta aukera dituzte eskuragarri.

Gainera, DUAL programaren bidez, ikasleek euren formazio lanarekin uztartzeko aukera dute; eskolan eskuratutako kompetentziez gain, lantokian formazioa osatzen dute.

## ETHAZI metodologia

Bestalde, hiru ikastetxeak, metodologia etengabe hobetzea

helburu hartuta, erronketan oinarritutako metodologia (ETHAZI) txertatzen ari dira.

Lan munduaren aldaketa teknologikoetara egokitu beharrak ikasleen moldatzeko gaitasuna indartzea eskatzen du. ETHAZI goi eta erdi mailako zikloetan aplikatzen da.

Zer erakusten den bezain garrantzitsua da nola barneratzen diren ezagupenak. Are gehiago, aldaketei aurre egiteko gaitasuna duten neska-mutilak hezi behar dituzte.

Miguel Altuna Institutuan, adibidez, goi mailako ziklo guztietan erabiliko da ETHAZI metodologia 2017-18 ikasturtean. Gauza bera Aretxabaleta Lanbide Eskolan, goi mailako ziklo guztietan erabiliko da ETHAZI metodologia 2017-18 ikasturtean eta erdi mailako zikloetan sartzea aurreikusten da 2018-19 ikasturterako. Eta Zuazola-Larrañan, 2016-17 ikasturte honetan izan dute lehen esperientzia hiru heziketa zikloetan hirugarren ebaluazioan zehar, 2017-18 ikasturtean hedatzeko asmoarekin.

## Berrikuntza teknologia

Aipatzea merezi du, baita ere, berrikuntza teknologikoan egiten ari diren ekintzak. TKgune programaren baitan hainbat proiektu teknologiko garatu dituzte enprekin duten zuzeneko hartuemanari esker, Debagoieneko enpresei beharren arabera zerbitzuak eskainita, euren baliabideak eta irakasleen ezagupenak enpresa txikien eskuragarri ipinita.

Ildo horretan, oso garrantzitsua da kanpora begiratzea, eskoletatik harago dagoen ezagupena identifikatu eta bereganatzea, kolaborazio sareetan parte hartuz. Horretarako, LHko beste ikastetxe, unibertsitate, berrikuntza

sare, enpresa elkarte, elkarte sektorial, sindikatu, erakunde internazional eta beste hainbat erakunderekin lanean dihardute.

## Lanerako

Bestalde, argi dute gaur egungo gizartean enpresen beharrezanek aldaketa asko jasaten dituztela eta heziketa zikloen edukiek ere aldaketa horietara moldatu behar dutela. Horren harira, ikastetxeotan proiektu ezberdinak eramatean dituzte aurrera Lanbide Heziketa ikerketa eta berrikuntza aplikaturiko zentroarekin (TKNIKA), betiere, berauetan harturiko ezagutzak ikasleak lan mundura hobeto prestatuak irteera helburu izanik.

Aipatutako lan ildo guztiek ikasleei eskaintzen dieten ikasketen kalitatea hobetzea dute helburu; beraien lan munduratzea bermatuko duten ikasketetan ahalik eta etekin handiena ateratzeko modua ziurtatzea. Lanbide Heziketa aukera ona da profil desberdinetako pertsonentzat. Batxilergoa bukatzen dutenek goi mailako zikloak eginda lan aukera zabala dute eskuragarri. Ez hori bakarrik; ikasten jarraitu nahi dutenentzat, unibertsitate joateko prestakuntza oso egokia eskaintzen du Lanbide Heziketak. Bigarren hezikuntzatik erdi mailako zikloetan hasi eta goi mailetarako bidea ere egin daiteke.

Bueltan datozenak ahaztu gabe, langabezian gelditu direlako, unibertsitatetik lan bila edo lanpostuz aldatzeko asmoarekin.

## ERRONKETAN OINARRITUTAKO METODOLOGIA TXERTATZEN ARI DIRA HIRU IKASTETXEAK

# LANBIDE HEZIKETA DEBAGOIENEAN

"etorkizuna zure esku"



**2017-2018 IKASTURTERAKO:**

**AURREMATRIKULA:** Ekainaren 5etik 16ra

**MATRIKULA:** Uztailaren 13tik 19ra.



## BERGARAN:

**Miguel Altuna LHII Bergara**  
Ibargarai 1  
20570 BERGARA  
943 76 24 91 / 943 76 38 40  
imaltuna@saremail.com  
www.imaltuna.com



## OÑATIN:

**IES RM Zuazola -Larraña BHI**  
San Lorenzo z/g  
20560 OÑATI  
943 78 21 50  
013015aa@hezikuntza.net  
www.onati.net

## ARETXABALETAN:

**ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola**  
Etxebarri auzoa z/g - 22 Pk.  
20550 ARETXABALETA  
943 79 79 00 / 943 79 79 43  
ia@iaretxabaleta.com  
www.iaretxabaleta.com



# 100 elkarrizketatik 45,5 egiten dira euskaraz

laz egin zuen azterketa Soziolinguistika Klusterrak eta emaitzen berri eman dute orain. 2001etik 2016ra bitartean hamabost egin dira eta gorabehera gutxi antzeman dituzte horietan; haurrak dira euskaraz gehien egiten dutenak eta adinekoak gutxien

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Euskararen kale erabileraren gaineko azterketa egin zuen iaz Soziolinguistika Klusterrak eta emaitzen berri eman dute orain. Aretxabaletan behatutako elkarrizketen %45,5 izan dira euskaraz, %53,4 gaztekeraz eta %1,2 beste hizkuntza batean.

**1.881 hiztunen 661 elkarrizketa**

Iazko udazkenean egin zuten behaketa, iraila eta urria bitartean. Eta herriko bizitza sozialaren erakusgarri den ohiko bi ibilbide hautatu zituzten: lehenengoa: Bedarreta auzoan hasita Santa Kurtz ondoko pasealekutik Errekabarren kalera eta Loramendi kaletik Belorrieta auzora; baita Markole auzoa eta herri irteerako etxeak ere. Eta bigarrena: Otalora kaleko bidegurutzetik hasita Durana kalean; baita Mitarten eta Herriko Plaza inguruan ere, eta hor ostiral gauz ere behatu zen. Guztira hamasei ordu izan ziren neurketan pasatutakoak eta 1.881 hiztunek egindako 661 elkarrizketa jaso zituzten.

Jasotako datuekin ondorioak atera dituzte orain, hainbat ezaugarri kontuan hartuta. Sexuari dagokionez, emakumezkoen %44,1 izan dira euskaraz jardundakoak eta gizonezkoen

## Datu orokorrak

	%
Orokorra	%45,5
Emakumeak	%44,1
Gizonak	%46,9

ITURRIA: SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

%46,9. Adin taldearen kasuan, ostera, umeak dira euskaraz gehien egiten dutenak (%61,1), ondoren helduak (%45,3), gazteak gero (%40,5) eta gutxien egiten dutenak adinekoak (%19,1).

Elkarrizketak behatzerakoan umeen presentzia ere hartu dute kontuan: umeak bakarrik egonda %57,6 elkarrizketa izan ziren euskaraz; nagusiak bakarrik %33,9, eta umeak eta helduak elkarrekin egonda, %62,4.

**Hamabost urteko bilakaera**

Sei aldiz egin dira kaleko erabileraren neurketak herrian, 2001 eta 2016 bitartean hain zuzen ere: "Hamabost urteko bilakaerari begiratuta, gorabehera txikiak egon badira ere, esanenez %45-46 horretan nahiko egonkor dagoela euskararen erabilera", jakinarazi zuen Asier

Basurtok, Soziolinguistika Klusterreko teknikariak, eta gaineratu zuen: "Adin taldeen artean dago aldea eta interesgarria izango da horren atzean zer dagoen aztertzea eta nola eragin asmatzea".

**"Kezkatuta" egoerarekin**

Aurkezpen ekitaldian EAJko eta EH Bilduko zinegotziak izan ziren baita Kurtzebarri eskolako kideak, Loramendi elkarteak eta beste eragile batzuk ere. "Kezkatuta" azaldu ziren datuok, eta gazteendako erreferentzia beharra aipatu zuten: "Zer pentsatua eman digu gazteen egoerak. Euskalduntze prozesuak ere hausnartu beharra du; izan ere, medioak eta dirua jartzen dira baina gero ez da lortzen helburua", adierazi zuen Ion Albizuk, EH Bilduko zinegotziak. Eta gaineratu zuen telefono bidezko elkarrizketak ere kontuan hartu beharko liriatekeela hurrengo neurketetan "gero eta gehiago" direlako horiek.

Basurtok adierazi zuen euskaraz jardutea sekula baino samurragoa dela uste arren sarritan, ez dela horrela, inondik inora: "Gaztelera da nagusi Interneten, sare sozialetan... Hortaz, orain arte lez giro euskalduna sortzeko lanean jarraitu beharra dago".



**UNAI ELKORO**  
ALKATEA

**"Ez dira emaitza txarrak baina hobeak gura ditugu"**

"Egonkoru egin dela diote emaitzek, baina ez da ikusten hobekuntzarik. Nik neuk azken urteotan beherantz egin duela esango nuke baina neurketak ez dio hori, hortaz, behar bada neu izango naiz errealitateak adierazten duena baino ezkorragoa. Gorputzaldi arraroa utzi digute emaitzok... Ez dira txarrak baina hobeak gurako genituzke.

Hobetzeko zer egin jakinez gero datuak hobeak izango liriateke! Horretarako formula ez du inork. Dena den formula berriren bat behar dugula uste dut, gizartea asko aldatu delako. Garai bateko politikek ezagutza handitzeko balio izan dute eta orain aldatetaren bat beharko litzateke. Zein? Hori bai ez dakidala. Argi eta garbi geratu da lan asko dagoela egiteko".



**IÑIGO IÑURRATEGI**  
LORAMENDIKO PRESIDENTEA

**"Aparteko erronka eta lana daukagu egiteko"**

"Datuok zer pentsatua eta batez ere zer egin ematen digute. Bi ideia: batetik, orain hamarkada batzuetatik hona bilakaera positiboa izan arren, azken urteotan trabatu egin gara, ez aurrera eta ez atzera. Bigarrena, haurren eta gazteen artean 20 puntu jaisten dela erabilera maila. Faktore askok eragin lezake horretan, baina esango nuke erreferentzia garen helduon jokaerak eragiten duela gehien. Guk euskararekiko ardura handiegirik gabe eta utzikeriaz jarduten badugu egunerokoan, normala gazteek ere ez erabiltzea. Zenbait arlotan atzera ere egin dugu, eta euskarak bere eginak zituen espazio batzuetan normaltasun osoz entzuten da erdara. Aparteko erronka eta lana daukagu handia den ezagutza mailatik erabilera maila handiago batera jauzi egiteko".

## Datuak adinaren arabera

	Haurrak	Gazteak	Helduak	Nagusiak
2001	%76,5	%60,6	%39,7	%58,2
2003	%58,1	%58,0	%32,9	%32,6
2004	%58,2	%41,0	%36,4	%40,4
2008	%53,7	%51,7	%38,9	%39,3
2011	%70,8	%36,2	%39,9	%40,9
2016	%61,2	%40,5	%45,3	%19,1

ITURRIA: SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

## Osinbaltzagatik Errotabarriraino ibilaldi gidatua Aitor Antxiarekin

Etzi, domeka, egingo dute, 10:30ean kuarteletik irtenda, eta izena aurrez eman beharra dago, Arkupen

**M.A.** ARETXABALETA

*Aretxabaleta ezagutzen: errota-  
tik errotara* izenarekin, herria beste ikuspegi batetik eta beste kontu batzuen bitartez ezagutzeko aukera eskainiko du Aitor Antxia Leturiak. Domekan, ekai-

naren 4an, izango da ibilaldi gidatua, 10:30ean kuartel zaharretik irtenda; izena aurrez eman beharra dago Arkupeko harreraren, plazak mugatuak direlako.

Deba ibaiari jarraituz egingo dute ibilaldia Aretxabaleteren

mutur batetik bestera; hain zuzen, Osinbaltzagatik -Mondragon Unibertsitatearen fakultatearen atzeko partetik- Errotabari baserriaraino. Eta, bien bitartean, historia kontuetan aditua den Antxiaren azalpenak entzungo dituzte: "Auzuneen atzealdeak ezagutuko ditugu eta haien ezaugarriak nabarmendu. Horrekin batera, errekarren hainbat zatiren izen bereziak aipatu eta San Martingo ermita bera eta garai batean eman zitzaion erabilera aztertuko ditugu", adierazi du Antxiak.



Errotabari baserria. OIHANE AGIRRE

# Urtebete jarduera fisikoa sustatzen herrian

Atxabalta Mugi egitasmoak urtea bete du eta arduradunak pozik daude horren bilakaerarekin; 67 erabiltzaile ditu eta gehienek fin-fin betetzen dituzte aholkuak. Orain, ekainean, jarduera bi jarri dituzte abian horiendako Ibarra kiroldegian

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Jarduera fisikoa sustatzea helburu duen Atxabalta Mugi egitasmoak urtea bete du maiatzean, eta arduradunak "oso pozik" daude orain arte izan duen ibilbidearekin. Egindakoak txalotuta eta jarduera berriak abian jarri- ta egin gura dute aurrera.

"Martxa hartzea kosta egin zitzaigun, baina poliki-poliki bagoaz aurrera", jakinarazi du Iñaki Olaetxea, Atxabalta Mugiren arduradunak. 67 herritar daude izena emanda egitasmoan –gehienak hirugarren adinekoak eta bizitza sedentarioa dutenak–, eta fin-fin dabilta lanean horiek: "Segimenduetara etortzen dira gehienak, baita antolatutako ikastaroetara ere. Baina egia da azken hilabeteotan parte-hartzea zertxobait jaitsi egin dela. Badakigu jarduera sustatzea ez dela batere samurra, norberak egin beharreko zerbait delako". Dena den "pozik" azaldu da halako egitasmoetan dabilta beste batzuekin alderatuz gero "emaitza politak" dabiltzalako lortzen.

**Yoga eta indarra eta oreka**

Egindakoetan geratu barik aurrera jarraitu gura dute eta beste bi jarduera jarri dituzte abian ekainean: "Ibilaldiak egin izan ditugu Eskoriatzara eta Urkullura, eta erorikoen gaineko ikastaroa ere bai, baina eskaintza zabaltzen joan behar dugu derri- gorrean", dio Olaetxea. Hala, yoga saioak egingo dituzte ekai- neko martitzen eta eguenetan (16:00-17:15), eta indarra, oreka eta koordinazioa uztartzen dituen jarduera martitzen eta egubakoit- zetan (16:00-16:45), Ibarra kirol- degian. Biak ala biak prezio be- rezian eskainiko dizkiete Atxa- balta Mugi erabiltzaileei. "Biak probatzea gomendatu diet nor- berarendako egokiena aukera- tzeko gero. Hogeia lagunendako dago lekua bakoitzean eta orain- dik eman daiteke izena".



Iñaki Olaetxea eskumuturrekoen eta jardueren berri ematen. MIRARI ALTUBE

**Eskumuturrekoak**

Jarduera fisikoa kuantifikatzeko eta segimendua egiteko baliabide berria ere aurkeztu zieten eguaz- tenean erabiltzaileei: "Azelerom- metro bat da eta egunean zenbat pauso ematen ditugun neurtuko du, baita distantzia ere. Gauean, ostera, loa zelakoa izan den adie- razten du", jakinarazi du Olae- txeak. Mugikorrera jaitzitateko

aplikazio batekin osatuko dute horren lana: "Asmoa da nik neuk ordenagailutik jarraipena egitea erabiltzaileei; eta horrela gauean egon". Udalarekin elkarlanean, 50 erosi dituzte eta 50 euroko fidantzepean emango dizkiete interesatuei; Durana kaleko bu- legotik pasatu behar da horreta- rako –astelehen goizetan eta eguazten arratsaldeetan–.



**KONTXI ROMANO**  
ERABILTZAILEA

"Laz, martxan jarri orduko eman nuen izena eta oso pozik nabil. Kilo asko ez ditut galdu baina hankendako oso ondo etorri zait jarduera fisikoa egitea. Orain ebakuntza egin didate eta igerilekura etortzea aholkatu dit; hortaz, horretan hasteko asmoa dut. Jende guztiari gomendatuko nioke".



**ANE MIREN RIBERA**  
ERABILTZAILEA

"Denboralditxo bat daramat eta orain, behintzat, ibiltzera joaten naiz; izan ere, lehen jareginda nuen. Oso serio hartu dut eta egun baten ez badut betetzen hurrengoan egiten dut hori. Eta horrek nire osasunean eragina izan du. Taldeko irteera pare batean ere izan naiz; oso gustura, gainera".



**NIRE USTEZ**

**PALOMA MARTINEZ**

## Oparia izan da Dantza Astea

Eskerrik asko Jaiki elkarteak Dantza Astea antolatzeagatik. Aste zoragarria izan zen aurrekoa. Mota askotariko dantzak ikusteko aukera izan genuen aretxabaletarrok: afrikarra, klakea, flamenkoa, hip hopa, swinga, dantza inklusiboa, euskal dantzak, oihal akrobazia, eta ziur baten bat ahazten nabilela. Aldi berean ikasteko aukera ere egon zen. Ni ikusten ibili nintzen eta hain polita, desberdina, hunkigarria... negar gura izan nuen edozein dantza ikustean.

Polita izan zen herrian dauden dantza taldeak kalean dantza egiten ikustea. Desberdina izan zen umeak jolas eta dantzan kalean ikustea. Hunkigarria izan zen bi gizon, bat gurgildun aulkian, dantza inklusiboa egiten ikustea, beraien arteko harremana, konplizitatea eta begiradak ikustea.

Izugarrizko oparia izan zen aste osoa. Jaiki elkarteak egindako lana izugarrizko oparia izan zen. Aldi berean poztu nintzen herriak ere parte hartu zuelako ikuskizunetara gerturatzen, eta ni bezala adi-adi eta harriduraz egon zen dantzak bizitzen. Ea datorren urtean zer nolako astea oparitzen diguten Jaikikoek.



AZ GAUBELAK

## GEDren deia Bilbora joateko

Aretxabaletarrek ere "erabakitze prest" daudela erakutsi zuten joan den zapatuan, galdera ikurra irudikatuta Herriko Plazan. Orain, ekainean 10ean Bilbon egingo den ekitaldira gonbidatu gura dituzte herritarrek. Konpromiso txartelak banatzen dabilta azken asteotan eta autobuserako izen-ematea zabalik daukate: Gurea, Azkena eta Urbaltz tabernetan.

## Abian da Andramaixa jaiak iragartzeko kartel lehiaketa

Kartel lehiaketa deitu du Udalak Andramaixak iragarriko dituen aukeratzeko, eta uztailaren 7a baino lehen bidali behar dira kultur etxera edo udaletxera.

Edonork hartu ahal izango du parte, eta hori egiten erabilitako teknikari ez diote mugarik jarri. Kartelaren neurria DIN-A3 izango da eta formatu digitalean

aurkeztu beharko dira. Honako testu hau izan beharko du derri- gorrean: *Andramaixak 2017; Abuztuaren 13a, 14a, 15a, 16a eta 17a; Aretxabaleta.*

Epaimahaia kultura batzordeko kideek eta herriko hainbat lagunek osatuko dute, eta erabakiaren berri uztailaren 11n jakinarazi. Irabazleak 300 euro jasoko ditu saritzat, eta antola- tzaileek egoki ikusiz gero era- kusketa antolatuko dute aurkez- tutako lan guztiekin.





Antzezlania iaz Santa Ritako lorategian. MIRARI ALTUBE

# Familiartean eta kalean gozatzeko zazpi ekitaldi

'7x7 kultura kalean ekimena' antolatu du Kultura Sailak, laugarrenez, eta, oraingoan ere, herriko taldeen kontzertuak eta kanpotik etorritakoen emanaldiak bateratuko dituzte ekaineko eguaztenetan eta egubakoitzetan, Aretxabaleako hainbat gunetan

## Mirari Altube ARETXABALETA

Kultur ekitaldiak herritarren-gana gerturatzeko asmoarekin, laugarrenez antolatu du Kultura Sailak *7x7 kultura kalean* ekimena. Oraingoan ere, ekainean izango da, eta familiei begira egindako eskaintzarekin osatu dute egitaraua; gainera, herriko taldeen eta kanpokoen emanaldiak uztartuko dituzte. Ekitaldiok eguaztenetan eta egubakoitzetan izango dira, 19:00etan.

## Herriko musikariak

Leizarra musika eskolako bandak emango dio hasiera ekimenari gaur, ekainak 2, Santa Ritako lorategian. Ordu eta erdi inguru iraungo duen kontzertuan, hainbat eratako abestiak eskainiko dituzte. Ez da izango herriko musikariek egingo duten kontzertu bakarra. Hurrengo egubakoitzean, hilaren 9an, konbo taldeek eta gitarra-joleek hartuko dute lekukoa: "Dagoneko maila polita duten herriko musikariak izango dira jende aurrean jardungo dutenak", jakinarazi dute Kultura Saileko ordezkariek.

## Txotxongiloak eta pailazoak

Zirku jokoetan aditua den Xabi Larrea *Mr. Frack* ikuskizunarekin etorriko da martitzenean, ekainaren 7an. Eskujokoak, umorea eta inprobisazioa uztartuta jendearen parte-hartzea eskatuko du ikuskizun dibertigarria eskaintzeko, Iralabarri plazan.

Txotxongiloek ere izango dute lekua, beste behin. Hilaren 14an, *Karolino eta printzesaren bahiketa* eskainiko du eskarmentu handia duen Bihar talde bizkaitarrak. Ekainaren 28an, ostera, Gorka Olazabal ipuin kontalaria etorriko da Santa Ritako lorategira panpina mordoak lagun eginda eta *Itsasoan* ikuskizuna izango dute 3 urtetik gorako umeek.

Pailazoek ere ez dute hutsik egingo eta Korri eta Xalto ezagunek *Show berria prestatzen* eskainiko diete neska-mutikoei; horien laguntzarekin, gainera, kantuan eta dantzan jardungo dute ordubetez. Eta azkenik, *Dantza kasting* emanaldia izango dute gaztetxoek hilaren 21ean; antzerkiak, musikak eta umoreak bat eginda jai giroa sortuko dute Mitarte kalean.

## Egitaraua

### Ekainak 2

- **Bandaren emanaldia** Santa Ritako lorategian.

### Ekainak 7

- **Xabi Larrea: Mr Frack** Iralabarri plazan.

### Ekainak 9

- **Konbo eta gitarra emanaldia** Herriko Plazan.

### Ekainak 14

- **Txotxongiloak** Santa Kurtzeko plazan.

### Ekainak 16

- **Korri eta Xalto pailazoak** Gipuzkoa plazan.

### Ekainak 21

- **Dantzaldia haurrentzat** Mitarte kalean.

### Ekainak 28

- **Gorka ipuin kontalaria** Santa Ritako lorategian.

## Korrikaren lekukoarekin datoz Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Bihar, zapatua, Ibarra kiroldegian eskainiko dute 'Tipi-Tapa, Korrika!' ikuskizuna, 18:00etan

### M.A. ARETXABALETA

Bihar, ekainak 3, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak etorriko dira kiroldegira *Tipi-Tapa, Korrika!* ikuskizunarekin. Sarrrerak aurrez eros daitezke Arkupen (5 euro), baita egunean bertan ere, kiroldegian (6 euro).

Korrika pasatu berri dela, lekukoa eskuan hartuta etorriko dira pailazo ezagunak, eta haren nondik norakoen berri emango dute: eskuz esku zelan pasatzen den, barruan daraman mezu sekretua... "Eman, hartu, jaso, pasa... Badaramagu euskara etorkizunera!", diote, pozik.



Pirritx eta Marimotots. A. ARANBURUZABALA

## Literatura eta ingurumena berbetarako gai Arkupen

Kirmen Uribe idazlea izango da martitzenean eta Pello Zabala egunean, klima aldaketaren gainean jarduteko

### M.A. ARETXABALETA

*Elkarrekin esnatzeko ordua* liburuaren gaineko solasaldia eskainiko du Kirmen Uribe idazleak (Ondarroa, 1970) datorren martitzenean, ekainaren 6an, 19:00etan, Arkupen.

Azaroan argitaratu zuen eleberria Uribek eta "oso pozik" dago izandako harrerarekin. Gerra aurrea, gerra bera eta frankismoa bizi izan zituen belaunaldiaren istorioa jaso du eleberrian, Karmele Urresti eta Txomin Letamendi bikotearen

istorioa, hain zuzen ere. Apirilean ere izan zen Aretxabaletan eta orain berriz dator herritarrekin kontu kontari jarduteko.

### Pello Zabala egunean

Astelehenean, ekainaren 5ean, Ingurumenaren Nazioarteko Eguna dela jakinik, klima aldaketaren gaineko hausnarketa egin nahi izan du Udalak. Eguraldi kontuetan aditu Pello Zabala frantziskotarra etorriko da horretarako egunean, ekainaren 8an, 19:00etan, Arkupera.

## Errekaleorren aldeko argazkia aterako dute gaur Mitarte kalean

*#GukArgiDaukagu* eta *#HerriaBizirik* leloekin Gasteizko Errekaleorren aldeko argazki erraldoia aterako dute gaur, egubakoitza, 20:30ean, Mitarte kaleko eskaileretan. Bihar Gasteizen egingo duten manifestaziora gonbidatu gura dituzte horrela herritarrek; 17:30ean da hori, Andra Mari Zuriaren plazatik irtenda.

## Musika eskolako ikasleen piano emanaldia

Leizarra musika eskolako ikasleek emanaldiekin jarraitzen dute. Datorren astelehenean, hilaren 5ean, piano emanaldia izango da eta ekainaren 12an eta 13an gitarra kontzertuak; Arkupen dira hirurak, 18:00etan.

Hilaren 20an, martitzena, ostera, ikasturte bukaerako jaialdia egingo dute Herriko Plazan, 18:00etan.



lazko ferian, Arbiñosteko bidegurutze ondotik ateratako argazkian, herritarrak postuak ikusten. IMANOL SORIANO

#### Imanol Beloki ESKORIATZA

Txistulariak, dantzariak, baserriko produktu eta elikagaiak, artisautza postuak, taloak, tresneria, umeentzako tailerrak... denetik izango da, aurten ere, Arizmendi Ikastolak antolatutako Eskoriatzako ferian. Duela 21 urte antolatzen da, eta zapatuan izango da; aurtengoa berrikuntzaz beteta dator.

Azpimarragarriena da postuak jartzen dituztenentzat urtero jarri izan diren moduluak ez direla egongo. Honela azaldu du Esti Aguadok, Arizmendiko ordezkariak: "Bi gune nagusi izango dira: bata, Santa Marina plazan, batez ere, elikagaien postuak egongo diren zona izango dena, eta bestea, aldiz, Herriko Plazan, artisauak beraien postuak jarriko dituztena". Bi guneetan izango da karpa, eta, bertako postuez gain, Jose Arana kalean ere izango dira hainbat postu.

Txorimalo lehiaketa, berriz, Santa Marina plazan egin zen iaz, baina, urte askoan egin den moduan, Jose Arana gunearen ondoan, erreka alboan egingo da, eta aurten hogeigarren urtez ospatuko da gaztetxoei zuzenduta dagoen lehiaketa.

#### Sei gazta saltzaile, lehian

Gazta dastatzea eta txapelketa ere izango da aurten, 11:00etan, Santa Marina plazan. Horretarako, ferian izango diren sei gazta-saltzaile lehiatuko dira gazta onena norena den jakite-

# 21. Ferixie, berrikuntzekin

Zapatuan, 21. Eskoriatza Ferixie izango da, eta, egitarauan hainbat aldaketa egin dituzte. Karpa bi jarriko dituzte: Herriko Plazan eta Santa Marinan; batean, elikagaien postuak batuko dira eta bestean, aldiz, artisauena

ko lehiaketan. Hamargarren aldia izango da lehiaketa hau egingo dena. Honekin batera, ohiturari jarraituz, postuak jartzen dituzten nekazari eta artisauen artean sariak banatuko dira. Hau, gazta txapelketarekin

batera, 14:00etan izango da, txartelen zozketarekin bat.

**Euskal dantza tradizionalak**  
Ferian, ohikoak diren euskal dantza tradizionalak ere ez dira faltako zapatuan. Hala ere, pla-

zan egin beharrean, Gorosarrin egingo dituzte, 12:00etan. 6 eta 16 urte arteko 30 dantzari inguruk erakustaldia egingo dute eta herritarrek Eskoriatzako dantza taldearen euskal dantza tradizionalaz gozatzeko aukera izango dute.

#### Bertsoak, balkoitik

Andoni Egaña eta Amets Arzallus bertsolariak ere batuko dira festara. 13:00etan, Arizmendiko Jose Arana guneko balkoira igoko dira, eta bertatik hainbat bertso botako dituzte. Gainera, Oihana eta Haizea Arana bertsolari eskoriatzarrak batuko zaizkie beraiei. "Jose Arana gunean obrak egin genituen, eta eraikinari merezi duen protagonismoa eman nahi diogu; hala, bertsolariak balkoitik botako dituzte bertsoak, eta arantarrak batuko zaizkie. Bestalde, ikas-

## 'Zuk ekarri zuk jan' bazkaria

Azoka eguneko herri bazkaria Joseba Iñurrategi pilotalekuan izan ohi da normalean, baina aurten, beste formatu batean eta beste leku batean egitea pentsatu dute antolatzaileek, berrikuntza gisa. Hala, bazkarirako txartela erosi eta bazkaltzera joan beharrean, nork bere janaria eraman eta jateko aukera izango du Herriko Plazan jarriko den karpan.

15:00etan izango da *Zuk ekarri zuk jan* bazkaria, eta bertara joan nahi duenak mahaia eta aulkiak izango ditu erabilgarri. Hala ere, mahai erreserba egitea gomendatu du ferriako antolakuntza taldeak, eta, horretarako, 618 00 90 74 telefono zenbakira deitu beharko da, zenbat pertsonarendako erreserba egin nahi den adieraziz.

## Ferriak egitarau zabala

- **09:30** Txistulariekin kalejira.
- **10:00** Feriaren hasiera. (baserriko produktu eta elikagaiak, artisautza, tresneria...)
- **10:15** XX. txorimalo lehiaketa.
- **11:00** X. gazta dastatzea eta txapelketa Santa Marina plazan.
- **11:30** Kalejira trikitilariarekin.
- **12:00** Eskoriatzako dantza taldea Gorosarri plazan.
- **13:00** Andoni Egaña eta Amets Arzallus bertsolariak Jose Aranan.
- **14:00** Sari banaketa eta txartelen zozketa.
- **15:00** *Zuk ekarri zuk jan* bazkaria Herriko Plazan.
- **18:00** VI. txapel jaurtiketa txapelketa.

tolako patioan puzgarriak ere izango dira txikitxoentzat...", adierazi du Aguadok.

Berrikuntza nagusia herri bazkariarena da. Urtero frontoian egin izan ohi da, baina edizio honetan *Zuk ekarri zuk jan* formatua erabilia izango da. Izenak dioen moduan, nork bere jana eraman beharko du. Bazkarirako plazan jarriko dituzte mahaia eta aulkiak.

Egunari amaiera emateko, berriz, azken urteotan ferian errotu den txapelketa izango da, plazan: txapel jaurtiketa hain zuzen ere. Aurtengoa seigarren aldia izango da, eta egunean bertan eman beharko da izena, txapelketa hasi aurretik. Eguraldiari dagokionez, iragarpena ez da oso ona, eta, euria egiten badu, hainbat ekintza frontoian egingo dira.

**HERRI BAZKARIA PLAZAN EGINGO DA; AURTEN, NORK BERE JANARIA ERAMAN BEHARKO DU**





Antolatzaileek Ibarraundi museoa egin zuten aurtengo edizioaren berri emateko prentsaurrekoa. IMANOL BELOKI

# Lexargaratera erronka egingo da edizio honetan

Gabez Takarraran-en zazpigarren edizioa ekainaren 10ean izango da. Banakako kirolarien balioak zabaltzea, herrian giroa sortzea eta kanpotarrei Eskoriatza eta bertako mendiak ezagutaraztea helburu ditu gaueko lasterketak

## Imanol Beloki ESKORIATZA

Gabez Takarraran, Eskoriatzako gaueko mendi lasterketa, ekainaren 10ean izango da, eta maiatzaren 4tik aukera dago izena emateko, *kirolprobak* webgunean. Hala ere, ekainaren 9ra arte egongo da aukera izena emateko, eta egunean bertan ere eman ahal izango da, bost euro gehiago ordainduz.

Lasterketa berezia da, Euskal Herrian egiten den lehenengo gaueko lasterketa, ondoren beste hainbat herritara zabaldu dena. Aurten, berrikuntzak ere jarri dituzte, lasterketa hobetze aldera.

## Berrikuntzak

Orain arte eguzki izpiekin kargatzen diren lanparak erabili izen dituzte bidea argiztatzeko, eta aurten, hauez gain, barratxoak ere erabiliko dituzte. Honela azaldu du Iñaki Uribetxeberriak, Gabez Takarraranen antolaketa taldeko kidea: "Lainoarekin korrikalariak ez gal-

tzeko bide argitu behar da, eta aurten, lanpaz gain, barratxo fluoreszenteak erabiliko ditugu, bidean 50 metrora."

## Lexargaratera azkarren

Urtero egin izan da Herriko Plazatik Atxorrotxera zein azkarren igoko apustua; aurten, aldiz, Lexargaratera azkarren zein igo neurtuko da, plazatik bertarako sei kilometroko bidea neurtuz; bideak 700 metroko desnibela du. Herritar azkarrenaren denbora asmatuz gero, urdaiazpikoa jasoko dute opari gisa.

## Urteroko ezaugarriak

23:00etan hasiko da lasterketa, eta 1.200 metroko desnibel po-

**KORRIKALARIAK EZ GALTZEKO, 50 METROAN BEHIN ARGIZTATUTA EGONGO DA BIDEA**

sitiboa eta 1.200 metroko desnibel negatiboa izango du lasterketak. 18 urtetik beherako kategoriakoek bederatzik kilometroko bidea egin beharko dute; 18 urtetik gorakoek, berriz, 23 kilometrokoa, eta betiko ibilbide bera egingo da.

## Korrikalari berrien bila

Urtero, Eskoriatzako zein bailarako aurpegi ezagunak izaten dira lasterketan. Eta bidea ezagutzea gomendatzen du antolakuntza taldeak. Hala ere, lasterketa zabaldu gura dute antolatzaileek, eta inoiz parte hartu ez dutenei ere dei egiten diete parte hartzeko. "Ia edizio guztietan jende berberak hartzen du parte lasterketan, eta aurpegi berriak izatea ere nahiko genuke".

Antolakuntzak parte hartu nahi dutenei lehenbailehen izena emateko dei egin nahi die, prestaketa lanak hobeto egiteko eta azken orduko sorpresarik ez izateko.



Eskoriatzako gaztelekuko argazki irabazlea. ESKORIATZAKO GAZTELEKUA

## 'Instan1ean' lehiaketako irabazleak, Eskoriatzakoak

Gazteleku onenaren saria irabazi dute, 'Sarean harrapaturik' izeneko argazkiarekin

## I.B ESKORIATZA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzak antolatutako *Instan1ean* Instangrameko argazki eta bideo lehiaketan, Eskoriatzako gaztelekuak jaso du gazteleku onenaren saria, *Sarean harrapaturik* izeneko argazkiarekin.

*Instan1ean* hiritartasun digitala nerabeekin lantzeko kanpaina da, gazteengan teknologiaren erabilera sanoa izateko helburua duena. Hala, bailarako gaztelekuak parte hartu dute kanpaina, eta Eskoriatzara joan da sari nagusia.

Martxotik maiatzera bitartean eraman da aurrera kanpaina nerabeen artean teknologia berrien erabilera arduratsua sustatzeko kanpaina, hain zuzen ere. Argazki rallyak, gurasoentzat zuzendutako hitzaldiak, argazkilaritza ikastaroak, nerabeentzako hitzaldiak eta gisa horretako hainbat ekintza antolatu dira egitasmoaren barruan.

## Sari banaketa, Tabakaleran

Ekainaren 10ean, lehiaketaren sari-banaketa festa ospatuko da, 17:00etan; Tabakaleran izango da hori.



TXOMIN MADINA

## Kirol Elkartearen eguna, bikain

Pasa den zapatuan ospatutako Eskoriatzako Kirol Elkartearen eguna arrakastatsua izan da aurten ere. Elkartea kiroldegitik atera eta herrira gerturatzeko asmoarekin antolatutako jaiegunean, bikain aritu ziren elkarteko arduradun, entrenatzaile, jokalarik, guraso eta herritarrak. Hala, hainbat jolas egin zituzten plazan, eta bazkarian, berriz, 200 bat herritar batu ziren.

# Tipologia konstruktibo berritzailea duen parkea

Kuatuena auzoan material sintetiko bako haurrentzako parkea egin berri dute, eta dagoeneko erabilgarri dago. Hainbat jolas eta iturri bat jarri dituzte eremu itxi batean, eta datorren urtera begira jolas eremua handitzea dute helburu

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eskoriatzako Kuatuena auzoan Aste Santuaren bueltan hasi ziren haurrentzako parkea egiten, eta pasa den egubakoitzean amaitu zituzten lanak. Herriatik aldentuta dagoen urbanizazioari bitzta ematea eta bertako bizilagunek egindako eskaera gauzatzea izan du helburu obra horrek, eta dagoeneko erabilgarri dago.

2017ko aurrekontuetan planteatutako obra hori egiteko, Kuatuena auzoko bizilagunekin adostu zuen Udalak bertan zer egin, eta berritzailea egin dute, gainera, osorik egurrezkoa dena, eta material sintetikoak erabili barik, hain zuzen ere.

**Material sintetiko barik**

Bi zatitan banatu dute obra, eta, lehenengo zatia eginda, datorren urtean beste zatiari ekingo diote; hau da, oraingoz, hiru joko eta iturria jarri dituzte Kuatruenako haur parkean, eta datorren urtean beste bi joko jartzea da Udalaren asmoa. "Bizilagunekin adostutako lehenengo zatia egin dugu. Kampan enpresak egin ditu jokoak, eta 17.923 euro kostatu zaigu. Lurra egokitzeaz, berriz, Ramel Eraikuntzak enpresa arduratu da, eta 11.281 euro gastatu ditugu horretan...



Kuatruenako jolas parkea amaituta. I.B

hala ere, azpimarratzekoa da ez dugula material sintetikorik erabili parkea egiteko", adierazi du Josu Ezkurdiak, Hirigintza eta Mugikortasun batzordeburuak.

**Egurak, ziurtagiria**

Haur parkea egurrezkoa da, eta Udalak Kampan enpresari egokitu dio parkea egitea ingurumenarekin konprometituta dagoen enpresa delako, besteak beste. Hain zuzen ere, FSC ziurtagiria dauka (Basogintzako Administrazio Batzordea); hala,

basoak modu egokienean gestionatzen dituzte, ingurumena ahalik eta gutxien kaltetuz.

Horrez gainera, parkearen lurra, gomazkoa beharrez, hartxintzarrez beteta dago, material sintetiko gabekoa, naturalagoa.

**Txakurrik ez**

Txakurrek haur parke barrura sartzea debekatuta izango dute, eta, horretarako, hesia jarri diote parkeari. Hain zuzen ere, txakur kakak parke barruan ager ez daitezten.

## Ekainaren 10ean izango da Luis Ezeiza eskolako jaia

Luis Ezeiza herri eskolaren jaia ekainaren 10ean izango da, eta bi gunetan banatuko da festa: goizean plazan izango dira ekinzak eta arratsaldean eskolako patioan jarraituko du festak. Aurreko astean, aldiz, kultura astea ospatuko dute.

Luis Ezeiza eskolako jaiarako egitarau ederra prestatu dute: batetik, Herriko Plazan, ikuski-

zuna eskainiko dute eskolako gaztetxoek, 11:00etan, eta 13:00etan, berriz, tailerrak izango dituzte: aurpegia margotzea, maskarak, txapak, diru-zorroak egitea, eta abar.

14:00etan bazkaria izango da eskolako patioan, eta arratsaldean, eskolako patioan jarraituko du jaiak. 15:30etik aurrera, puzgarriak, disko edo apar festa eguraldiaren arabera... izango dira, besteak beste. Eguraldi txarra eginez gero, ekintzak frontoian izango dira.

## Trebiñuko Laño kobazulora mendi irteera, domekan

Hezkuntza Foruak antolatuta, 09:30ean Huhezi unibertsitateko aparkalekuan batuta, irteera egingo dute domekan, Trebiñuko Laño kobazulora. Hiru orduko mendi ibilaldia eta 6,76 kilometroko bidea egingo dute bertaratzen direnek. Familia bakoitzak bere autoa eraman beharko du, eta ez dago irteerarako izena eman beharrik.



Eskolako haurrak hondakinen ekarpen gunean. ROBERTO OTAZU

## Eskolako haurrek hondakinen gaineko argibideak jaso dituzte

Hondakinen bereizketa, baserriko eta auzo-konpostaren gestioa nola egiten den... erakutsi diete haurrei

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Maiatzaren lehen astean eman zioten hasiera Leintz Gatzagan Ingurumen Asteari. Hainbat ekintza egin zituzten orduan, baina oraindik beste hainbat hitzordu dituzte egiteko.

Martitzenean, eskolara eraman zuten hondakinen gaia, eta haurrei etxeko hondakinak bereizten erakustez batera, herrian konpostak duen funtzionamenduari nondik norakoak helarazi zizkieten. Honela adierazi du Roberto Otazuk, Zerbitzu eta Hirigintza arloko zinegotziak: "Herrian egiten dugun auzo-kon-

postaren gestioa eta baserrietan egiten dena erakutsi diegu haurrei, eta hondakinak bereiztearen garrantzia ere azpimarratu diegu. Amaitzeko, bertako konpostea poltsatxo batean banatu genien etxeko loreontzi, eta abarretan erabiltzeko."

**Hondakinen karakterizazioa**

Astelehenean emango diote amaiera Ingurumen asteari. Horretarako, ekarpen gunetik hondakin ezberdinetako edukiontzia ateratu eta hondakinen karakterizazioa nolakoa den aztertuko dute.

## Criminal Remains-en 'Walking on the same old road' diskoa, kalean

Jose Ayudarte eta Beñat Agirreurreta gatzagarrek Iregi, Sanchez eta Zugasti aretxabaletarrek batera aterata

**I.B** LEINTZ GATZAGA

Labetik ateratu berri dute Aretxabaletako eta Leintz Gatzagako Criminal Remains taldekoek disko berria, *Walking on the same old road* izenekoa, hain zuzen ere.

Beraien punk-oi! estiloa mantenduz, Basaurin grabatu zuten, Luberrri estudioan, iaz, uztailean; hala ere, aste honetan kaleratu dute diskoa. Honela azaldu du Beñat Agirreurreta gitarra-joleak: "Ja urtebete pasa da diskoa grabatu genuenetik, baina edizio lanak, marrazkiak, kopiak...

direla-eta, aste honetan bukatu dugu. Zortzi kantu ditu gure lan berriak, eta horietako bat, Nealta Fola taldearen bertsio bat da. Diskoaren aurkezpena, berriz, ekainaren 16an Arrasateko gaztetxean egingo dugu...".

Diskoa bailarako hainbat lekutan dago salgai dagoeneko, bost eurotan: Gatzagan, Labidean; Eskoriatzan, Hotelean eta Nairan; Aretxabaletan, Txikin, Haizean eta Kixkorren; Arrasaten, Daten eta Taupan; eta Bergaran, Arrano tabernan, hain zuzen ere.





'Las pelotaris' filmaren irudi bat. DANIEL BURGUI IGUZKIZA

## Emakumeak eta kirola aztergai gaur Zigoitian

XXII. Emakumeen Topaketa egingo dute gaur, egubakoitza, Zigoitian, Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun Sailak antolatuta; 16:30ean hasita, film labur baten proiektzioa, mahai-ingurua eta kirol erakustaldia egongo dira, pilotalekuan

### Eneko Azurmendi ARAMAIO

Kuadrilla osoko belaunaldi ezberdinetako emakumeak biltzea da topaketa horren helburua, Berdintasun teknikari Araitz Palaciosen esanetan. "Bailarako emakumeen sozializazioa eta beraien arteko harremanak bultzatu nahi ditugu, betiere, ikuspegi feministatik begiratuta emakumeen egoera kontuan hartuta", azaldu du.

Orain arte Kultura eta Kirol sailek antolatu izan dute topaketa hau, gizarte laguntzaileen kolaborazioarekin. Aurten, hala ere, Berdintasun Saila dagoela kontuan hartuta, haren esku gelditu da antolakuntza. Hori dela eta, genero ikuspegiari garrantzi handiagoa eman nahi izan zaio, Palaciosen esanetan.

Aurtengo gaia *Emakumeak eta kirola* izango da. "Aurtengo topaketaren bitartez lortu nahi dena da kirol munduan emakumeek daukaten egoeraren berri ematea. Izan ere, oraindik diskriminazio handia dago esta-

mentu desberdinetan. Helburu hori lortzeko, ekintza ezberdinak egingo dira", dio Palaciosek.

### Hiru ekintza

16:30ean hasiko da topaketa. *Las Pelotaris* izeneko film laburra proiektatuko da, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez. "Hemen go jendea bakarrik ez, atzerriko jendea ere etortzera animatu nahi dugu, haiek ere euren burua identifikatuta sentitu dezaten". Emakume pilotarien historia kontatzen du film honek, bai Euskal Herrian, bai Frantzia, baita Amerikan ere.

Ondoren, mahai-inguru bat egingo da, Gorbeialdeko Kuadrillako emakume kirolari ezberdinekin: Conchi Saez de Zai-

**AURTENGO HELBURUA DA KIROL MUNDUAN EMAKUMEEK DUTEN EGOERAREN BERRI EMATEA**

tegi frankismo garaiko frontenis jokalaria –legutiarra–; Izarrako Uluka Rolley Derby talde feministako kideak –talde honek kirola erabiltzen du emakumeen ahalduntzea bideratzeko– eta Arane Uriarte, gaur egun Zuia-ko saskibaloitza entrenatzailea eta bere garaian saskibaloitza jokalaria profesionala izandakoa.

Hori amaitzean, aipatutako talde feministako kideek kirol erakustaldia egingo dute. "Beraiek egiten dutena ez da oso ezaguna, eta hori ezagutarazteko helburua izango du erakustaldia", adierazi du Palaciosek.

Erakustaldiaren ostean, topaketari amaiera emateko, luntxa egingo da.

### Autobusa dohainik

Autobus zerbitzua egingo da Zigoitiara, doan. 15:40etan irtengo da, San Martin eskolatik. Antolakuntzak topaketara gerturatzeko deia zabaldu nahi izan du. "Etor daitezela, ateak zabalik ditugu".



NIRE USTEZ

MAIDER ALDAI

### Ez harrotu

Egunak aztoratuta hasten ditudan aldiro, ez harrotu esango didate gurasoek, lagunek, irakasleek. Barre egin eta farmaziei botako diet errua, anfeta gehiegi sartzearen ezturen kontrako piluletan. Gozoki dendei azukre gehiegi saltzearen haurtzaroan.

Lotsatzen nauzu entzun eta sentipen hori kulturala dela azalduko dizut. Esango dizut iparraldeko herrialdeetako jendea ez dela sentipen hori azaltzeko gai eta *vergüenza ajena* delakoa ezin dela euskarara itzuli. Agian, lotsatzen zaituen horrekin identifikatuta sentitzen zarelako gertatzen zaizula, harrotzen ez zaituen kolektibo baten barruan kokatzen duzulako zure burua.

Eta esango nuke ez harrotu esaten didazula, lotsak bultzatuta baino, agian, zure ezintasunek egotzitako ziurtasun-gabeziak estutu zaituelako. Kasu honetan, ez harrotu hori izango da zure jazarpen tresna. Entzun izan dut umorea egin ei dela eduki bat barneratuta duzunean, eta ez harrotu eguneroko gauza denean, eraginkortasuna galtzen du, zorionez.



AITOR AGIRIANO

### Azken jai arrakastatsua

Aramaioko San Martin eskolako patioan elkartu ziren pasa den zapatuan Leintz Eskola Kiroleko hainbat ikasle. Maila ezberdinetan banatuta, herri kirolak, sokasaltza, petanka eta halako kirol jarduerak burutu zituzten. Ondoren, zumba erakustaldia egon zen, eta, amaitzeko, ikasleen artean hainbat opariaren zozketa egin zuten.

### Santikurtz eguna egingo dute etzi, domeka

Aspaldiko tradizioari eutsiz, Santikurtz eguna egingo dute domekan, Arexola eta Arriola auzoek antolatuta.

12:00etan meza egingo dute Santikurtz ermitan bertan, eta ondoren, salda eta txorixoa jateko aukera egingo da beheko txabolari, trikitilarien musikaz giroturik. Antolatzaileek bertaratzeko dei egin dute.

### Ekainean lau kontzertu hartuko ditu Sastiñak

Ekainean Sastiñan egongo diren kontzertuen egitaraua prest dauka Udalak. 20:00etan izango dira kontzertu guztiak eta gaur izango da lehenengoa, One Day taldearen eskutik. Hurrengo asteetan Mas de lo mismo, Unplugg and roll eta Azkaiter Pelox taldeen emanaldiak izango dira, eguraldi onarekin kanpoan, bestela barruan.



# Arrakastatsuak izan dira Papargorriren zozketak

Garazi Kortabarría, Garazi Kortazar, Idoia Asurmendi eta Angel Mari Lopez de Bergara izan dira Papargorri abesbatzak antolatutako zozketako lau sarituak; argazkietan ikusten denez, Aramaioko produktuekin osaturiko saski bana eraman dute etxera

## Eneko Azurmendi ARAMAIO

Papargorri abesbatzak zozketa bat antolatu du maiatzean, taldeari laguntza ekonomikoa emateko helburuarekin, egubakoitzero ONCEko kupoian irten-dako azken hiru zifrak Aramaioko produktuz osatutako saski batekin sarituz. "Kostatu ere egiten zaigu abesbatza aurrera ateratzea; izan ere, haurrei ez diegu kobratu nahi abesbatzan aritzeagatik, eta horregatik egiten ditugu zozketa hauek. Ez dugu diru askorik lortzen, diru gehiena sarietara bideratzen delako, baina herritarrek animatzen dira eta umeei ilusioa egiten die sarituak egoteak", azaldu du Blanca Mendianduak, abesbatzako lehendakari eta bultzatzaileak.

Hala, maiatzaren 5ean 133 izan zen zerbaki saritua eta saskia Garazi Kortabarriarentzat izan zen; maiatzaren 12an, Garazi Kortazarrek eraman zuen saskia, 702 zerbakiarekin; 19ko zozketan Idoia Asurmendi izan zen sari-

tua, 324 zerbakiarekin, eta, azkenik, pasa den egubakoitzean, Angel Mari Lopez de Bergarak jaso zuen saskia, 441 zerbaki sarituarekin.

## Hamabost urte

Duela hamabost urte sortu zen Papargorri abesbatza Aramaion, eta ordutik herriko abeslarien "harrobi" lana egiten duela esan daiteke. "Ondo ikasi dute abesten eta ikasitakoa oso aberasgarria gertatzen ari zaie orain. Bizi guztirako gelditzen zaie hori eta gure ekintzarik inportanteena hor dago", adierazi du Mendianduak. Izan ere, 7-8 urterekin hasten dira haurrak abesbatzan, baina nerabezaroran, gehienek utzi egiten dute. "Jen-

## DUELA HAMABOST URTE SORTU ZEN ABESBATZA ETA GAUR EGUN 25-30 IKASLE INGURU DITU

de askok abesbatza uzten du, baina zoragarri kantatuz irtetzen dira hemendik. Batzuk rock taldeetara joaten dira, beste batzuk trikiti taldeetara, kantu klasikoari ere heltzen diote beste batzuek... denetarik dago eta oro har, emaitza polita da", azaldu du Mendianduak. Abesbatzatik pasatutako batzuek modu profesionalean dihardutela nabarmendu du lehendakariak.

Gaur egun, 25-30 ikasle inguru ari dira Papargorri, nahiz eta, Mendianduak adierazi duen moduan, nahiko zifra ezegonkorra den hori. Hiru taldetan banatuta daude ikasleak.

## Jaietako emanaldia

Ekainaren 29an, San Martin jaiak hasi baino egun bat lehenago, emanaldia eskainiko du Papargorri abesbatzak, kultura etxean. "Iaz probatu genuen jaiak hasi baino lehenago egitea, lasaiago ibiltzeko. Jendea gustatu egin zitzaion eta aurten ere horrela egingo dugu".



Idoia Asurmendi. PAPARGORRI



A.M. Lopez de Bergara. PAPARGORRI



Garazi Kortabarría bere anaia Aratzekin. PAPARGORRI



Garazi Kortazar, Ibonek, Anjek eta Alaitzek lagunduta. PAPARGORRI



E.A.

## Kruzeta, asfaltatuta

Aramaioko Udalak iaz egin zion eskaera Arabako Foru Aldundiari, Kruzeta gainera doan bidea konpontzeko, eta dagoeneko bukatu dute bigarren zatia ere. Kruzeta gainetik Legutiorako bidea konpontzeaz gain, Ibarra sarihobidean ere egin dira konponketa batzuk.

Era berean, Udalak Foru Aldundiari bere eskaera aintzat hartu eta fase ezberdinetan Aramaioko errepideak konpontzea eskertu nahi izan dio, udalerriko azpiegiturak eta zerbitzuak mantendu eta hobetzeko ahaleginean.

## Gaur da azken eguna kartel lehiaketan parte hartzeko

San Martin jaietako kartel lehiaketan parte hartu nahi duenak gaur 13:00ak baino lehen aurkeztu beharko du bere proposamena udaletxean.

Bi kategoria daude –helduena zein haurrena– eta edonork hartu dezake parte. Pertsona bakoitzak bi lan aurkeztu ahal izango ditu, gehienez, eta proposamen guztiek, originalak izateaz gain, *San Martin Jaiak 2017. Ekainak 30 eta uztaileak 1,2 eta 3* testua eraman beharko dute euren baitan.

Haurren kategorian, irabazlearentzat 60 euro izango dira eta helduen kategorian, berriz, irabazleak 150 euro eramango ditu.

## Mus eta briska txapelketetako finalak, bihar

Maidar Unda omentzeko Kirol Olinpiadak hasi dira dagoeneko. Bihar –zapatua– mus eta briska txapelketetako finalak jokatuko dira Jubilatuen Elkartean, 17:00etan.

Irabazleendako saria hau izango da: herriko jatetxe batean afaria eta ardo botila bana.

Bigarren sailkatzen den bikoteak, berriz, Aramaioko produktuekin osatutako otarre bana irabaziko du.

Esan behar da aurreko aste-buruetan kanporaketak egiten aritu direla herriko auzoetan, maiatzean hasita, eta, ibarrekoetz gain, auzoetako ordezkariak ere egongo dira bihar jokatuko den finalean.





Ezkerretik hasita: Zubeldia, Osa, Lete, Oruesagasti, Muguruza, Igartua, Alberdi eta Larrañaga –txondorraren gainean–. IMANOL BELOKI

## Txondorrak hartu du su, iraganeko kea dariola

Astelehenean piztu ostean, ekainaren 17ko Elosuko jaietan aterako dute ikatza festa giroan; txondorra egiten dakiten auzotarren arabera, hamar tona egur sartu dituzte bi metro eta erdiko txondorra egiteko, eta 1.500 kilo ikatz ateratzea aurreikusten dute

### Jokin Bereziartua BERGARA

Mahai baten bueltan sortutako ideiak hartu du forma, errealtate bihurtu da. Elosuko txondorrari asteen eman diote su eta aurreikuspena da auzoko Otaba jaietan, ekainaren 17ko asteburuan, ateratzea ikatza jai giroan. 60 bat urte badira txondorrik ez zela egiten Elosuan, eta, antzinako lanbideak berreskuratzeko asmoz, Iñigo Zubeldia auzo-alkatearen ekimenari eta auzoko edadetuenen ezagutzari zein ezinbesteko laguntza esker, erronkari heldu diote.



Bertako pago baten egurra erabili dute. I.B.

### Su emanda, hogeit egunez zain

Auzo guztia inplikatu da proiektuan, baina, bereziki, Manuel Oruesagasti, Jabier Osa, Jose Inazio Muguruza, Martin Lete, Julio Igartua eta Patxi Larrañaga izan dira txondorra errealtate bihurtzearen *errudun* nagusiak. "Haiei esker egin dugu, galanta egin dugu. Neurri batean, parke tematiko bihurtu nahi izan dugu. Pago artean gaude, paraje ederrean, eta badu zentzua hemen txondorra eraikitzea", dio Zubeldiak. Txondorrak ikusmina piztu du auzoan, baita au-

zotik kanpo ere. Ez da gutxiagorako. Ofizioa ekinaz ikasi duela dio auzo-alkateak: "Egun ederra izan da gaurkoa [astelehena], su eman diogun eguna. Txondorra lehengo erara egiteak lan galanta dakar, itzela da". Txondorra pizteko egunean jende asko bertaratu zen; orain, auzoko jaiak heldu arte txondorraren ondoan eraiki duten etxolan egongo dira txondorrek pixkanaka su har dezan, ikatza behar den moduan atera dezaten. Izan ere, ekainaren 17ra bitartean txondorrek 24 orduko zaintza beharko du. Txandak ondo zehaztuta egon beharko dira, beraz.

### Haizeteak botatako zuhaitza

"Duela hiru urte, Soralezeko Txurruka jatetxean lagunartean bazkaltzen ari ginela, burua berotzen hasi ginen bata besteari. Lagun batek esan zigun txondorra egiten bagenuen egurra debalde emango zigula... Baina orduan ez ginen animatu", gogoratzen du Manuel Oruesagastik. Iazko errege kabalgataren ostean afaltzen ari zirela, ordea, beste auzotar batek arkumea jarriko zuela adierazi zien: "Esan zigun jarriko zuela arkume bat egite-rakoan eta beste bat [ikatza] ateratzerakoan. Orain jakin dugu arkumeak gertu dituela".

Hori bai, arkumearen pizgarria izanda ere, egurra sendo behar zuten txondorra altxatu ahal izateko... Eta orduan, otsailan, haizete batek auzoko zuhaitzik handiena bota zuen, txondorra eraiki duten lekuan bertan. "Orduan bai animatu ginela txondorra egitera. Barruan hamar tona egur egongo dira, gutxi gorabehera", dio Oruesagastik. Txondorra gertatzen hamazortzi bat egun egin dituzte, asteburuak aprobetxatzen,

bereziki, auzotarren "borondaterik onenarekin".

Edozelan ere, eraikitzen eta su behar den moduan emateko lanean gidari Patxi Larrañaga aritu da, bereziki, hura da-eta "aditua". Larrañagak gogoratzen duenez, 1960ko hamarkadan egin zen azken txondorra Elosuan: "20 bat urte nituenean, gogoan dut baserri batzuek urtean hiru edo lau txondor egiten zituztela". Larrañagaren arabera, lan handia bai, baina txondorra egiteak ez dauka misteriorik: "Lanik txarrena egurra elkartzea izaten zen. Auzolanean egiten zen, harreman ona zuten hiru edo lau baserriren artean. Gero, baserri bakoitzak berea egiten zuen".

### 1.500 kilo ikatz ateratzeko asmoa

Ikatza ona ateratzeko egur ona sartu behar, baina Elosuko pagoekin hori bermatuta dute. Baina zenbat ikatz aterako dute? Honela erantzun du Larrañagak: "1.500 bat kilo irtengo direla uste dugu. Bere garaian txikia egiten genuen guk eta 1.000 kilo ateratzen genituen. Hau handiago da". Bi metro eta erdiko altuera eta 22 metroko zirkunferentzia ditu, hain justu. Larrañaga bera ere badabil zaindari lanetan. "Ezusteakorik ez badago, zaintza-lan handirik ez du eskatzen. Dena ondo badao, ondoan etzan eta lo egitea onena [Barre]".

Txondorgileek dei egin diete herritarrei eta Bergarako ikasleei Elosura igo eta "parke tematikoa" bisita dezaten.

**BI METRO ETA ERDIKO  
ALTUERA ETA 22  
METROKO  
ZIRKUNFERENTZIA  
DAUKA TXONDORRAK**

## TELEIXA BILTEGIAK

**Eraikuntza  
materialak**

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93



Aitor Zabaleta  
Tel.: **606 58 18 10**  
www.txipi.com

**TXIPI**  
**LEIHO ISOLATZAILEAK**

**Amillaga 5, behea - BERGARA**

**UGARTE**  
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

**ARROZTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 76 54 91

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 03 46 30

**BERGARA**



Iturgintza  
Berogintza  
Aire egokitua  
Konponketa  
Salmenta

Arruriaga 11  
686 943 918



# Jaiak antolatzerakoan, adin guztiak irizpide

Herriko futbolariak botatako suziriarekin eta Bitorianatxoren jaitsierarekin, gaur lehertuko dira Pentekosteak, eta, ekainaren 6ra bitartean, ume, gazte zein helduendako ekintzak izango dira; herri bazkarian alkoholik ez ateratzeko erabakiak zeresana eman du

## Jokin Bereziartua BERGARA

Amaitu da atzerako kontua, heldu dira Pentekosteak. Gaur, Bergara Kirol Elkartearen futbol saileko lehen taldeko jokalariek suziria bota eta Bitorianatxo udaletxera jaistean (20:00) egingo du eztanda festak, eta ekainaren 6an Bitorianatxok kontrako bidea egin arte (20:00) ez da aspertzeko astirik izango Bergaran. Izan ere, duela sei bat hilabetetik lanean aritu den jai batzordeak adin guztiei begirako askotariko ekintzak antolatu ditu, 129.000 euroko gastu-aurreikuspenarekin. Bergarar asko eta asko zerura begira egongo dira, eguraldi iragarpenak ez dira-eta onenak. Eurria bada ere, festa girorik ez da faltako.

Egitarauaren lehen protagonistak herriko futbolariak izango dira. "Argi genuen herriko kirolarietarako errekonozimendua egingo geniola. Azken urteetan hainbat kirolari aipagarri izan ditugu Bergaran; Athleticetako jokalaria Vanessa Gimbert, binakako txapeladun izan den Beñat Rezusta pilotaria, eslalom txapelketan bigarren saria eskuratu duen Aritz Bikuña... Uste dut momentua zela herriko kirolarietarako errekonozimendua egiteko", adierazi du jaietako zinegotzi Maite Agirrek.



Bitorianatxoren jaitsierarekin egingo du eztanda festak; irudian, iazko jaitsiera. M.T.

## Irizpidea, adin guztiak asetzeari

Jaiak antolatzeko irizpide nagusia adin guztiendako ekintzak antolatzeko izan da. Eta hor, Agirreraren arabera, hutsune bat ikusten zen, bereziki, gaztetxoendako: "Adibidez, iaz lehen aldiz, egunero jarri ziren umeendako puz-

garriak eta oso ondo funtzionatu zuen. Aurten ere errepikatuko da". Eta adinari dagokionez beste muturrera joanda, San Joxepeko erretiratuendako aurten lehen aldiz toka eta bolo txapelketa antolatu dute, esaterako.

## Alkohola ez ateratzeko erabakia

Bestalde, ekainaren 5eko herri bazkarian Udalak alkoholik ez ateratzeko erabakiak zeresana eman du. Horren adibide da saldatutako txartelen kopurua. Orain arte txartel guztiak -ia 700- ordu erdian saltzen ziren bitartean,

atzoko eguna aintzat hartu gabe -atzokoa zen salmentarako azken eguna, 18:00etatik 21:00etara-, 200 txartel bakarrik zeuden saldua.

Azken urteetako egoerak ez errepikatuz asmoz erabaki du Udalak herri bazkarian alkoholik ez zerbitzatzea, eta, bereziki, gurasoak alkoholaren kontsumoaz hausnartzera gonbidatu ditu. Udalak droga-mendekotasunaren laugarren planaren baitan kokatzen du erabakia, "garrantzi berezia" ematen dio-eta gurasoek euren seme-alaben aurrean duten alkohol kontsumoari: "Haurrek ikusten dutena errepikatzen dute, eta, horregatik, ezinbestekoa da eredu ona ematea eta kontsumo arduratsua zein bizi ohitura osasungarriak bultzatzea". Horrekin batera, gaineratu dute etorkizunearan "heldu arduradunak eta zentzudunak" nahi dituztela Bergaran, eta horrelako pauso txikiek "helmugara" iritsiko direla uste dute.

Jaietako zinegotziak erabakia berretsi du asteon eta beste herri batzuetan ere halako erabakiak hartu direla gogoratu du: "Alkoholaren kontsumo arduratsua bultzatzeko ekintzak antolatu behar ditugu Udaletik. Hainbat saiakera egin dira -adinen arabera bi txartel ateratzea, adibidez-, baina ez zen helburua lortzen. Erakunde moduan zerbait egin behar dugu. Uste dut ohitura aldatzea dela". Bazkaria San Martin plazan dago aurreikusita, baina eurria egiten badu Seminarioko karpan egingo da.



Egitaraua, argazkiak eta bideoak ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.



Balkoia, apainduta. GOIENA

## Balkoiak eta leihoak apaintzeko lehiaketa, ekainaren 12ra arte

Lehiaketan parte hartzeko, Udal Liburutegian -08:30etik 20:30era edo 943 77 91 62- edo [www.bergara.eus](http://www.bergara.eus) webgunean eman daiteke izena; lehiaketaren arauak ere atari horretan daude ikusgai. Sari banaketa uztailearen 5ean egingo da Oxirondoko eguaztenezko azokan; irabazleak 400 euro jasoko ditu herriko dendetan gastatzeko bonutan eta bigarrenak, berriz, 200 euro.

## San Martzial jaietako txosna eta kantina ustiatzeko eskaera

Uztailearen 2rako San Martzialgo zelaiko kantinen eta txosnaren ustiatzeko pleguak onartu ditu Udalak. Hala, irabazi asmorik gabeko herriko elkarte edo talde interesatuek aukera izango dute eskaera aurkezteko, ekainaren 14a baino lehen -12:00ak arte-. Eskaera orriak eta pleguak [www.bergara.eus](http://www.bergara.eus) webgunean jaso daitezke.



## LANERAKO AUKERAK

- Ospitaleko erizain laguntzailea
- Zaharren egoitzetan
- Eguneko zentrotan
- Lehen artapenetako laguntzailea
- Kontsulta pribatuetan
- Hortz-kliniketan laguntzailea
- Gaixoen zaintza



**AURREMATRIKULA**  
Ekainaren 5etik 16ra  
**MATRIKULA EPEA**  
Uztailearen 13tik 19ra

Nekolalde, 16. Urretxu (Gipuzkoa)  
Tel. / Faxa: 943721403 / 943 72 14 13  
[www.jmiparragirre.eus](http://www.jmiparragirre.eus)  
012286aa@hezkontza.net



# Prozedurak eragindako eztabaida osoko bilkuran

Udal aurrekonturako 800.000 euro gehiago izatea eragingo duten kreditu aldaketek eta Mizpirualde egoitza Diputazioaren Kabia organismoan sartzeko estatutu aldaketek debatea eragin zuten gobernuaren eta oposizioaren artean; prozeduran ez datoz bat

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Osoko bilkura beroa eta eztabaidaz jositakoa izan zen maiatzekoa, astelehenean egindakoa. Udal aurrekontuan 800.000 euro gehiago izateko alkatearen dekretu bidez onartutako kreditu aldaketa batzuek eta Mizpirualde egoitza Diputazioaren Kabia organismoan sartzeko beharrezkoak diren estatutuen aldaketek eragin zuten debate gehien gobernuaren eta oposizioaren artean. Bi puntu horietan Udal Gobernuak -EAJ eta PSE-EE- jarraitu duen prozedura eta lan metodologia salatu zuen oposizioak -EH Bildu eta Irabazi-.

Elena Lete alkateak aipatu zuenez, 800.000 euro horiek bideratuko dira, besteak beste, Arrizuriaga jauregirako, Boluko lur-jausiari begira obra bat egiteko oraindik euren etxeetan sartzeko dauden auzotarrak lehenago etxera daitezten eta nekazal-auzoetan zenbait proiektu gauzatzeko, adibidez, ur edan-garria beste era batera hornitzea, hobi septikoak berritzea eta Interneta auzo horietara helaraztea. EH Bilduk eta Irabazik informazio falta kritikatu zuten proiektu horien inguruan.

Bestalde, Mizpirualdeko Fundazioaren estatutuen aldaketa onartzearekin -EAJren, PSE-EE-



Maiatzeko osoko bilkuren une bat. J.B.

ren eta EH Bilduren aldeko botoekin eta Irabaziren abstentzioarekin- Diputazio GIZARTE Politikako Departamentu barruan dagoen Kabia organismoan sartuko da Mizpirualde, elgetarrei eta antzuolarrei ere zerbitzua ematen dien egoitza. Diputazioak ekainean bertan onartuko duen erabakiaren ostean, Kabia izango da Mizpirualdeko kudeaketaren arduraduna. EH Bilduk, alde bozkatu arren, gobernuak "arrapaladun eta ezer kontrastatzeke" egin izana salatu zuen.

**Pintaketak eta zinegotzi berriak** Gainera, azken egunotan herrian agertu diren aldarrikapen ezberdinetako pintaketak salatu zituen alkateak: "Espazio publikoak errespetatzeko eskatzen diegu bergararrei, ezinbesteko neurria da-eta elkarbizitzarako".

Apirileko bilkuran EH Bilduko Iosu Elorzak eta Lauri Askargortak dimisioa aurkeztu zuten, eta astelehenean haien ordezkoek hartu zuten zinegotzi kargua. Aitor Arantzabal eta Ainhoa Lete bergararrak dira EH Bilduko zinegotzi berriak.



El Gallinero auzuneko umeak Bergaran izan dira azken egunotan. ANABEL DOMINGUEZ

## El Gallinero eskulio egoeratik bertako ikasleen berotasunera

Madrilgo txabola auzuneko 32 neska-mutiko etorri dira Mariaren Lagundiko ikasleengana, hirugarren aldiz

**J.B. BERGARA**

Mariaren Lagundia ikastolakoei esker, Madrilgo El Gallinero txabola auzuneko umeak bisitan izan dira. Bi urtean behin etorzen dira, aurten hirugarren aldiz. Denera 6 eta 15 urte arteko 32 neska-mutiko izan dira Bergaran. El Gallinero auzune isolatua da, eta, eskola orduz gain, bertako umeek ez dute besteekin harremanik. Horregatik, bi aldeendako "esperientzia positiboa" izan da bisita.

**Eskulio egoera arintzea**

Gaur arte askotariko ekintzak izan dituzte, gehienak Mariaren Lagundiko ikasleekin batera. *Gure etxea, zuen etxea* leloa aukeratu dute aurtengo bisitarako, eta horrekin lotuta, atzo El Gallinero umeek Mariaren Lagundiko ikasleen etxeetan bazkaldu zuten. Lanbide Heziketa Gizarteratze eta Haur Hez-

kuntza zikloetako ikasleek parte-hartze zuzena izaten dute bisitaren antolaketan. "Lan handia suposatzen du baina ikasleen parte hartze zuzenik barik ez luke zentzurik izango. Batzuetan egoera zailak aurkitu arren, gure ikasleek gustura egiten dute", adierazi du Mariaren Lagundiko Lanbide Heziketako koordinatzaile Susana Apariciok.

Bestalde, San Carlos Borromeo parrokiako boluntarioen esanetan, El Gallinero neska-mutikoentzat esperientzia positiboa da Bergarara etortzea. "Konturartzen dira hemengoek ume moduan tratatzen dituztela. Umeak direlako. Berdin dio ze jatorrikoak diren, lehenik eta behin umeak dira. Hona etortzean, han bizi duten eskulio egoera arintzen dute. Izan ere, guztiz isolatuta bizi dira han". Egun, 40 familia bizi dira Madrilgo El Gallinero auzunean.

Ondo pasau jaixetan!

**LARRAÑAGA**  
A U T O E S K O L A

Masterreka, 10 · BERGARA  
Tel.: 943 76 16 63

Santa Ana 11 · ELGOIBAR  
Tel.: 943 74 10 11



Iturgintza - Berokuntza *Ondo pasau jaixak!*  
**Laskurain**

- Energia berriztagarriak (biomasa, aerotermia, solarra...)
- Kafekzioak (lur-radiantea, radiadoreak...)
- Minusbaliarako adaptazioak
- Altzariak, manparak, osagarriak, iturriak...

Barrenkalea 44 • Tel.: 943 76 24 89

**Sugoi**

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.  
943 76 59 54 BERGARA

# Etxean irabazitakoa defendatzera, Mutrikura

Bergarako bigarren taldeak igoera faseko itzuliko norgehiagoka jokatu du bihar, Mutrikun. Joan den astean Agorrosinen lortutako 1-0ekoak abantaila ematen die mahoneroei. Klubak autobusa antolatu du jokalariek zaleen babesa izan dezaten

## Xabier Urzelai BERGARA

Aitor Elizburuk joan den astean Mutrikuren kontra sartutako golak (1-0) balio galanta du itzuliko norgehiagokara begira (zapatua, 16:30, Mutrikuko San Migel futbol zelaia). Mahoneroek igoera faseko finaleko lehenengo kolpea eman zuten etxean irabazita, baina kanporaketan oraindik edozer gerta daiteke, kostaldekoek ere txukun jardun zutelako Agorrosinen eta orain etxean dutelako hitzordua. Horri aurre egiteko, Bergara KEko ordezkariak autobusa antolatu dute, zaleak Mutrikura joan daitezela animatzera: "Dei egiten diegu gure zaleei Mutrikura hurbil daitezela animatzeko. Bigarren igoera bat posible da, denon artean lortuko dugu!", adierazi du klubak.

Bada, autobusa 15:30ean irten- go da, azokatik, eta ez frontoetik, hasiera batean iragarrita zegoen moduan, jaietan ez delako horretarako aukerarik. Txartelak Depor tabernan eskuratu daitezke ostiralera arte.

## Bigarren igoera eskura

Kirol elkartearendako denboraldi amaiera ederra izango litzateke, Bergarak eskura du eta bi talde nagusiak aldi berean mailaz igotzea.



Bergarako Paul Valgañon, joan den astean. GOIENA

## Mahonero egunerako dena gertu

Ekinaren 9tik 11ra bitartean egingo du Bergara KEak Mahonero Eguna, eta dagoeneko gertu dute egitaraua –bazkarirako txartelak salgai daude Bule eta Depor tabernetan: nagusiek 20 euro, eta gazteek 15 euro–. Egubakoitzean, hilak 9, 19:30ean irekiko dute karpa eta gauean bertan parrillada eta 22:30ean kontzertuak izango dira –Aitor Garitano eta Olatz Muruamendiaraz, eta Bikis & The Pilots–. Zapatu goizerako haurrendako jolasak izango dira, eta zumba eta dantza ikastaroak. 13:00etan triki-poteoa egingo da, eta 14:30ean herri bazkaria, eta ondoren sari banaketa. Arratsaldean eta gau partean musikak hartuko du lekua. Eta domekan (17:00) Emakumezkoen Euskadiko Kopako finalerdia egingo da ikusgai Agorrosinen: RealA-Aurrera Vitoria.

## Aristiren eta Etxaberen podiumei jarraipena ematera

Domekan egingo dute Pentekoste Sariaren 82. edizioa, Bergaran, 126 kilometroko lasterketarekin

## X.U. ARRASATE

Azken urteotan Espoiloiko zuzenean esprinta egin dute Mikel Aristik –2015ean, gaur egun Delko Marseille Provence KTM taldean dabil– eta Jokin Etxabek –2016an, gaur egun Aevolo Racing Team taldean dabil–. Garraipena lortzeko borrokatu ziren, eta ez zuten herriko zaleen aurrean besoak jasotzerik izan. Baina hor egon ziren, lasterketak erabakitzen diren unean.

Domekako lasterketak, berriz, beste protagonista batzuk izango ditu, 100 txirrindulari baino gehiago batuko dira eta irteera puntuan –Lehendakari Txapelketarako puntuagarria da–.

## Asentzio, birritan

Lehenengo kilometroak Bergara, Osintxu eta Zubillaga artean egingo dituzte, eta 89. kilometroan Asentzio igoko dute lehe-



lazo irabazle Xuban Errazkin. GOIENA

nengoz eta 111. kilometroan bigarren. Hortik helmugara 15 kilometro geratuko zaizkie ziklistei, eta ikusteko geratuko da San Antonioko maldara nor iristen den aldapa gora egiten duen errepidean esprinta jotzeko moduan.

## PILOTA Bergara Hiria astelehenean eta 6an profesionalak

Astelehenean jokatu dituzte Bergara Hiriko finalak, (19:30). Promes mailan Alberdi-Aizpuru bikoteak Exposito eta Etxeberria izango ditu aurrean, eta senior mailan Zabalak eta Gorrotxategik Urbietaren eta Etxebarriaren kontra jokatu dute. Hilaren 6an, berriz, Irribarriak eta Rezustak bikotea osatuko dute osterara ere (17:00).

## GOITIBEHERRAK San Martzialgo maldetan lasterketa, etzi

Domekan egingo dute, jaien egitarau barruan, goitibehera lasterketa. Euskal Herriko Inertzia Kirolen egutegiaren barruan Bergarako urteko hirugarren hitzordua izango da, eta aurten goa ere ikusgarri dator, pilotu asko batuko dira eta bertan; asko, etxeokak. Lasterketa 16:30ean hasiko dute, eta hainbat kategoria izango dira.

**BERGARA**  
MARMOLERIA  
PEDRO SALEGI OSA

*Sukalde eta bainu enzimarak*

Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77

**Kabutzia**

ARRANDEGIA

Fraiskoziuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

**disdira**

ile-apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55

**TOKI-ONA**  
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak  
Txixizotzak  
Kazolatxoak  
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA  
Tel.: 943 39 53

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09



# 'Alizia' musikalak badu protagonista nagusia

Alaine Egizabal 13 urteko gazte bergarra izango da 'Alizia' musikaleko pertsonaia nagusia; 24 ikasle aurkeztu dira 'casting'-era, eta, Bergarako Musika Eskolako arabera, "benetan maila altua" izan da hautaprobak: "Probak ez ziren errazak izan"

**Jokin Bereziartua** BERGARA

*Alizia* musikalak badu protagonista, 13 urteko Alaine Egizabal bergarra. Azaroan estreinatuko duten ikuskizunera begira, Bergarako Musika Eskolak *casting*-a antolatu zuen *Alizia* aukeratzeko. 24 ikasle aurkeztu ziren probetara, eta Alaine Egizabal izan da aukeratua. Antolatzaileek asteen eman dute aditzera protagonista nagusia nor izango den.

Egizabal aukeratu badute ere, diotenez, "benetan maila altua" erakutsi zuten ikasle guztiek. "Bikain" aritu zirela diote: "Probak ez ziren errazak izan". Gogora ekarri behar da otsailean



Alaine Egizabal izango da *Alizia* musikaleko protagonista. BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

hasitako *casting*-ean honako hauek osatu zutela epaimahaia: kantu irakasle eta Bergarako Musika Eskolako zuzendari Marije Ugaldek, abesbatzako zuzendari Nagore Sanzek, dantza irakasle Eneko Galdosek, orkestra zuzendari Jose Migel Laskurainek, eszena zuzendari Valen Moñuxek eta gidoiaren eta abestien egokitzapenean parte hartu duen Oihan Vegak.

**Gaztea, baina eskarmentuduna**

Esandako moduan, *Alizia*-ren pertsonaia antzetzuko duen Alaine Egizabalek 13 urte ditu, baina umetatik dago musikara eta ikuskizunaren mundura lotuta. 6 urte zituenetik egin du kantuan, orduan sartu zen-eta hasiberrien taldeko abesbatzan.

Ordutik hona, hainbat ikuskizun txikitan hartu du parte: *Erlauntzaren sekretua*-n eta *Benan eta Begigorri munstroa*-n, esaterako. Gainera, antzerki eta dantza ikastaroak egin ditu aski ezagunak diren aktoreekin; besteak beste, Aitziber Garmendia-ekin, Sara Cozarrekin eta Irene Hernandorekin. Gaur egun, flauta eta hizkuntza musikala

ikasten ari da Musika Eskolan eta gazte bandako eta haurren abesbatzako kide ere bada. Gaztea izan arren, badu eskarmen-tua agertoki gainean, beraz.

**Luis Laskurainen dohaintza**

Bestalde, Luis Laskurain margolari bergararrak koadro bat oparitu die Bergarako Musika Eskolako *Alizia* proiektua laguntzeko helburuarekin. Hala, margolana zozketatu egingo dute antolatzaileek eta dagoneko salgai dituzte zozketa-txartelak, euro batean. Txartel horien salmentari esker, ikuskizuna antolatzeak dakartzan "lehen gastuei" aurre egin ahaliko diete. Laskurain Bergarako Musika Eskolako aspaldiko laguna da; izan ere, *Peter Pan* musikalerako ere beste koadro bat oparitu zien.

*Alizia* musikala ez da Bergarako Musika Eskolak sortzen duen lehena. Aurretik, *Peter-Pan*, *Olentzero & Co* eta *Oliver* ekoiztu dituzte, besteak beste. Gainera, Bilboko Euskalduna jauregia bezalako areto esanguratsuetaraino iritsi dira eskolakoak euren emanaldiekin.

## Bergara Hiria lehiaketako 40 lan Aroztegin, ekainaren 11ra arte

Lehiaketaren 33. ediziora aurkeztutako 157 lanetatik zortzik jaso dute saria, zuri-beltzean zein koloretan

**J.B. BERGARA**

Saridunak honako hauek izan dira: zuri-beltzean, lehen saria Jose Agustin Gurrutxagak irabazi du, bigarrena Jose Miguel Romerok, hirugarrena Manu Barreirok eta herriko saria Jo-

seba Leturiak; koloretan, lehen saria Luis Martinezek, bigarrena Manu Barreirok, hirugarrena Agustin Busselok eta herriko saria Felix Idigorasek. Aurkeztu diren 157 lanetako 40 argazkirekin erakusketa dago Aroztegin.



Zuri-beltzeko saileko argazki irabazlea, Jose Agustin Gurrutxaga bergararrarena: *Bakardadean*. JOSE AGUSTIN GURRUTXAGA



**ZARE**  
FRUTA-DENDA

Irizar Pasealekua 3 - Tel.: 943 76 38 83

**Ondo pasau jaixak!**

## BET, errotuta dagoen jaia

Bergarako Elektronika Topaketaren hirugarren edizioa arrakastatsua izan zen. 17:00etatik 06:00ak arteko jaia bizi izan zuten kartzela zaharrera Bergaratik, bailaratik zein Euskal Herriko hainbat txokotatik joandako elektronika-zaleek; 200 bat sarrera saldu ziren. Hiru areto egokitu zituzten gaztetxean: terrazan, taberna ondoan eta areto nagusian.



BERGARAKO ELEKTRONIKA TOPAKETA



## Lanbide Heziketa 2017-18



- . Mendekotasun Egoeran Dauden Pertsonen Arreta Egiteko Teknikaria
- . Gizarteratzeko Goi Mailako Teknikaria



## Aurrematrikula

## Ekainaren

## 5etik 16ra



1.524.312 Atsegin dut

Espoloia Kalea, 1 - 20570 Bergara (Gipuzkoa)

Tel. 943 76 25 40

[www.mlagundia.net](http://www.mlagundia.net)





# "Sormena beharrezkoa da gizarte honetan"

**IÑAKI MATA** TXOTXONGILOLARIA ETA PANPINAGILEA

Iñaki Mata antzuolarrak bizitza osoa darama txotxongilo eta panpinen munduan, eta orain, Deba ibarrean arlo hori jorratuko duen eskola bat martxan jarri nahian dabil

**Maite Txintxurreta** ANTZUOLA

30 urte daramatza Iñaki Mata antzuolarrak artearen bueltan lanean, eta txotxongilo eta panpinekin aritzearen da bereziki ezaguna. Proiektu berri batekin dihardu orain.

**Txotxongilo eskola baten proiektua duzu esku artean. Zertan datza?**

30 urtez mundu honetan ibili ostean, pentsatu dut ordua dela daukadan informazio hori guztiori konpartitzeko. Hori nola egin pentsatzen aritu naiz, eta baditut ideia batzuk, jendea ere bai, eta esperientzia ere bai. Hortaz, uste dut momentu egokia dela, eta aurrean edo datorren urtean hasi nahiko nuke horrekin.

**Zuk txotxongiloak eta panpinak egin eta bizia ematen diezu. Arlo biak landuko zenituzke eskolan?**

Bai. Eskolaren funtzionamenduan hiru epe zehaztu ditut, bakoitza urtebetekoa. Epe motzera formazio pertsonala landuko nuke, indibiduala, eta arlo horretan, panpinak egiteko teknikak, materialak eta halakoak landuko genituzke; praktikan, horiek nola manipulatu eta panpina norberarena nola egin landuko genuke. Bigarren urtean, berriz, taldeko lana jorratuko genuke: nola egin ikuskizunak talde bezala, nola banatu ardurak... Helburu bat finkatzea eta ikuskizun bat muntatzen saiatzea. Bukatzeko, hirugarren urtean, panpinak elementu pedagogiko moduan nola erabili ikasiko genuke. Mundu honetan ate ezberdin asko daude, eta guztiak irekitzea posible da. **Sormenak garrantzi handia du proiektu honetan.**

Bai, noski, behar-beharrezkoa da. Nik uste dut artistok badugula zer kontatua, sarri gauzak beste ikuspuntu batetik ikusten ditugu-eta, eta horrek sormenarekin zerikusi zuzena dauka. Gizarte kaotiko honetan sormen hori beharrezkoa da, ideia be-



Iñaki Mata, proiektuaren txostena eskuan duela. M.T.

## "30 URTEZ PANPINEN MUNDUAN IBILI OSTEAN, ORDUA DA IKASI DUDANA KONPARTITZEKO"

rriak sortzeko. Edozein arte diziplinak balio du egoera berriei erantzun berriak emateko.

**Nori zuzenduta egongo litzateke eskola hau?**

Hasiera batean, 15-16 urtetik gorakoentzat pentsatu dut, baina ez ditut ateak ixten. Baina hasiera batean, hein batean, Arrasaten edo Eibarren arte batxilergoa egiten dihardute-nengan pentsatu dut.

**Inguruan bada halakorik martxan eredu izan daitekeenik?**

Nik egin nahi dudaren modukorik ez dut ikusi orain arte. Egia da Tolosan dagoela Europako museo garrantzitsuenetako bat (Topic), eta hor formakuntza tailerrak antolatzen dituztela. Zentzu horretan, oso ona da zentro hori izatea Tolosan, baina nik zentro bat eduki nahi dut, jendea astero joan dadin eta poliki-poliki gauzak sortzen joate-

ko eta buruan dituen ideiak praktikan jartzeko. Halakorik, gaur-gaurkoz, ez dago. Eta uste dut bailaran egitea ona izango dela. Gu Bergaran hasi ginen talde bezala duela 30 urte (Taun Taun), eta herri horretan bi urtean behin Txotxongilo Mostra antolatzen da. Hortaz, jendeak ezagutzen du arte mota hau.

**Ze fasetan dago proiektua?**

Dagoeneko aurkeztu dut bai eskola batzuetan, bai udaletan. Hasiera batean, asmoa zen hautatutako herri bakoitzean -Antzuola, Bergara, Arrasate eta Eibar- gune bat izan eta eskolak herrian bertan egitea. Hori lortzen ez bada, zentro bat lortuz gero, bertan egingo genuke. Hortaz, erantzunen zain nago, baina ni ez naiz geldituko. Jendea hasteko prest baldin badago, baserrian egiteko ere prest nago. **Zelako harrera espero duzu?**

Ikusiko dugu, baina baikorra naiz. Webgune bat jarriko dut martxan eta publizitatea egiten hasiko naiz. Bospasei pertsona batuz gero, hasteko moduan egongo ginateke. Nahi duenak [eskola.inakimata@gmail.com](mailto:inakimata@gmail.com)-era idaz dezake nirekin kontaktuan jartzeko.

## Gaztetxoei zuzendutako kirol eskaintza berezia udan

Udal Gimnasioan ekintza desberdinak egingo dituzte, eta izen ematea zabalik dago ekainaren 12ra arte

**M.T. ANTZUOLA**

Beste urte batzuetan egin izan den moduan, aurrean ere udan gaztetxoei zuzendutako kirol eskaintza berezia izango da Udal Gimnasioan.

12 eta 16 urte artekoendako kirol udaleku antzekoak izango dira, eta egunotan egingo dituzte ekintzak: ekainaren 26an, 28an eta 30ean eta uztailearen 3an, 5ean, 7an, 10ean eta 12an. Egun bakoitzeko bi orduko saioak izango dira, 10:30ean hasi eta 12:30ean bukatuko direnak.

Bada, egun horietan kirol jardura desberdinak egingo dituzte gaztetxoek, kirol teknikariez lagunduta: spinning edo areto bizikleta, crossfit gaztea, body tono gaztea, zumba, multikirola, patinajea...

Izena emateko epea atzo zabaldu zen, eta ekainaren 12ra arte izango da zabalik. Abonatuak -guraso biak gimnasio bakoitzean- 28 euro ordaindu behar dituzte eta abonatu ez direnek, 35 euro. Udal Gimnasioan eman behar da izena.

## FundAME fundazioari laguntzeko txartelak salgai daude

Hurrengo domekan, ekainak 11, irrati kontrolako autoen erakusketa eta erakustaldia izango da, egun osoz, Antzuolan. Bada, horren bueltan, irrati kontrolako Seat auto bat zozketatzeko txartelak jarri dituzte salgai, eta salmenta horretatik lortutako dirua muskulu-atrofia espinala duten pertsonen laguntzeko lanean diharduen FundAME fundazioari laguntzeko erabili ko dute. Txartel horiek Antzuolako Xinkona, Mox, Ongi Etorri eta Gailur tabernetan daude salgai, eta zozketa ekainaren 11n bertan egingo dute, 18:00etan, Beheko auzoko plazan.

## Iralako igoeran neurtuko dituzte indarrak gaztetxoek

Peña Aiastui txirrindularitza elkarteak antolatuta, bihar, zapatua, Iralako kronoigoera egingo dute, ume eta gaztetxoei zuzenduta. 12:00etan Antiguako ermitatik abiatuta, Irimoegi auzoko Irala baserriraino igo beharko dira bi gorpilen gainean. Gazteenengan txirrindularitzarekiko zaletasuna pizteko helburua du proba honek. Bada, helburu berarekin eta gaztetxoei zuzenduta ere, datorren asterako Ondarre auzoan bizikleta ginkana antolatu du Peña Aiastuik, eta ekainaren 17rako, berriz, Uzarragako igoera. Txirrindularitzaren bueltako hilabetea izango da, beraz, ekaina.

MUJIK  
HARATEGIA



Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrak eta oilaskoak

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34

# Pilotaren bueltako aste bukaera dator

Egubakoitz arratsaldean Antzuolako pilota txapelketako finalak jokatuko dituzte, lau partidu. Horrez gain, zapatuan Olalde pilota elkarteak Gipuzkoako Federazioarekin batera 6 eta 14 urte bitarteko neska-mutilentzat ate irekien jardunaldia antolatu du

## Maite Txintxurreta ANTZUOLA

Pilotaren bueltako asteburua izango da oraingoa Antzuolan, ume eta gaztetxoendako bereziki. Gaur, egubakoitza, ekainak 2, 18:00etatik aurrera, alebin eta benjamin mailetako pilotarien –8-12 urte bitartekoak– lau partidu izango dira frontoian, Antzuolako pilota txapelketako finalei dagozkienak.

Olalde elkarteak pilota sailak antolatuta, Aste Santu ostean hasi zuten binakako txapelketa, eta aurten 50 neska-mutilek hartu dute parte bertan –40 mutil eta 10 neska–. Hala, pilotari dezente direnez, lau taldetan banatu zituzten, eta talde bakoitzak bere aldetik txapelketatxo bana egin du.

Bada, osatutako lau talde horietako bakoitzeko bina bikote iritsi dira finalera, asteen jokatutako finalurrekoetan aurrera eginda, eta gaur erabakiko dute ze bikote izango den talde bakoitzeko txapeldun. Dena den,

lehia ez da garrantzitsuena, eta ikasturte bukaera borobiltzeko jaialdi moduan hartuko dute. Hori dela eta, partiduak bukatzean merienda egingo dute pilota eskolako neska-mutiko guztiek elkarrekin.

## Zapatuan, ate irekiak

Zapatuan ere pilotarekin lotutako beste hitzordu bat izango da pilotalekuan. 10:00etatik 13:30era, 6 eta 14 urte bitarteko neska-mutilei zuzendutako ate irekien jardunaldiak izango dira, Olalde pilota elkartearen eta Gipuzkoako Federazioaren eskutik. Ume eta gaztetxoengan pilotarekiko zaletasuna sustatzea dute helburu jardunaldi horiek, eta, batez ere, haiek ondo pasatzeko goiz bat antolatzea.

Jardunaldiotan denetarik egiteko aukera izango da. Hala, hasteko, pilota jolas desberdinetan arituko dira adinaren arabera banatutako talde txoetan –palaz zein eskuz–.

Pilotak egiten ikasteko tailertxo bat ere antolatu dute. Bukatzean, eurek egindako pilotak probatu ahal izango dituzte.

Horrez gain, baina, neska-mutikoei goi mailako pilotariekin egon, argazkiak atera eta haiekin jolasteko aukera izango dute.

## Finalak

### Ekainak 2, egubakoitza, 18:00.

**1. taldean:** Aitor Alzelai - Unai Alonso / Miren Sánchez -lbai Igartza.

**2. taldean:** Xabi Alonso - Alex Reifs / Ander Mihai - Suar Jauregi

**3. taldean:** Oinatz Peñagarikano - Aratz Olabarria / Markel Zabalo - Ander Legorburu.

**4. taldean:** Julen Tena - Unax Errasti / Aimar Moreno - Iker Otadui.

## Eurak ere bertsoan

Bertso saio berezia izan zen eguaztenean Torresoroan, eskolako LHko 5. eta 6. mailetako ikasleak protagonista izan zituena.

Eskolan lantzen diharduten *Gu ere bertsoan* egitasmoaren ikasturte bukaerako jendaurreko saioa izan zen, eta aretoa bete egin zen. Emanaldi polita egin zuten bertsolari gazteek, bertsolarako abilezia badutela erakutsita.



JONE LARRAÑAGA



lazio finalen osteko talde argazkia. OLALDE PILOTA ELKARTEA

## Ate irekiak

Honako hau izango da zapatu goizeko ate irekietako egitaraua:

### Egitaraua

- **10:00-11:00** Txokoetan multzokatuta, pilota jolasak
- **11:00-12:00** Gazteenak pilotak egitera / helduenak partidatxoak
- **12:00-13:00** Helduenak pilotak egitera / gazteenak partidatxoak
- **13:00-13:30** Pilotari profesionalekin kaleka / argazkia



**Herriarron neurria**

## Antzuola, herria eta irria eraikiz



**Juan Karlos Izagirre**



**Beñardo Kortabarria**

**Zurrategiko kioskoan  
Ekainaren 8an,  
ostegunean 18:30ean**

Prozesu Eratzalea

#HerriaTaIrriaEraikiz







Elgetako udalbatza, martitzenean egindako osoko bilkuran. I.Z.

# Antzokiarekin bueltaka, berriz

Hainbat erabaki hartu zituen udalbatzak martitzeneko osoko bilkuran. Espaloiko esleipen kontratuaren etetea izan zen lehenengoa. Xabier Ulazia bertan izan zen eta esan zuen ez dagoela ados Udalak eskatzen dion 600 euroko ordainketarekin

**Larraitx Zeberio** ELGETA

Lau hilabete egin ditu Xabier Ulaziak Elgetako antzokian: abenduaren 23an egin zuen inaugurazioa eta apiril amaieran itxi zuen. Kontratuaren etetea osoko bilkurako gai zerrendan zegoela ikusita, osoko bilkuran izan zen eibartarra.

Azpiegitura garbi eta egoera onean dagoela ziurtatu ostean, udalbatzak aho batez hartu zuen indarrean dagoen ustiaketa kontratua eteteko erabakia. Ordain-sari moduan, Ulaziak hasiera batean ipinitako 12.000 euroko bermetik 600 euro exekutatu ditu Elgetako Udalak. Gainera, Espaloia kafe antzokiaren izenean kudeatu dituen hainbat sare sozialetako pasahitz, klabe eta erabiltzaile izenak entregatu beharko dizkio Udalarari. Interesatuak, ordutik, hamar eguneko epea du erabaki horren

aurkako arrazoibideak aurkezteko, eta horrela adierazi zitzaien.

Ulazia ez dago ados ordaindu beharreko 600 euroekin. Ahalegin handia egin duela uste du, eta hobekuntza nabariak kafe antzokian. "Eskertze moduan 600 euro kobratzea... Ez dakit!", esan zuen. "Esan zenidaten lasai egoteko, eta, nire ustez, bukarako hau ez da polita izan". Hamar eguneko epeari erreferentzia eginez, Kultura zinegotzi Janire Lazkanok arrazoibideak aurkezteko esan zion. Elkartzeko eta negoziatzeko prest daudela gehitu zuen.

**ELGETAKO UDALAK  
600 EUROKO  
ORDAINKETA  
EZARRI DIO  
XABIER ULAZIARI**

Kontratu etetearen negoziatzioarekin lotutako hainbat balorazio egin ostean, Ulaziak antzokiarekin lotutako kultura proiektuaren gaineko hainbat gogoeta egin zituen. "Pentsatzen ari bazarete beste esleipen bat egitea... formatu honetan ezin da, ezin da!", esan zuen. "Hor inbertsio handi bat egin behar da. Ez dakit Udalak, Aldundiak edo Jaurlaritzak egin behar duen, baina hor inbertsio bat egin behar da eta "galera" bat eduki behar da. Horrelako zerbait egin beharko duzue. Eta min handia ematen dit. Niri antzoki hori asko gustatzen zait eta oso identifikatuta sentitzen naiz lan horretan, Lekeitiokoan baino askoz ere gehiago, baina iruditzen zait ezin dela esleitu. Benetan diotsuet. Edo diru bat sartzen duzue hor edo pentsatzen hasi erretiratu etxe batekin edo umeen-

dako jolasleku batekin edo...". Penaz eta Elgetan egindako harrengatik eskerrak emanez agurtu zen Ulazia.

## Bestelako erabakiak

Osoko bilkuran, bestelako erabakiak ere hartu zituen udalbatzak. Esate baterako, Udalak Eulen Taldeari esleituko dizkio zentro balioanitzarekin lotutako zerbitzuak; tartean, eguneko zentroa. Urtebeteko kontratua izango da, urtetik urtera lau urtez luzatzeko aukerarekin, eta kontratu berria ekainaren 23an sartuko da indarrean.

Tapem-Erdeia enpresa ere aipagarri izan zen maiatzeko osoko bilkuran. Alkateak jakinarazi zuen handitzeko beharra duela Elgetako industrialdean kokatuta dagoen enpresak, eta hori ahalbidetzeko dagoen lursail-zatiketan egindako xehetasun azterlan baten berri eman zuen. Lazkanok azaldu zuenez: "Eraikigarritasuna Forjas aldera du, baina tarte horretan behera egiten duen bide bat dago, eta, praktikan, hor eraikitzea ezinezkoa da". Esan zuen enpresak truke bat proposatu duela: alde batera dituen metro karratu eraikigarriak atzeko aldeko metro karratu kopuru berarekin aldatzea. "Eraikitze duen metro karratu kopurua bere horretan gelditzen da", azpimarratu zuen.

Horrekin batera, udalbatzak argi berdea eman zion Mizpialde Fundazioaren estatutu

aldaketari, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kabia egitasmoan sartzeko ezinbestekoa.

Oso bestelako neurria da, baina argi berdea jaso zuen baita ere Gipuzkoako Foru Aldundiko erroldan jasotako datuen kontsultarako hitzarmena sinatzeko proposamenak.

## Iritzi kontrajarriak

Beste behin, galde-erreguen txandak ekarri zuen bi udal talde politikoen arteko iritzi truka-keta beroena.

Gu Geu Elgeta plataformaren izenean Zubietako erraustegi proiektuarekin lotutako idatzi bat aurkeztu zuen Eduardo Zubiaurrek. Aurreko osoko bilkura batean hasitako eztabaidari erantzuna emateko asmotan, hainbat adierazpen egin zituen. Gaiak, berriz ere, agerian utzi zituen bi udal talde politikoen proiektu horrekiko dituzten iritzi kontrajarriak.

Eztabaida horren ostean, Iraitx Lazkanok alkateak beste idatzi bat aurkeztu zuen; kasu horretan, aurreko astean Gu Geu Elgeta plataformak kaleratutako idatziaren gainean, non oposizioak Udal Gobernuaren bi urteotako kudeaketaren balorazioa egiten zuen.

Egindako lanaren defentsa egin zuen EH Bilduko ordezkariak, eta esandakoetan berretsi zen oposizioa. Berriz ere, agerian gelditu ziren bi udal talde politikoen arteko ezadostasunak.

## Hirix plataforma

Sare sozial itxura du eta laster izango da erabilgarri Elgetan. A3R Consulting enpresak kudeatuko du eta bi urterako kontratua sinatzea onartu du udalbatzak. Prezioa da 48 euro hilean. Iraitx Lazkanok alkateak azaldu du Elgetarekin lotutako informazioa jaso eta Udalarari aparteko gorabeheren berri emateko tresna izango dela herritarrendako. Parte-hartzea eta udal informazioaren zabalkunde ahalbidetu dituela esan zuen.

## Aldaketak aurrekontuan

Alkate erabakietan, 2016ko gerakinetik finantzatu diren hainbat kreditu aldaketaren berri eman zuen Iraitx Lazkanok. Elgetako Udalak 7.700 euro gehituko dizkio baserriaren batzordetik bideak eta azpiegiturak hobetzeko lanak egiteko 2017ko udal aurrekontuan aurreikusita dagoen diru-lerroari; 3.920 euro irisgarritasun lanak egiteko lerroari; eta 4.564 euro eguneko zentroan inbertsioak egiteko lerroari. Guztira, 16.184,28 euroko kreditu aldaketak dira.



Memoria lantzeko tailerreko saio batean, dinamizatzailea eta parte hartzaileak. LARRAITZ ZEBERIO

# Memoria tailerrak oso harrera ona izan du

Atzo, eguena, egin zuten kultura etxean antolaturiko memoria tailerraren azken saioa. Hainbat herritarrek eginiko eskaeragatik jarri zen martxan egitasmoa; eta bultzatzaileak "pozik" daude esperientziarekin. Hamabi pertsonak esku hartu dute

**Iker Oñate** ELGETA

Herritarren eskaera du oinarrian azken hilabeteotan kultura etxean izan den memoria tailerrak. Martxoaren 16an egin zuten lehen saioa, eta, ordutik, eguenero -2 orduz- elkartu dira esku hartu dutenak. Oro har, "gustura" jardun dute, eta ez dute zailtzarik: "Errepikatze mo-

duko esperientzia izan da; eta, nola ez, ingurukoei gomendatu beharrekoa".

Bada, herritarrek eguneko zentroko esperientziak bultzaturik egin zuten eskaera. Alegia, bertan, ohikoak dira memoria lantzeko tailerrak; eta, horretaz jakitun, horietara joan ahal izatea eskatu zuten zenbait herri-

tarrek. Dena den, egoiliarrek ez direnek ezin dute bertara joan, plaza mugatuak baitira. Hori horrela, kultura etxean tailer irekiak antolatzea erabaki zuen Udalak. "Herritarren eskaerak bultzaturik, tailer irekiak antolatzea erabaki genuen", dio Mirari Larrañagak, Gizarte Ongizate zinegotziak.

Horri lotuta, Udalak egitasmoaren balorazioa eskaini du: "Memoria tailerrak oso harrera ona izan du. Izena eman dutenen artean oso giro ona sortu da. Gauzak horrela, taldea sortuz gero, datorren urtean errepikatze moduko esperientzia da, duarik gabe".

## Memoria lantzearen garrantzia

Lorea Errekalde animatzaile soziokulturalak dinamizatu ditu memoria lantzeko tailerrak; gisa ezberdinetako ariketak erabili ditu horretarako. Besteak beste, saioak prozesu baten parte izan dira. Alegia, tailerrak aurrera egin ahala, ordura arte landutakoak ekartzen zituzten gogora parte hartzaileek; aurreko asteetan jorraturikoaren errepaso egiten zuten horrela.

Memoria lantzearen garrantzia azpimarratu du Errekaldek. "Oso inportantea da memoria lantzea, erabiltzen ez dena galdu egiten baita. Jardun horretan, beharrezkoa da funtzio kognitibo guztiak aktibo mantentzea", dio.

Tailerraren dinamizatzaileak saio praktikoetan oinarritu du prozesua, memoria lantzerantz ez ezik, gainerako funtzio kognitiboak garatzera bideraturikoak. "Funtzio kognitibo guztiak lantzerantz bideratu ditut saio praktikoak. Horrez aparte, gauzak gogorarazteko zenbait trikimailu erakutsi dizkiet", azaldu du animatzaile soziokulturalak.

## Adina, mugatu gabe

Adin eta profil askotariko jendeak egin du bat egitasmoarekin. "Memoria lantzeko tailerrean izena eman duten asko jubilaetuak dira, baina jende gazteagoa ere animatu da. Horiek prebentzio moduan darabilte, batez ere. Tailer hauek ez dute adin mugarik", argitu du Errekaldek. Gaineratu duenez, aniztasun horrek ez dio kalterik egin prozesuari: "Oso giro ona sortu da. Gainera, ariketak egitean, laguntza handia eskaini diote elkarri; eta hori aberasgarria da tailerrarendako".

## Etxean lantzeko modukoa

Memoria lantzeko jardunean, Lorea Errekaldek aparteko garrantzia ematen dio estimulazioari. Hori horrela, parte hartzaileen esku badago ere, ikasirikoa ez dute zertan memoria tailerreko saioetara mugatu. "Etxean ere jarrai dezakete memoria lantzen, besteak beste, sudokuak eginez edo egunkaria irakurritik. Finean, burua aktibo mantentzea da gakoa", esan du Errekaldek. Parte hartzaileek ez diote uko egin ikasirikoa lantzen jarraitzeari.

## TAILERRAREN DINAMIZATZAILEAK SAIO PRAKTIKOETAN OINARRITU DU PROZESUA



LARRAITZ ZEBERIO

## Asentzio Eguna, giro onean

Eguraldi ona lagun, Elgetako eta Angiozarko hainbat lagun elkartu ziren domeka eguerdian, Asentzio Eguna ospatzeko aitzakiarekin. Bertaratu zirenen artean zeuden Elgetako alkate Iraitz Lazkano eta Angiozarko alkate Jose Angel Mikeo. 12:00etan hasi zuten eguna,

mezarekin. Ostera, trikitilariak giroturiko hamarretakoa egin zuten pagopean.

Hainbat urtez bazterrean lagata egon ostean, festa berreskuratzeko ahaleginean jardun dute Elgetako Udalak eta Angiozarko auzotarrek.

## Beheko kaleko afarirako txartelak salgai jarri dituzte

Beheko kaleko jai batzordeak prest ditu festak. Ekainaren 16rako iragarri ditu, eta, aurreratu dutenez, bizikleta lasterke-ta, sokamuturra, neska-mutikoendako jolasak, afaria eta kontzertuak -Amaia DJ eta Gauargi- izango dira.

Afarirako txartelak maiatzaren 31n jarri zituzten salgai, Goikoetxe harategian; eta ekainaren 13ra bitartean egongo dira eskuragarri, 12 eurotan. Jada zehazturik dute menua: berakatz-zopa, solomoa piperrekin, flana, kafea, ogia, ura eta ardoa.

Litekeena da, bezperan, Mikel Irazabalen Baobeer garagardo dastaketa egitea.

## OHARRAK

### Gure Esku Dago

Ekainaren 10eko ekitaldirako konpromiso txartelak eta autobuserako txartelak salgai: gaur 19:00etatik 21:00etara eta domekan 12:30etik 14:00etara, Salvador kalean.

### Gaztelekuko en irteera

Gaztelekuak antolatuta, Senda Viva parkera irteera bihar. Gaur, barikua, gurasoendako bilera 17:10ean, ludotekan.

### Mintzalagunen irteera

Elgetako berbalagun ekimenetik antolatuta, egun osoko txangoa ekainaren 25ean Bizkai aldera. Omako basoa eta Santimamiñeko kobak bisitatuko dituzte. Zabalik da izen-ematea.





Neska-mutikoak jolasean, udaleku irekietan. GOIENA

## Inoiz baino ume gehiago aurten udaleku irekietan

526 neska-mutikok eman dute izena uztailaren 3tik 28ra egingo diren udaleku irekietan, inoiz baino gehiagok. Hori horrela, orain arteko taldeei, beste bat gehituko zaie: talde morea, hain zuzen. 57 begiraleren gidaritzapean arituko dira neska-mutikoak

### Miren Arregi OÑATI

Uztailaren 3an hasi eta 28an bukatuko dira Udalak antolatutako udaleku irekiak. Inoiz baino jendetsuagoak izango dira aurtengoak, 526 umek eman baitute izena horietan. Horren arrazoia da LHko seigarren mailako neska-mutikoek ere eman ahal izan dutela izena. Iaztik hona, LHko bosgarren eta seigarren mailetakok hartu dezakete parte udaleku irekietan; kontua da, baina, iaz ez zela seigarren mailakorik apuntatu. Bai, ordea, aurten. 2013an jaiotako umeak dira udalekue-tan parte hartuko duten gazte-txoanak.

### Talde morea, berria

Hori horrela, orain arteko taldeei, beste bat gehituko zaie aurten. Taldeak mailaka eta koloreka antolatzen dira udaleku irekietan, eta, jende gehiagok izena eman duela ikusirik, talde berri bat sortu da. Hala, orain arteko talde horiari, ber-

deari, laranja, urdinari, gorriari eta beltzari beste bat gehituko zaie; hain zuzen ere, LHko laugarren, bosgarren eta seigarren mailako neska-mutikoz osatuta egongo den talde morea.

Goizeko hamarretan hasiko dira udalekuak, ordu bata arte, egunero, astelehenetik egubakoitzera. 08:15etik aurrera zain-tza zerbitzua egongo da, gura duen ororentzat. Ordu horretan hasita, askotariko ekintzak egingo dituzte neska-mutikoek, 57 begiraleren gidaritzapean. Aipatzekoa da aurten neska-mutiko askok parte hartuko dutela kontuan izanda, inoiz baino begirale gehiago arituko direla horiekin: "Begiraleak lortzeko

**FORMAZIO SAIOA DUTE BIHAR, GAZTELEKUAN, UDALEKU IREKIETAKO 57 BEGIRALEEK**

lehenengo deialdian ez zen behar beste jende lortu eta bigarren bat egin behar izan genuen", adierazi du koordinatzaile Leire Zumaldek. Horietatik gehienak dira oñatiarrak, baina badira Arrasateko, Bergarako eta Legazpiko begiraleak ere.

### Formazio saioa, bihar

Maiatzaren 13an egin zuten udaleku irekietan arituko diren begiraleek lehen formazio saioa. Bigarrena eta azkena bihar egingo dute. Lehenengo hura euren artean harremanak sortzeko baliatu zuten, baita helburuak zehaztu eta programazioa lantzen hasteko ere. Biharkoa programazioaren gainekoa izango da bere osotasunean.

### Guraso bilera, ekainaren 28an

Funtzionamenduaren eta nondik norakoaren berri emateko, gurasoendako bi bilera egingo dira ekainaren 28an; 18:00etan izango da gaztelerazkoa 19:00etan euskarazkoa.



Patricia Bofillen erakusketaren inaugurazioa, Arantzazun. IMANOL SORIANO

## Bukatu berri den ARGI festibala "arrakasta itzela" izan da

Pozik eta eskertuta agertu dira Ilunpetan argazki taldeko kideak, ARGI argazki festibala bukatu berritan

### M.A OÑATI

"Bisitarien eta parte hartzaileen kopurua adierazten duten zenbakiek eta jasotako komentarioek aski erakusten dute 2017ko edizio hau arrakasta itzela izan dela". Horrela mintzatu da Ilunpetan argazki taldeko Itziar Bastarrika, bukatu berri den ARGI argazki festibalaren gainean galdetuta. Eta erantsi du: "Txikitasunean handitzen ari garela ikustea oso betegarria da guretzat. Gure esentzia galdu gabe, pixkanaka urrunago helzen garela ikustea aberasgarria da. Eta horixe da, guretzat, saririk handiena, hain gustuko dugun diziplinaz gozatu, partekatu eta ikasten jarraitzea".

Izan ere, horixe da bi urtean behin egiten den eta aurten hirugarrena bete duen ARGI festibalaren helburua; alegia, argazkilaritza jendearengana hurbiltzea. Ahalegin hori askotari-

ko proposamenen bitartez egin dute aurtengoan ere. Besteak beste, erakusketak egin dira –Bernat Alberdiren *Oñatiarrak*, Ekaitz Zilarmendiren *Sistemak*, Eli Garmendiaren *El Bosque Dormido* eta Patricia Bofillen *Mirar más allá de la forma*–, baina baita bestelakoak ere, hala nola arrakasta handia izan duten Miren Pastorren *BookJockey* emanaldia eta Jerardo Elortzaren *Sancti Spiritus* unibertsitatean egin zen *Ispiluak* erakusketaren baitako bisita gidatua.

### 2019an berriz

Hain gustura gelditu dira Ilunpetanekoak, dagoeneko 2019ko edizioan pentsatzen hasiak dira. Argazki taldeko kideek, bestetik, poza eta esker ona adierazi gura izan diete ARGI festibala posible egin duten guztiei. "Zuek gabe, ezin!", esan dute.

## 10. urteurrena ospatzeko arkeotailerrak, bihar

Arkeotailerrak eta bisita-gidatuak prezio berezian egingo dira bihar Arrikrutzen, 10. urteurrenaren harira. Arkeotailerrak 11:00etan eta 16:00etan egingo dira eta bisita gidatuak 12:00etan eta 17:00etan. Parte hartzeko beharrezkoa da erreserba egitea. Horretarako, 943 08 20 00 telefonora deitu edo [arrikruz@onati.eus](mailto:arrikruz@onati.eus) helbidera idatzi dezakezue.

## Iker Martinezen 'Itzalen mundua' salgai, ekainaren 9an

Oñatin Ona eta Boga tabernetan egongo da eskuragarri ekainaren 9tik aurrera eta Elkarren ere erosi ahal da. Formatu digitalean gura izanez gero, iTunes, Youtube Music, Spotify eta Amazon Music-en eskuratu daiteke hori. Bestetik, gaur PUNTUAKo harpidedunek doan jaso dute, astekariarekin batera, *Itzalen mundua*.





Bi oñatiar Greziako Kios irlan, iaz, herritarrei bidaliriko elikagai eta materialengatik eskerrak emanez. HOTZ OÑATI

## Melillarako karabana irteeraren aurkezpena

'Mugak zabaltzen, Melillara karabana' hitzaldia antolatu du Hotz Oñatik martitzenerako; Jose Masa eta Txefo Mendes izango dira hizlariak. Nagusiki, uztailaren 14tik 22ra bitartean egingo den egitasmoa aurkeztea dute xede

**Iker Oñate** OÑATI

Hotz Oñati eta Ongi Etorri Errefuxiatuak taldeek, elkarlanean, hitzaldia eta bideo emanaldia -30 minutu inguruko iraupena duena- antolatu dituzte ekainaren 6rako; 19:00etarako finkatu dute hitzordua, Antixena gazte-txean. Bertan, Jose Masak eta Txefo Mendezek jardungo dute hizlari; aurreko urtean Greziara eginiko karabana egitasmoan parte hartzaile izan ziren horiek biak.

Hizlarien esperientziatik abiatuta, aurrera begira antolatuturiko ekitaldia da. Alegia, besteak beste, aurtengo karabana egitasmoa aurkeztea dute helburu antolatzaileek: uztailaren 14tik 22ra bitartean egingo da, Melillara. Zehatz esanda, Euskal Herriatik, Kataluniatik eta estatuko beste hainbat lekutatik irtengo da autobus-karabana.

Horri lotuta, antolatzaileek martitzeneko hitzordura bertaratzeko dei egin diete herritarrei. Euren esanetan, "hitzaldi pare-

gabea da egitasmoan izena eman, gaiaren inguruko informazioa jaso edota babesa adierazi gura duenarentzat".

Hotz Oñatiko kide Iñaki Urizarrek, berriz, Melillara egingo den autobus-karabanan esku hartzearen garrantzia azpimarratu du: "Ez dugu Greziara joan beharrik errefuxiatuek bizi duten egoera latzaz jabetzeko. Hemen inguruan ere ikus daiteke hori. Gauzak horrela, Melillan aukera paregabea izango dugu gure kexak lau haizetara zabaltzeko; eta, protestak norbaitengana iritsiko dira, seguru. Hemen jaramon gutxi egiten baitigute". Melillako ministerioetan eta CIEtan egingo dute protesta, hain zuzen ere.

**AURREKO URTEAN GREZIARA EGINIKO KARABANAN ESKU HARTU ZUTEN HIZLARIEK**

**Pintxo-pote solidarioa**

Aipaturikoaz aparte, beste ekintza bat antolatu dute datorren asterako: musikak giroturiko pintxo-pote solidarioa egingo dute ekainaren 9an. Herriko plazan finkatu dute hitzordua, 19:00etan hasita.

Azaldu dutenez, konfiantzazko taldeetara edo egitasmoetara bideratuko dute egunean bildutako dirua. Hor daude Himalaya proiektua, Movil kitchen eta SOS Refugiados.

**Kontzientziazioan sakonduz**

Aurrera begira ere ekintzak antolatzen segitzeko asmoa berretsi dute Hotz Oñatiko kideek; horiek gehienek, herritarren kontzientziazioa izango dute helburu. Hainbaten artean, hitzaldiak eta bideo emanaldiak antolatuko dituzte. "Jada ohiko bilakatu dira errefuxiatuei loturiko albisteak. Hala, bizi duten egoerak jada ez gaitu horrenbeste harritzen. Horri aurre egin beharra dago", dio Urizarrek.

## San Martingo biodibertsitatea aztertu dute Zuazola-Larrañan

Adin askotariko ikasleen arteko elkarlana izan du oinarrian San Martinen bueltako egitasmoak

**Iker Oñate** OÑATI

Eskola Agenda 21ek aurten landuriko biodibertsitatea aitzakia, San Martingo berdeguneari buruzko proiektua egin dute Zuazola-Larrañako ikasleek. Egitasmoa maiatzaren 24an aurkeztu zioten Mikel Biain alkateari, udal foroan.

Besteak beste, herriko biodibertsitateaz jabetzea, berorren aberastasuna baloratzea eta babes-neurrien kontzientzia hartzea izan dute xede proiektuaren bultzatzaileek. Ahalegin horretan, gaiaren inguruko txostena ez ezik, horren bueltako ikus-en-

tzunezkoa ere landu dute Zuazola-Larrañako ikasleek.

Hainbat fasetan banatu dute ikerketa prozesua: kontzeptuen lanketa, garapen fasea, ikergai zuten esparruaren azterketa eta aztertuturikoaren lanketa, hain zuzen ere.

**Hiru atal**

Ikasleek hiru ataletan banatu dute landuriko txostena -parkearen historia, bere biodibertsitatea eta hobetze proposamenak-; eta, ondorioztatu dutenez, "beharrezkoa da biodibertsitatea babesteko neurriak hartzea".

## Txosnen bueltako hausnartze prozesu barruan, bilera irekia

Herriko jaiei begira jarri da Oñatiko Txosna Batzordea. Gaur-gaurkoz, hausnarketa prozesuan dago murgildurik, eta, kide berrien ekarpenak jaso guran, bilera irekiak deitu ditu. Astelehenean, hilak 5, egingo dute hurrengo bilkura, Ona pareko plazatxoan; 19:30erako finkatu dute hitzordua.

Txosna Batzordeko kideek azaldu dutenez, "kolokan jarri da orain arteko planteamendua, eta, ekarpenek hala badiote, norabidea ere alda daiteke". Horri lotuta, esaterako, jaigunearen itxura aldaketa eta txosnetan esku hartzen duten eragileen arteko harremana landuko dituzte.

Hala, batzordeko kideek bilera irekiekin bat egiteko eskatzen diete herritarrei, "norabidea guztion artean finkatzeko".



OIHANA ELORTZA

## San Lorentzon, bidegorria

Bidegorri sarea osatu guran, San Lorentzo eta Ugarkalde lotuko dituen bidea egiten dihardute. Apirilaren amaieran hasi zituzten obrak; eta, bost hilabeteko epea dute bukatzeko. "Osatu gabeko bidegorri sarea dugu. Hori horrela, beharrezko genuen San Lorentzo eta Ugarkalde lotzeko egitasmoa", dio Irati Etxeberriak, Hirigintza eta Zerbitzuetako zinegotziak.





Supituki inprobisazio taldeko kideak. IRAZAN

# Bat-bateko saioa, gaur, Supituki taldearekin

Kilometroak 2017k eta Irazan Antzerki Guneak antolatuta, gaur, egubakoitza, 'Supituki' antzerki emanaldia egingo da gaztelekuan, 22:30ean. Bihar, berriz, arte plastikoen eguna izango da; Kilometroak 2017rako grafiti bat margotuko dute

## Miren Arregi OÑATI

Irazan antzerki gunearen proiektu desberdinen artean antzerki inprobisatuarena dago. Ikasturte honetan inprobisazio emanaldi bat sortzen aritu dira eta eta lan horren fruitua dastatzeko aukera gaur bertan egongo da, 22:30ean, gaztelekuan. Sarrerak 5 eurotan eskuratu ahal izango dira, gaztelekuan bertan. Kilometroak 2017k eta Irazanek elkarlanean antolatutako ekintza izango da hori.

Supituki izeneko antzerki emanaldia lau inprobisatzailek osatuko dute, baina publikoak garrantzi handia izango du. Gaztelekuan bildutako papertxo bana emango zaie ideia bat idatz dezaten eta horren gainean jardungo dute Irazaneko inprobisatzaileek. Galaren eta taldearen izenaren gainean honako azalpena eman du taldeko kide Egoitz Aizpuruk. "Supituki edo bat-batean erreakzionatzen dugulako ipini diogu Supituki izenburua gaurko emanaldiari".

## Gaurkoa bigarrena

Irazaneko kideek inprobisazio emanaldi bat eskaintzen duten bigarren aldia izango da gaurkoa. Iaz egin zuten lehena, Irazan talde sortu berria aurkezteko. Orduko hartan esperimentatutakoa sakontzea gura izan dute eta hortik sortu da gaurkoa: "Supitukiren hazia aurreko urteko inprobisazio galan erne zen. Laurok batu, taldeak ondo funtzionatu zezan oinarri batzuk finkatu eta astero elkartzen gara inprobisazioa lantzeko".

Oraingoz, lau kidek osatzen dute taldea: Ariane Telleriak, Itziar Arkauzek, Josu Zubiak eta Egoitz Aizpuruk. Laurak ere, hasiera-hasieratik Irazan

**IAZ EGINDAKO LEHEN INPROBISAZIO GALAREN ONDOTIK, ILDO HORI SAKONDU GURA IZAN DUTE**

Antzerki Guneako kideak eta inprobisazioa asko interesatzen zaienak.

## Bihar, 'Artea Kalean'

Bihar, berriz, arte plastikoen eguna izango da. Goizean goiz, Joana Mancisidor margolaria Kilometroak 2017rako grafiti bat margotzen hasiko da Txantxiku Ikastolako patioan. Zuzenean bere lana nola burutzen duen ikusteko aukera izango da, izan ere, goizeko hamaikeetatik aurrera haurrentzako ekintza desberdinak antolatu dira ikastolako patioan.

Mancisidorrekin batera, Joxe Oleagak *live painting* saioa egingo du. Ipuin kontalari baten narrazioarekin batera Oleagak bere irudi propioak sortuko ditu bertan bildutako aurrean. Ikusle izateaz gain, txikienek izango dute aukera euren arte erakustaldia egiteko. Ikastolako patioan Lekaixoka irudi erraldoia margotzeko aukera izango baitute.



Abesbatzako kideak, Toursen. GANBARA ABESBATZA

## Lau sari ekarri ditu Ganbarak Tourseko lehiaketatik

Oñatiko Ganbara Abesbatzak beste behin erakutsi du nazioarteko abesbatzekin lehiatzeko besteko maila duela

## M.A OÑATI

Tourseko –Frantzia– nazioarteko abesbatzen lehiaketan izan da joan den asteburuan Oñatiko Ganbara Abesbatza, eta, nazioarteko maila handiko abesbatzak –AEBetako, Frantziako, Italiako, Ukrainako eta Filipinetako abesbatzak– arerio izan baditu ere, oñatiarrek sekulako emaitzak lortu dituzte lehiaketan.

Sari nagusia hutsik gelditu da eta bigarrena Italiako abesbatza batek eskuratu du. Hirugarren gelditu da Oñatiko Ganbara Abesbatza. Hori gutxi ez, eta frantsesezko obraren interpre-

tazio onenaren saria eta errenazimentuko modalitatean bigarrena eskuratu ditu –modalitate honetan ere lehenengo saria hutsik gelditu ondoren–.

## Aitor Biain, zuzendari onena

Ganbarak eskuratu duen laugarren eta azken saria zuzendari onenari ematen zaiona izan da. Izan ere, Ganbarako zuzendari Aitor Biainendako izan da hori.

Horiek horrela eta lehiaketako parte-hartzaileen kalitatea ikusirik, oñatiarrak pozik bueltatu dira Frantziatik, hurrengo erronkari ekiteko gertu.



## Ganbararen balentriak

MIEL GURIDI

Pasa den asteburuan Oñatiko Ganbara abesbatzak egin du balentria berriro ere. Maleta bete sari itzuli zaigu Tourseko lehiaketatik. Ikaragarria! Baina zenbaterainokoa da balentria hori? Egindakoari neurria jartzeko konparazio bat proposatuko dizuet.

Pozak zorutzen gabilta Errealak eta Athleticek hurrengo denboraldian European jokatu dutelako. Merezia, denboraldi osoan egindako lanaren emaitza da hori. Baina, 11.000 biztanleko herri bateko futbol talde batek, Aloña Mendik esaterako, European jokatzeko aukera lortuko balu? Pentsaezina!

Bada, hori da Oñatiko Ganbara Abesbatzak lortu duena, eta ez behin bakarrik, azkena Toursen. Europako lehiaketa batean parte hartzeko aukera merezimenduz lortu, eta hori gutxi balitz, sariekin bueltatu.

Azken honetan esperientzia zuzen-zuzenean bizitzeko aukera izan dut, lerro hauek idazten ari naizen unean oraindik ere lainoan nagoela iruditzen zait, zoragarria izan da.

Zorionak eta eskerrik asko, Ganbara!



Iriondo, Segura, Rezusta, Altuna, Altadill eta Diaz de Monasterioguren, Pago Uso elkartean, martitzenean. MIREN ARREGI

## Pilotaren ingurukoak arrakastatsuak izan dira

Kirol prestakuntzaren eta elikaduraren arteko harremanaz berba egin dute, asteen, Pago Uson egindako hitzaldian Beñat Rezusta eta Jokin Altuna pilotariak. Bihar emango zaio bukaera Pilota Asteari; ekintza mordoa antolatu dituzte

### Miren Arregi OÑATI

Aloña Mendiko pilota sailaren 50. urteurrenaren baitan Pilota Astea ari dira ospatzen eta hainbat ekintza egin dituzte testu-inguru horretan. Esaterako, martitzenean, aurpegi ezagunak izan ziren Pago Uso elkartean, *Pilotarien prestakuntza eta elikadura* izenburupean egin zen mahai-inguruan. Mahaiaren bueltan izan ziren Nerea Segura eta Amaia Diaz de Monasterioguren nutrizionistak, Jokin Altuna eta Beñat Rezusta pilotariak eta Aritz Altadill kirol prestatzailea. Nork bere alorretik, elikadurari ematen dion eta eman behar litzaiokeen garrantziaz berba egin zuen.

Nerea Segura dietistak kirolariengan elikadurak duen garrantzia azpimarratu gura izan zuen: "Askotan ez gara konturatzatzen elikaduraren garrantziaz, baina guk deitzen diogu entrenamendu ikusezina. Egunerokotasunean entrenatu beharra dagoelako", adierazi du. Beñat

Rezustak janari ematen dion garrantziaz galdetuta, adierazi zuen ez dela dieta jakin bat eramaten duten horietakoa, baina saiatzen dela zaintzen eta garbi jaten. "Zoratzeko, ez naiz gramoei begira egoten, baina saiatzen naiz ondo jaten". Jokin Altunak azaldu zuen urteekin garrantzi handiagoa ematen diola jaten duen horri. "Urteekin konturatzatzen gara entrenamenduak bezain garrantzitsua dela elikadura. Bereziki, txapelketa garaian asko zaintzen naiz, amak prestatzen dit janaria, eta, alde horretatik, zorzea dut".

### Erakusketa bi ikusgai

Bestetik, gaur da pilota sailak kultur etxean ipini dituen bi

## GAUR DA KULTUR ETXEKO ERAKUSKETAK IKUSTEKO AZKEN EGUNA

erakusketak ikustera joan ahal izateko azken eguna. *Euskal pilota herriz-herri izena du lehenak; Oñatiko herria eta pilota bigarrenak*. Lehenengoan, pilotaren historia kontatzen da. Nola hasieran frontis barik jokatzen zen, noiz sortu ziren frontisa eta ezkerreko paretak, nola latexa sortu zenean bizkortu zen pilota, pilotaren modalitate desberdinak, pilotari profesionalak... Bigarrenean, azken 50 urteetako pilotaren inguruko argazkiak ipini dituzte ikusgai. Gaur da hori ikusi ahal izateko azken eguna. 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik.

### Bihar, Pilotaren Eguna

Hainbat ekintza egongo dira bihar plazako pilotalekuan. 10:00etatik 13:00etara umeendako jolasak, tako tailerrak eta pilotagileen erakustaldia egongo dira, baita Hegoalde-Iparralde joko erakustaldia ere. Arratsaldean xistera erakustaldia eta emakumeen arteko partidua egongo dira.

## Lasterbidean elkartasun lasterketa egingo dute domekan

Euskal Herri mailako egitasmoa izaki, jende ugari batzea aurreikusten da. Ekintza ugari egongo dira

### Iker Oñate OÑATI

Domekan, ekainaren 4an, egingo dute Lasterbidean elkartasun lasterketa. Ekintza ugari eskaintzen dituen egitaraua prestatu dute. Bezperarako, zapa-turako, finkatu dute lehen hitzordua: Herstura eta Viva Belgrado musika taldeek jardungo dute gaztetxeko agertokian.

Gainerako ekintzak, bestalde, hurrengo egunerako antolatu dituzte. Patinen lasterketa egingo dute lehenik, 10:00etan. Ostean, ibilbide luzea (8,3 km) eta

motza (3 km) egingo dituzten lasterkarien txanda helduko da; 550 lagunek baino gehiagok eman dute izena lasterketa luzean. Horiek amaituta, besteak beste, ekitaldia, herri bazkaria, umeentzat ekintzak, pilota partidua eta kontzertuak egongo dira.

Pilota partiduari dagokionez, profesional ohiek jardungo dute nor baino nor gehiago: Saralegi-Eulate bikotearen aurka lehiatuko dira Mikel Goñi eta Gorrotza. 17:30ean hasiko da partidua, plazako pilotalekuan.

## Euren ligen aitortpena jaso dute Billarrek eta Oruetak

Bi oñatiar saritu dituzte. Bate-tik, eskubaloia sailean, Euskal Ligako jokalaria onena izendatu dute Aloña Mendiko jokalaria Aitor Billar. Eta futboleko ere izan da aitortpenik: Alaveseko bigarren taldeko entrenatzaile Aitor Orueta izan da Hirugarren Mailako entrenatzaile onena, Premios Tercera EH inkestaren arabera.

## Gaur hasiko da herriko pilota txapelketa

Gaur, egubakoitza, hasiko da herriko pilota txapelketako aurtengo edizioa. Guztira, hiru partidu jokatuko dira gaur; 18:00etan hasiko da lehena, eta segidan jokatuko dute gainerako bi bikoteak. 51 taldek eman dute izena txapelketan; eta, horrenbestez, elkarren aurka lehiatuko dira hurrengo hila-beteetan.



ALOÑA MENDIKO KARATE SAILA

## Karateko kideak Gasteizen

Euskadiko eskolarteko kirol jokoak egin zituzten maiatzaren 27an, zapatuan, Gasteizen. Bertan lehiatu ziren Aloña Mendiko karate saileko kideak; eta pozik dira erdietsiriko emaitzekin. Kumite infantil mutilen kategorian eskuratu zituzten emaitza onenak: Xabat Castañós bigarren izan zen 40 kilo azpikoetan eta Iker Jimenez hirugarren 50 kilo azpikoetan.



# "Aiba! azkar egitera datorrena libre da, baina ez da lasterketa"

**EKAITZ ARANBURUZABALA** BESAIDKO ORDEZKARIA

**MENDIA** Dagoeneko 350 lagunek eman dute izena domekan Biteritik abiatuta egingo duten Aiba! mendi martxarako. Antolatzaileek, baina, 150 dortsal gorde dituzte egunean bertan izena eman gura dutenendako

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Besaidek antolatuta, Aiba! mendi martxa egingo dute domekan Arrasaten. Mendizaleak 07:00etan abiatuko dira Biteritik, eta bi ibilbide izango dituzte aukeran. Luzea aukeratzen dutenek Udalatx eta Anboto izango dituzte zain: "Distantzian luzeak ez ditu askoz ere kilometro gehiago, baina bai desnibela; ondo entrenatuta egotea komeni da", dio Ekaitz Aranburuzabalak. Izena domekan emango duena komeni da Biteri plazara goiza-go joatea.

**Martxa bi urtean behin antolatzen duzuenetik arrakasta handitu egin da, iaz ere mendizale kuadrilla galanta batu zineten -335 lagun-.** Bai, dagoeneko 350 lagunek eman dute izena aurrez, eta kopururekin oso pozik geratu gara [Interneteko izen-ematea itxita dago dagoeneko]. Esango nuke orain bi urtean behin antolatzen dugunez jendeak gogoz hartzen duela Aiba!

**Domekan, baina, egongo da izena emateko aukera, ala?**

Bai; domekarako beste 125 dortsal inguru gorde ditugu, gehienez 450 lagunendako tokia egongo da. Aurreko edizioan, 2015ean, egunean bertan 100 lagunek eman zuten izena, baina eguraldi txukuna izan genuen. Domekara begira eguraldiak asko baldintzatuko du azken orduan Aiba!-ra animatzen den jende kopurua [domekan, izena emateko, federatuta daudenek 13 euro ordaindu beharko dituzte eta ez federatuek 18 euro].

**Ze helburrekin antolatzen duzue Aiba! proba?**

Aiba! [Aramaioko Ibarrari Buelta Arrasatetik] antolatzea, has tapenean, familia mendizale baten ekimena izan zen -Elortondo anaiek antolatu zuten Aiba! lehenengoz, 2006an- eta Besaide mendi taldea ondoren hasi zen laguntza eskaintzen. Hasieratik arrakasta polita izan



Ekaitz Aranburuzabala. GOIENA

**"BI URTEAN BEHIN ANTOLATZEN DUGUNEZ, JENDEAK GOGOZ HARTZEN DU AIBA! MARTXA"**

zuen, baina martxa urtero antolatzea lan handia zen gutxi batzuen artean egiteko. Eta, 2012 eta 2015 urteen artean ez zen martxarik egon. 2015ean Besaidek hartu zuen Aiba! bi urtean behin antolatzeko ardurara, mendi taldean hasieratik ekimen oso positiboa zela iruditu zitzaigun. Herritarrei kirol hitzordu bat eskaintzea da helburua, mendira joateko aitzakia bat.

**Aiba! jaio zenetik lehiakortasuna kendu gura izan zitzaion, orduan**

**"IBILBIDE LUZEA AUKERATZEN DUTENEK GEHIENEZ 11 ORDU IZANGO DITUZTE BIDEA EGITEKO"**

**mendi lasterketen gorakada zeterren, eta ez zuten mendi lasterketa bat antolatu gura. Horretarako, gutxieneko denbora-mugak ere ezarri ziren anoa postuetan.**

Duela bi urte eztabaida izan genuen gure artean, denbora-mugak jarri behar ote genituen, ez... Aiba! inoiz ez da izan mendi lasterketa, kontrara, mendiaz lasai gozatzea izan zen hasieran antolatzen hasi zirenen lagunaren asmoa, eta horrek bere horretan jarraitzen du. Baina egia da badela martxa azkar egin guran

etortzen dena, tarte batzuk korrika egiten dituen, lasterketetara begira entrenatzera datorrena... Eta, gutxieneko denboren kontrolak kentzea erabaki dugu. Azkar ibili gura dutenek ere lekua dute Aiba!-n, goza dezatela mendiaz gura duten moduan. Hori bai, gerta daiteke jatekoen eta edatekoen postura goizegi iritsi eta inor ez egotea [Barre].

**Orduzuei aldetik ze aurreikuspen dituzue?**

Ibilbide luzeak 41 kilometro ditu [ia 3.000 metroko desnibelarekin], eta motzak 34 [2.100 metroko desnibelarekin]. Distantzia aldetik ez da alde handia, baina ibilbide luzean mendizaleek Udalatx eta Anboto igo beharko dituzte, eta horrek dezente gogortzen du bidea. Hala, motza egiten dutenak 14:00 edo 14:30 aldera iritsiko dira Biterira. Ibilbide luzea egiten dutenek, berriz, gehienez hamaika ordu izango dituzte, 18:00etan Biterin egon beharko dute. Aurretik esandako moduan, baina, Aiba! ez da lasterketa. Ez da azkarrenendako saririk egongo, ezta sailkapenik ere.

**Zer du Aiba! martxak?**

Hona etortzen den jendeak esaten digu Euskal Herrian dauden mendi martxen artean gogorrenetakoa dela, ondo entrenatuta egotea komeni dela. Eta, Udalatxera igotzeak, Anbotoa igotzeak badu bere xarma, baita Aramaioko ibarrak ere, ibilbide polita da.

**Domekan zenbat lagun egongo zarete lanean?**

30-40 lagun, gutxi gorabehera. Lanak kuadrillak ditugu banatuta eta horrela errazagoa da; Besaideko beteranoen laguntza dugu, Mondraitzekoena... Eta ondoren, hainbat lagun talde ibiltzen dira lan ezberdinak egiten. Horien guztien laguntza barik ezinezkoa izango litzateke halako bat antolatzea.



Josu Zubia. GOIENA

**Josu Zubiak ez du Mondra entrenatzen jarraituko**

**FUTBOLA** "Etap bat amaitu da, hiru urte oso emankor izan dira", adierazi du Zubiak

**X.U.** ARRASATE

Denboraldia amaitzearekin batera adierazi dio Josu Zubiak Mondrako zuzendaritzari ez duela lehenengo taldea entrenatzen jarraituko: "Oso gustura egon naiz bertan, lantalde ona dago, baina egia da intentsitate handiko urteak izan direla. Uste dut jokalariei hauei zuku guztia atera diedala, eta beste entrenatzaile baten etorrera komeni zaiela".

Azken 15 urteetan Josu Zubiak birritan hartu du lehenengo taldearen ardura, eta bietan lortu du Mondra kategoriaz igotzea (2003an eta 2016an). Oraingoz ez du beste eskaintzarik.

**ATLETISMOA** Ekainaren 17an egingo dute Corpuetako proba

Antxintxiketanean antolatuta, ekainaren 17an egingo dute Corpuetako 10 kilometroko lasterketa. Hala, azken urteotan moduan, antolatzaileek Euskal Herriko 18-20 atleta onentsuenak gonbidatuko dituzte atletismo ikuskizuna eman dezaten: "Debagoieneko atleta batzuei ere keinua egin gura diegu", adierazi du Asier Osinagak.

# Herensugeek Erroma izango dute kontrario

**ERRUGBIA** Zapatuan jokatuko dute Nazioarteko Zazpiko Errugbi Txapelketa. Senior mailan beste urte batzuetan baino talde gutxiagok eman du izena –talde asko azken orduan animatzen dira– eta beterranoek Erromako taldearen bisita izango dute

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Hemeretzigarren urtez, garagar-doak eta errugbiak bat egingo dute zapatuan, Nazioarteko Zazpiko Errugbi Txapelketan. Herriko Plazako karpa eguenetik dago zabalik, baina egun potoloa zapatukoa izango da, jokalariek orduan botako dute-eta izerdia Mojategin. "15:00etan hasiko da txapelketa, eta, oraingoz, bost taldek eman dugu izena, Arrasatekin batera Ordizia, Bilbo, Durango, eta Gasteiz izango dira-eta txapelketan. Azken orduan, baina, beti animatzen da talderen bat", adierazi du taldeko entrenatzaile Igor Isasik.



Jokalariak txaloka. GOIENA

**Seniorretan kanpoko talderik ez**

"Izenak hala badio ere, aurretik gure txapelketa ez da nazioartekoa izango, kanpotik ez da-eta talderik etorriko, eta Ordizian jokatzen duten kanpotarrekin konformatu beharko dugu", dio bizkaitarrak umorez: "Baina beterranoek bai, horiek Erroma-

ko errugbi taldekoen kontra jokatuko dute lagunartekoa".

**Lan bikoitza Arrasatekoendako**

Txapelketara begira duten asmoen gainean galdetuta, Isasik garbi ikusten ditu gauzak: "Za-

patu eguerdira arte ezingo dugu ikusi zer egiteko gauza izan gaitzkeen. Guk ligari ematen diogu garrantzia, zapatua errugbi jai bat baino ez da, ondo pasatzeko aitzakia bat. Jokalariek, gainera, lan bikoitza izaten dute, eguenetik txandak izaten dituzte-eta garagardo karpako tabernan, eta egubakoitzean jendea presa barik ibiltzen da [Barre]. Horrenbestez, zapatu eguerdian talde erdi biharamunarekin baldin badago, bada, jai dugu. Irabazi gura badugu, sikiera, lo eginda etorri behar dugu [Barre]".

**Zazpiko errugbia, olinpiarra**

Iaz lehenengoz izan zen zazpiko errugbia kirol olinpiar: "Oso ikusgarria da, entsegu asko egiten direlako. Paseek zorrotzak izan behar dute, eta taktikak garrantzi handia hartzen du. Baina fisikoki ezinbestekoa da sasoiaren egotea. Ea bihar ze maila ematen dugun".



Oñatiko pilotari Gorka Perez, joan den egubakoitzean. GOIENA

## Herriarteko final-laurdenak Ataunen kontra, gaur

**PILOTA** Joan den astean Zestoa kanporatu ostean, oñatiarrek etxean jokatuko dute bigarren kanporaketa

**X.U. OÑATI**

"Irabaztea komeni zitzaigun bi partiduak irabazi ditugu: kade-teena eta gazte mailakoena. Eta lortu dugu. Baina ez gara gustura geratu gaur egin dugun lanarekin. Joanekean askoz hobeto jokatu genuen", esan zuen joan den egubakoitzean pilota saileko ordezkari Josu Osak.

Bada, lehen kanporaketan etxean baino hobeto jokatu zuten kanpoan, eta hori zuzentzeko aukera izango dute gaur, egubakoitza, 22:00etan hasita, Ataungo pilotarien bisita izango dute-eta oñatiarrek.

**Final-laurdenak dira**

Lehenengo kanporaketa gaituta, dagoeneko zortzi talde geratzen dira txapelketan: Astigarraga, Oiartzun, Hernani, Zizurkil, Ataun, Azpeitia, Azkoitia eta Oñati. Eta, hain zuzen, Ataungoak izango dituzte gaur aurrean. Lazkaoren kontra justu-justu egin zuen Ataunek aurrera, aurreko astean etxetik kanpora bi partidu galdu egin zituztelako, baina etxean lortutako emaitzei esker eta gazte mailan lortutako emaitzari esker (22-3) egin dute aurrera. Tanto aldea garrantzitsua da.

**LEHEN DISKOA KALEAN**

**EGIN ZAITEZ BAZKIDE**

Ez bazara Goiena Klubeko bazkide, gaurtik aurrera eta urte bukaera arte 30 euroko kuotaren truke egin zaitez bazkide. Anima zaitez. Deitu 688 69 00 07 telefono zenbakira edo sar zaitez [goienakluba.com](http://goienakluba.com) webgunean!

## Iker Martinez: Itzalen mundua

Latzen, Potemkin, Lenao eta beste hainbat taldetan aritua, orain bakarka!

Gaur **PUNTUA**-rekin batera. Goiena Klubeko bazkideentzako doan.



# "Debagoieneko taldeak batzea da gure erronka"

**RUBEN GAUNA 'OSINTXUN MUSIKARA!' LEHIAKETAKO ANTOLATZAILER TALDEKOA**  
Musika taldeentzako eta bakarlarientzako sariketa egingo dute Osintxuko jaietan, irailaren 1ean; parte hartzeko, ekainaren 9a baino lehen eman behar da izena

**Aitziber Aranburuzabala BERGARA**  
Iazko harrera ona ikusita, aurtur bigarren antolatu du Osintxuko jai batzordeak *Osintxun Musikara!* lehiaketa. Antolatzailer taldeko Ruben Gauna Arrasate Irratian izan da.

**Musikaria zara eta zuk ere lehiaketetan parte hartu izan duzu; adibidez, Danbakan. Ze oroitzapen dituzu?**

Egia esan, oso oroitzapen onak ditut; 2008ko edizioan izan ginen gu. Oso aukera ona izan zen gure taldearentzako –Adi Holden– eta, orokorrean, parte hartu zuten guztientzako.

**Oraingoan, antolatzailer lanetan ari zara. Zer dela-eta erabaki zenuten lehiaketa egitea?**

Azkeneko urteetan jaietan antolatzen genituen kontzertuetara jende askorik hurbiltzen ez zela ikusita eta horri buelta eman guran, iazko jaietan musika lehiaketa proposatu genuen, zerbait berria edo ezberdina eskaintze aldera.

**Eta gustukoa izan zen, 25 parte hartzaile batu zenituzten eta.**

Euskal Herriko toki askotatik bidali zizkiguten, bai, parte hartzeko eskaerak. Horietatik bost talde aukeratu zituen epai-mahaiak finalean lehiatzeko.

**Sari nagusia Eibarko The Vartools taldearentzako izan zen.**



Ruben Gauna, Arrasate Irratian. A.A.

Halaxe da, bai; eurentzako izan ziren 500 euroak; bigarren saria –200 euro– Santurtziko Hoax Attack taldeak jaso zituen.

**Iazkoaren bidetik dator aurtengo sariketa; norentzako da, baina?**

Euskal Herriko edozein talde edo musikarik har dezake parte, hasiberriek zein eskarmentua dutenek; eta musika estiloari dagokionez ere, askotarikoak onartzen ditugu.

**Parte hartzeko zer egin behar da?**  
18 urtetik gorakoa izatea da baldintza bakarra. Parte hartu gura dutenek ekainaren 9a baino lehen

biografia eta hiru abesti bidali behar dituzte, MP3 formatuan, [osintxunmusikara@gmail.com](mailto:osintxunmusikara@gmail.com) helbidera. Gure Facebooken dituzue oinarriak eta bestelako informazioa.

**Horietatik hiru aukeratu dituzte epai-mahaiak finala jokatzeko.**

Izen-ematea itxi eta gutxi gorabehera bi astera jakinaraziko ditugu irailaren 1ean zeintzuk izango diren agertokian, taldeek denbora izan dezaten euren emanaldia prestatzeko.

**Sariei eta finalaren formatuari dagokionez, berrikuntzak daude.**

Iazko bi sariez gainera, Arrasateko Danatek musika dendaren laguntzarekin publikoaren saria ere izango da aurtur. Formatuari dagokionez, talde bakoitzak, asko jota, 35 minutuko emanaldia egingo du; eta ondoren, epai-mahaiak erabakia hartzen duen bitartean, Eskean Kristo Bizkai-taldearen kontzertua izango dugu.

**Zelan doa aurtengo uzta?**

Ondo doa; oraingoan, Gasteiztik, Nafarroatik eta Bizkaitik jaso ditugu eskaerak, baina harrিতa gaude Debagoienetik espero baino gutxiago heldu zaizkigulako; eta bertakoak etortzea da, bereziki, gure erronka. Egia da iaz gehienak azkeneko egunetan jaso genituela; animatu, bada!

## Shakespeareren sonetoen euskarazko errezitala

Shakespeareren 'Zeru horren infernuak' izeneko errezitala eskainiko dute Bergarako Olaso Dorrean

**Ane Vitoria BERGARA**

Begarako Olaso Dorrea Fundazioaren eskutik dator emanaldi berezi hori, non William Shakespeareren sonetoak euskaraz entzungai izango diren. *Zeru horren infernuak* ikuskituzunean, idazle ingelesaren 154 soneto izango dira entzungai; Juan Garzia Garmendiak euskaratu ditu, hain zuzen. Eta aspalditik dihardu piezak euskarara egokitze lanetan. Sonetoak, Joxan Goikoetxeak berak sortutako doinuekin, kanta

bihurtu ditu, eta, musika horretaz lagunduta, sonetoak zuzenean entzun ahal izango dira Olatz Praten eskutik, hura izango baita kanta horiei ahotsa jarriko diena. Errezitala ekainaren 8an, eguena, izango da, Bergarako Olaso Dorrean, arratsaldeko zazpitan. Hasiera batean, eta eguraldiak laguntzen badu, errezitala dorreko lorategian izango da. Eguraldi kaskarra eginez gero, berriz, dorreko goiko aretoan izango da entzungai Shakespeareren pieza berezi hori.



ELKAR

## Jokin Zaitegi itzulpen saria

2015ean Svetlana Aleksievitx Bielorrusiako idazleak eskuratu zuen Literaturako Nobel saria, *U Voiny ne zhenskoe litso* lanarekin Orain, Jokin Zaitegi itzulpen sariari esker, lan hura euskaraz irakurri ahal izango da: *Gerrak ez du emakume aurpegirik*. Itzultzailea Iker Sancho izan da.

## EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA (EKT)

**GOIENA TELEBISTA,**  
EKAINAREN 8AN, EGUENEAN, 21:00ETAN  
**GONBIDATUA: GORKA URBIZU**

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK, GOIENAK, EUSKADI IRRATIAK ETA BILBAO HIRIA IRRATIAK ELKARLANEAN EGINDAKO SAIOA.

**goiena**  
ZU HEMEN ZAUDE



# Berri Txarrak taldearen ibilbidearen kontakizuna

Berri Txarrak musika taldeko Gorka Urbizu elkarrizketatu du Galder Perez kazetariak (Euskadi Irratia) hirugarren 'EKT' saioan; ekainaren 8an, eguena, 21:00ean izango da Goiena telebistan ikusgai. Aurreko saioak 'goiena.eus' atarian eskuragarri daude

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE 1994. urtean jaio zen Berri Txarrak taldea, Lekunberrin. Laukote moduan hasi ziren: Gorka Urbizu (ahotsa eta gitarra-jolea), Aitor Goikoetxea (bateria-jolea), Mikel Lopez Rubio (baxu-jolea) eta Aitor Oreja (gitarra-jolea). 2004. urtean Orejak taldea utzi eta harrezkero hirukote formatuan geratu barik ari dira nafarrak. Hamar disko dituzte kalean eta beste hainbat argitalpenetan parte hartu dute; horrez gainera, 1.000 kontzertu eginda ere bai.

Taldeko abeslaria eta gitarra-jolea apirilean izan zen Aretxabaletako Ikus-entzunezkoen Fakultatean. Ikasgelan kontatutakoak laburbildu zituen gero, Galder Perez Euskadi Irratik kazetariak gidatuta.

## Bidean ikasten

Etorkizunera begira bizi direla zioen, proiektu berriak asmatzen eta sortzen. Azkeneko lanarekin,



Gorka Urbizu musikaria. GOIENA

baina *-Denbora da Poligrafo Bakarra* (2014)-, atzera begiratu dute, taldearen 20. urteurrenaren horretara bultzatuta. "Ona da noizean behin atzera begiratzea egin dituzun gauzak baloratu ahal izateko", zioen Urbizuk.

Gertutasun handiko solasaldian murgildu ziren musikaria eta kazetaria, taldearen hastapenetatik abiatuta. Nostalgia kalteak bizi izan zituen taldeetako bat izan zela kontatzen hasi, eta gaur egungo taldeek duten zailtasunen gaineko iritzia ere eman zuen. "Gaur egun dena dago eskuragarriago; ekoizpen eta informazio handia dago, baina zalantza dut, horiek entzun edo behar duten denbora nahikorik eskaintzeko aukerarik dugun. Talde hasiberriek oso zaila dute tokitxo bat egiteko anabasa atomizatu honetan".

**Imitatzailerako asko musika arloan** Karaokeak bogan daude, eta Urbizuk horiekiko kezka adierazi zuen: "Nazkatuta nago he-dabideetan musikari ematen zaion tratuarekin. Iruditzen zait sormena ez dela behar beste baloratzen. Ahots ona duen jende asko dago, baina horietatik zenbatek sortzen dute?".

## Bigarren saria Arizmendi Ikastolako abesbatzarentzat

Lan gogorra egin ostean, abesbatzak bigarren saria lortu zuen nazio mailako III. Haur Abesbatzen Lehiaketan

### Ane Vitoria ARRASATE

Arizmendiko abeslariak ez dira esku hutsik bueltatu etxera; izan ere, joan den asteburuan, Agrupacoros Madrid elkarteak antolatutako nazio mailako III. Haur Abesbatzen Lehiaketan bigarren saria lortu zuten. Getafeko Musika Kontserbatorioan antolatutako topaketan, lau abesbatza lehiatu ziren: Madrilgo Las Veredas, Sinan Kay abesbatza, Valentziako Gallarda eta Arizmendi Ikastolako abesbatza, hain zuzen ere. Lehiaketaren garaileak Madrilgo Las Vere-

dasko kantariak izan ziren eta Arizmendi abesbatzak eta Sinan Kay *ex quo* bigarren saria eskuratu zuten. Debagoiendarrak oso pozik bueltatu ziren Madrilgo txapelketan lortutako bigarren postu horrekin.

### Lan gogorraren emaitza

Haur Abesbatzen Lehiaketan, debagoiendarrek, derrigorrezko kantuz eta kantu ezkutuaz gain, Tomas Garbizu euskal konpositorearen *Pasayan Xexenak* eta M. Huff-ek moldatutako J. Lennon *Imagine* abestu zituzten.

Eginiko lanagatik, gainera, Madrilera gerturatutako familiez gain, gainontzeko ikus-entzuleen txalo zaparrada beroa jaso zuten kantariak. Hilabete batzuek eginitako lan gogorraren seinalea da hori; izan ere, Arizmendiko abesbatza otsailean sailkatu zen txapelketa honetan parte hartzeko, eta, geroztik, buru-belarri ibili da lanean. Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako 59 kantari Murgiondorekin batera entseguak egiten aritu dira; eskolaz kanpoko orduetan zein eskolako atsedenetan, hain zuzen ere.

### Harremanak sendotzen

Gainera, Rakel Murgiondok zuzendutako abesbatzak Valentziako gonbita jaso zuen datorren ikasturtean bertako abesbatzarekin elkartrukea egiteko.

## Goiena Klubaren txokoa

### Hauek dira maiatzeko saridunak!

#### ENERGY SCREENLIGHT HD IRAKURGAILUA

Jesus Belamendia Agirre (Elgeta)

#### 'PERRETXIKO ZAINDARIAK' JOKOA

Iker Agirrezabal Mateo (Oñati)

#### HARREMAN DENDAKO OTARREA

Izaskun Garcia Uralde (Arrasate)

#### ARRIKRUTZERAKO BINA SARRERA

Lurdes Garcia Zaplain (Arrasate)

Mikel Zubillaga Atxa (Arrasate)

Ana Mari Aranburu Murgizu (Bergara)

#### BASKONIA-UNICAJA PARTIDURAKO BINA SARRERA

Mila Murgiondo Villar (Oñati)

Jose Antonio Gardoki Beitia (Aretxabaleta)

Joanes Urrate Sanchez (Oñati)

Garbiñe Beitia Baños-Antigua (Arrasate)

#### JON GURRUTXAGA & KEU AGIRRETXE KONTZERTURAKO BINA SARRERA

Gregorio Kortabarria Balanzategi (Arrasate)

#### ARRASATE MUSIKAL ORKESTRAREN ETA GOIKOBALUREN

KONTZERTURAKO BINA SARRERA

Ruth Osinaga Zubiaga (Arrasate)

Maria Gardoki Legorburu (Oñati)

#### 'BURBUJAS DE PAPEL' DANTZA IKUSKIZUNERAKO BINA SARRERA

Arantxa Garmendia Zabalo (Bergara)

Arantzazu Madina Aranburu (Arrasate)

Nerea Garai Kortabarria (Arrasate)

#### 'ARTXIPIELAGOA' IKUSKIZUNERAKO BINA SARRERA

Irati Pagoaga Zaloña (Aretxabaleta)

Jokin Iturriotz Gastesi (Arrasate)

Iñaxio Buquete Ugarte (Oñati)

Jesus Blain Urzelai (Oñati)

#### ZUMELAGA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Unai Iñiara Lasa (Bergara)

#### DUKIENA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Felix Garitano Eguren (Bergara)

#### ITURRIETA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Eduarne Iñiara Bastardo (Bergara)

#### ERREKA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Ainhoa Pagaldai Zenitagoia (Arrasate)

#### SARIAK JASOTZEKO:

**Arrikrutzeko sarrerak.** Goiena klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikrutzeko txarteldegian. Sarrerak 3 hilabeteko epe muga izango dute. **ARRIKRUTZ KOBAK.** Araotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00. Orduetgia: Asteartetik Igandera 10:00 - 17:00 (Aurrez deitu hitzordua egiteko) Harreman dendako otarrea **Otarrea** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin. Harremanek, Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Lehen bi sariak jasotzeko**, zator GOIENAREN egoitzara. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da. GOIENA Otarora Lizentziaduna 31. Arrasate. 943 25 05 05. Orduetgia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.

## Irabazi bi lagunendako otordua

### LARRINETXE JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntuia* aldizkari *Otorduan* atala eta hartu parte!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



*Puntuia* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...



Bazkidetu zaitetz: 2017 (ekainetik aurrera): 30 euro. Deitu: 943 25 05 05. [goienakluba.com](http://goienakluba.com)

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!



## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

## 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Erdigunean hiru logela eta egongela dituen etxebizitza ematen da errentan. Igogailua du. Hilean 600 euroko errenta. 617 71 79 27

